

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2011-12-05
ASTELEHENA
345. ZENBAKIA
8. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM



AMAIA TXINTXURRETA

"Mankomunitatearen asmoa da 2013an hastea atez ateko sistema ezartzen"

Josu Pereda | Mankomunitatea | 7



Maila aparta eta parte-hartze handia akordeoi lehiaketetan | 30



Indarkeria matxisten aurkako zine soziala, hilaren 12tik | 29

Durangoko Azokak arrakastaz zabaldu ditu atek, beste behin | 4



EUSKARAZ BIZITZEA HELBURU

Debagoieneko herri denetan ospatu dute Euskararen Eguna, zapatuan bertan toki gehienetan; argazkian, Arrasate | 12

Arrasaten zapatu eguerdian batu zen jende gehien: dantzari, erraldoi eta kiliki, antzezle... askok parte hartu zuten Euskalgintzak antolatutako Lip dub grabaketan. | JULIO CALLEJA



Antzuolakoa, txapelarekin. | A.E.

Aitor Mendizabal txapela jantzita Tolosatik Antzuolara

Txikitasunean pilotari handia dela erakutsi du Antzuolakoak, Lemunoren aurka Lau terdiko Promozio finala irabazita (15-22). Bost hilabete aski izan ditu txapela jantziteko; uztailean egin zuen debuta profesionaletan. Antzuolarraren babesa izugarria izan zen Tolosako Beotibarren. | 22

Torunsan lanean hasiko dira gaur, aurre-akordioa lortuta | 4

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 |
ELKARRIZKETA 7 | IRITZIA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 22
JAKINGAI 28 | KULTURA 29 | ZURE IRAGARKIAK 34 |
TELEBISTA-IRRATIA 37 | ZORION AGURRAK 38 |
JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39



goienakluba
Abantailaz betetako Kluba!

GOZATU, MEREZI DUZU !

LILURIA
EDERTZE INSTITUTUA

Txartela, beti aldean

► Zoaz 21 orrialdera

Ohiturak aldatu arren, ondo eta osasuntsu jan daiteke

- ▶ Gero eta jende gehiagok jaten du etxetik kanpo
- ▶ 'Tupper' edukiontziek arrakasta handia dute
- ▶ Platerak ondo ez aukeratzeko aitzakiarik ez dago

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Lan ordutegiak direla, bazkaltzeko ohituren aldaketa dela, estresa eta presaka bizitzea dela... gero eta langile eta ikasle gehiagok bazkaltzen dute etxetik kanpo.

Lehendik ere hala zen, baina, krisiarekin, beste faktore bat dago jokoan: gero eta gehiagok eroaten dute janaria etxetik, edo, kanpoan bazkaltzen badute, gastu ahalik eta txikiena egiten dute. FUCI kontsumitzaileen federazioaren arabera, 2010eko azaroan, Hego Euskal Herrian eta Espainian, 10 lagunetik seik etxetik kanpo bazkaltzen zuten, eta horietatik %12 gutxiago irteten ziren eguneko menua jatera. Alderantziz, 2007tik 2010era %13 langile gehiagok aukeratu zuten janaria etxetik eramatea; denetara, langileen %28.

Jatetxeak, kontzientziatuta

Kanpoan jatea erosoagoa izan daiteke. Baina kezka bat ere zabaldu da: osasunari zela eragiten dio?

Ulma Taldeak Menu Osasungarriak izeneko kanpaina ipini berri du martxan. Horren bidez, langileek jaten duten hiru jate-txetan, egunero, arbel baten ipiniko dute eguneko menua, eta aukera osasungarriena zein den markatuta egongo da. Hortik aurrera, norberak nahi duena har dezake, orain arte moduan.

Jatetxeetako arduradunek ere gero eta kontzientzia handiagoa dute dieta osasungarriez. Arrasateko Erreka jatetxeko Aintzane Vallesek esaten duenez, "bai, jendeak gero eta gehiago zaintzen du bere burua". Bere menuetan

"denetarik egoten da: barazkia, haragia, arraina, potajeak; plater hotzak, beroak..."

Bergarako Lasa jatetxean negozio-bazkariak egiten dituzte askotan. "Menuan denetarik eskaintzen dut, gero norberak aukera dezan. Babarrunak gustura jaten ditu jendeak eta hori menuan egoten da. Osasuntsu jan nahi duenak aukera dezake legatz frijitua, ezer bakoa". Honakoa ere azpimarratzen du: "Dena da etxean eta produktu kimiko barik egindakoa. Hala, postrerako gozoren bat hartzen duenak ere badaki dena ona dela".

Edukiontzia, aukera ona

Janaria etxetik prestatuta eramatea "osasun aldetik aukera ona" dela esan dio Arrasateko Lorea Aranburu nutrizionistak Goiena telebistari, "menua norbere egoerari moldatuta" egongo delako. Baina, kontuz: hor ere, ondo aukeratu behar da zer prestatu, eta eguneko otordu guztien artean eta asteke egun guztietako menuen artean gorde oreka. Nor-

bera ondo elikatzekeo betiko gomen-dioak ere kontuan hartu behar dira: ondo armozatu, denborarekin; afari txikiak egin; eta egunean hiru otordu nagusi eta, tartean, bi arin egin.

Edukiontzian edo tupperrean daroagun janaria ahalik eta gehien gozatzeko, jarraibide hauek gogoratu behar dira: ahal dela, eroan ur-konposaketa handia duten jatekoak -hala nola, barazkiak, entsaladak, lekaleak, zopak edo gisatuak-, mikrouhinak ur-molekulak mugituz berotzen baitu janaria. Horregatik, ur gutxi duten janariak larregi sikatu daitezke mikrouhinean.

Zenbat eta janari urtsuagoa izan, orduan eta potentzia handiagoan ipini beharko da labea, eta alderantziz.

Bestalde, larregi ez jateko, komeni da eguneko arrazioa legezko handia izatea edukiontzia. Bazkarian eguneko energiaren %30 inguru hartu behar da. Elikadura adituek honako kantitateak gomendatzen dituzte: 125 gramo okela edo 150 gramo arrain; 150

gramo lekale, arroz edo egositako pasta; 200-250 gramo patata; eta 150-200 gramo barazki edo entsalada. Funtsean, dieta mediterraneanra jarraitzea komeni da.

Barazki eta lekale gehiago

Debagoieneko enpresa eta ikasketxe askotako bazkaria Ausolan kooperatibak prestatzen eta zerbitzatzen du; Hego Euskal Herrian, 10.000 bazkari ematen ditu egunero, 120 bezerorendako. Hango ordezkarien esanetan, "egunero, bai barazkiak, entsaladak, lekaleak, pasta edo arroza izaten dira lehenengo plateretan, eta arraina, haragia edo arrautzak bigarrenetan".

Ausolanen iritziz, "ezinbestekoa da menu osasungarriak eskaintzea" eta janariak bariatuak izatea. "Osagaien oreka ere zaindu behar da. Gure aitona-amonek jaten zuten era da egokia, barazkiak eta lekaleak bultzatuz eta animalia-proteinak gutxituz". Kanpoan jaten denean, bigarren platerarekin aukeratzeko da txarto: "Animalia-proteinez osatutako platerak" eta



Langileak tupper edukiontzietan eramandako bazkaria jaten. | LEIRE KORTABARRIA

Janari-edukiontzien iraultza

MARKA ERREGISTRATUA

Taper deitzen diegu jatekoendako edukiontziei, baina *tupperware* marka erregistratua da. Earl Silas Tupper kimikalari estatubatuarrak erregistratu eta patentatu zuen 1944an.

MATERIAL BERRIA

Polietileno termoplastikoa zen aukeratutako materiala, material berri-berria. Ez zuen usainik ez zaporerik uzten.

IRAULTZA

Tupper asmatzaileak 1947an aurkeztu zuen bere *katilu miragarria*, etxeko janariak gordetzeko. AEBetan iraultza izan zen.

FESTAK

1951n, Tupperrek bere produktu guztiak kendu zituen dendetatik, eta *tupperfesten* bidez soilik saltzen hasi zen.

MUNDU OSOAN

Gaur egun, 1.000.000 pertsonak dihardute 100 herrialdetan tupperrek batzar pribatuetan saltzen.



Iragarki bat. | TUPPERWARE

ESANAK

"Jendeak zaintzen du bere burua, eta jatetxeko menuan denetariko aukerak ematen dizkiogu"

AINZANE VALLES | SUKALDARIA

"Ondo armozatu, afaltzeko gutxi jan eta egunean bost otordu egin behar dira: hiru nagusiez gain, beste bi egin, arinagoak"

LOREA ARANBURU | NUTRIZIONISTA

"Opilak jaterakoan ere aukera osasungarria egin daiteke: opil industrialen partez, okindegikoak"

PAQUI CHAVES | OKINA



Paqui Chavesek ogitarteko piloa saltzen ditu egunero. | LEIRE KORTABARRIA

Oreka, egun eta aste osoko kontua

TENTAZIOAK Etxetik kanpo jaterakoan, errazagoa da tentaldian jaustea: hain osasungarriak ez diren jatekoak aukeratzea edo ohi baino kantitate handiagoak jatea.

DENETARIK Osasun ona duen batek denetarik jan dezake, baina dena bere neurrian: hidratoak, gozoak...



GAIXOTASUNAK Lodi daudenek, edo kolesterol handia, diabetesa edo hipertentsioa dutenek bereziki zaindu behar dute zer eta zenbat jaten duten.

ETXEKO JANA Aukera onena da, etxetik kanpo bazkaldu behar bada. Etxean ondo prestatu behar da eta, lantokian, hozkailuan gorde bazkalordura arte.

MIKROUHINAK Jana berotzeko modu bakarra izaten da. Baina, ahal dela, ez egunero erabili, izan ere, janariak propietate organiko batzuk galtzen ditu.



GOMENDIOAK Lorea Aranburu nutrizionistak hauxe aholkatzen du: lehenengo plater gisa, barazkia, entsalada, arroza, pasta edo lekariak; bigarrenan, arraina, okela edo arrautzak; postre gisa, fruta edo jogurta; eta ogi zati txikia.



GARBI JAN Kontuz goarnizioekin: patata erreek eta piperrek koipe larregi izaten dute. Bestalde, baztertu alkohola.

BAZKARIA ETA AFARIA Oreka ez da otordu bakarrek kontua; hala, dieta aste osoan orekatu behar da –denetarikoa janak aukeratuz– eta bazkaria afariarekin ere bai –bazkaritan pasta jan badugu, afaritarako barazkiak jan ditzakegu.



Zarugalde jatetxean, bazkalorduan. | LEIRE KORTABARRIA



Ulmak elikaduraren gaineko liburuxkak eman dizkie sukaldariei. | GOIENA

"saltsa asko" dutenak aukeratzen ditugu. "Gatz larregi ere kontsumitzen dugu", esaten dute.

Ogitartekoen arrakasta

Ogitartekoa jatea ere aukera ona izan daiteke; betiere, edozein

janarirekin bezala, beste menu batekin tartekatuta astean zehar. Eta, sarritan, aukera ekonomikoena izaten da, gainera.

Arrasateko Bolintxo okindegi eta dendako arduradun Paqui Chavesek egunero prestatzen

ditu 60 urdaiazpiko ogitarteko, eta beste horrenbeste patata-tortilla eta txorixoak, eta 50 opil txorixoarekin. Mikrouhinean berotzeko gertatutako arrazioak ere baditu aukeran. Egunero ia ogitarteko guztiak saltzen ditu:

"Ikasle eta lantegietako behargin asko etortzen zaizkit", esaten du. Tentagarriak dira ere hango opilak, eta horietan ere, aukera osasungarria egiterik badago: opil industrialen partez, han bertan egindako opilak erosi.

SEAT ALHAMBRA BERRIA

Goatzeko teknologia

Udalaitz



Gipuzkoa etorbidea, 36
ARRASATE • 943 71 18 70





Arrasateko Ain_1 taldeko neskek Ahotsenean kontzertua ematen. | JULEN IRIONDO

Durangoko Azokak arrakastaz zabaldu ditu ateak beste urte batez

Hiru gune berri daude aurtengo azokan: Irudienea, Szenatokia eta Kabi@

AMAIA TXINTXURRETA | DURANGO
Indartsu zabaldu ditu ateak Durangoko 46. Euskal Liburu eta Disko Azokak, beste urte batez.

Jende ugari gerturatu da egun batzutan euskal kulturaren bilgune izango den azokara, eta egileek ere ez diete hutsik egin

euren irakurle, entzule eta ikusleei. Atzo bertan izan ziren, besteak beste, Ruper Ordorika, Mikel Urdangarin, Rafa Rueda, Harkaitz Cano eta Jon Arretxe sortzaileak. Han izan zen Toti Martinez de Lezea idazlea ere bere hiru liburu sinatzen, eta etxeko txikienek

eta euren gurasoek ilara luzeak itxaron behar izan zituzten idazlearen sinadura lortzeko.

Zuzenekoak
Zuzeneko kontzertuek ere jarraitzaile ugari hartu zituzten Ahotsenean. Atzoko kontzertu nabar-

menak hauexek izan ziren: Arrasateko Ain_1 taldeko neskena eta Esne Beltza taldeak eskaini zuena. Gazte eta heldu, agertokiaren beheko aldean batu ziren belarriak goxatu eta ondo pasatzeko asmotan.

Galizia herrialde gonbidatua
Aurtengo herrialde gonbidatua Galizia da eta azokaren inaugurazioan Galizian barrena ibilbide literario eta antropologikoa egin zuen Anton Reixa kulturgi-leak; kultur proposamenaren unibertsaltasuna azpimarratu zuen.

Open3 proiektuak interesa piztu du Arrasaten

Askok entzun zuten bariku iluntzeko hitzaldia eta mugimenduan parte hartzeko izena eman

GOIATZ ARANA | ARRASATE
Open3 mugimenduko kide Valentin Zurbanok azaldu zuen egitasmoa Kulturateko areto nagusian. Ezagutza elkarbanatzea, komunikazioa hobetzea eta kooperatzea da, funtsean. Lagunarteko gogoeta batetik sortu zen ideia, nork bere buruari baino begiratzen ez diola ikusteaz asperuta: "Gizarterik gabeko gizarte batean bizi gara; milioika pertsona pobrezian bizi diren bitar-

tean, lurra suntsitzen jarraitzen dugu, dirua eta boterea lortzearen truke", dio Zurbanok.

Alternatiba
Ekonomia etikoaren aldeko apustua egitea proposatzen dute -dirua banku etikora eramatea-; nekazaritza ekologikora aldatzea; hezkuntza holistikoa aukeratzea "osotasunean pentsatzen" laguntzen duelako; "enpresa handi eta gobernuen kontrolpean ez dagoen"



Valentin Zurbanok azalpenak ematen eta herritarrek arretaz entzuten. | G.A.

sistema komunikatibo global bat izatea; eta elkarte, kooperatiba eta plataformak sortzea, "herritarrek erabakien kontrola berreskuratzeko".

Hitzaldi bakoitzaren ostean, gehitu egiten da proiektuari atxikimendua ematen dion pertsona kopurua; berdin gertatu zen barikuan Arrasaten.

Aurre-akordioa lortu dute Torunsan eta lanera itzuliko dira gaur

G.A. | BERGARA
Enpresako zuzendaritzak eta langileen ordezkariak aurre-akordioa lortu zuten zapatu goizean eta eguerdiko asanbladan aho batez onartu zuten langileek, ELA sindikatuko Patxi Zubizarretak kontatu digunez. Hortaz, behar-ginek bertan behera utzi dute hilaren 24an hasitako greba.

Adostutako puntuetan jasotzen denez, alde biek bilera bat egingo dute hilero, enpresaren egoera ezagutzeko -uda arteko aurreikuspenak onak dira-; datorren ekainera arteko nominak puntual jasoko dituzte eta Gabonetako ordainsaria lau zatitan; eta 2012ko soldatetan KPIak izandako igoera bera aplikatuko diete.

DATUAK

274

ERAKUSMAHAI

Orotara, 274 erakusmahai daude, horietatik hamahiru teknologikoak dira.

376

LIBURU ETA DISKO

313 liburu eta 63 disko aurkitu daitezke aurtengo Durangoko Azokan.

Langabeziak gora egin du azaroan gure ibarrean ere

G.A. | ARRASATE

Urrian baino 95 langabe gehiago zeuden azaroan Debagoiengan; hilabeteko epean, 2.873-tik 2.968ra igo da lan barik zeuden pertsonen kopurua bailaran. Herriz herri begiratuta, joera goranzkoa izan da toki denetan. Eskoriatzaren kasuan, gainera, urteko datu-rik txarrean da azaroan jasotakoa: 213 langabe zenbatu dituzte, urteko beste edozein hilabetetan baino gehiago. Arrasateri dagokionez, bestalde, atzera begirakoa egiten hasita, maiatzera arte jo behar-ko genuke azaroko zifra (1.283) gaingaitzen duen datu bat aurkitzeko (1.290).

Debagoieneko aurtengo azaroko datuak iazko urteko hilabete berekoekin alderatuz gero, berriz, egoera ez da asko aldatzen: 2.933 langabe zeuden orduan, gaur baino 35 gutxiago, orotara.

Gipuzkoan ere okerrera

Espainiako Lan Ministerioak emandako datuen arabera, langabeziak gora egin du Hego Euskal Herrian ere, 3.441 langabe gehiago daude. Nafarroan jazo da igoerarik handiena, eta Gipuzkoan gorakada hainbestearinokoa izan ez bada ere, Bizkaian eta Araban baino portzentaje altuagoan egin du gora: 41.012 pertsona zeuden lan barik hil bukaeran.

HERRIRIK HERRI

HERRIA	LANGABEK	EHUNEKOA
Antzuola	81	%8,90
Arexabaleta	280	%8,68
Arrasate	1.283	%11,09
Bergara	739	%10,30
Elgeta	40	%8,13
Eskoriatza	213	%10,25
Leintz Gatzaga	5	%3,76
Oñati	327	%6,05
GUZTIRA	2.968	%9,58

ITURRIA: ESPAINIAR ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA



Santa Kurtz 24, behea ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net

Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
•
Obra bukaerako garbiketak
•
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
•
Kristalaren garbiketak
•
Arropa garbiketak

Zainketa eta prebentziorako kontrol gehiago

Bigarren mailako errepideetan kontrolak areagotu ditu Ertzaintzak egubakoitzetik

EDU MENDIBIL | ARRASATE

Ertzaintzak bigarren mailako errepideetan kontrolak areagoko ditu aste honetarako, abenduko zubian errepide-zirkulazioak goraka egitea espero baita.

Barne Sailaren datuen arabera, aurten errepidean hildakoen %80 bigarren mailako errepideetan izan da. Ertzaintzako komisariak eta Trafiko Lurralde Unitateek jarriko dituzte abian aipatutako kontrolak. Debagoiena zeharkatzen duen GI-627 errepidea izango da, hain zuzen, kontrol gehiago jasango dituen bideetako bat. EAEko errepideetan prebentzioa eta zainketa. Ezbehar-kopuruak behera egin du azken urteotan eta tendentzia horri eutsi nahi diote Barne Saileko arduradunek. Gidariei kontu handiz ibiltzeko eta arreta handiz gidatzeko eskatu die Ertzaintzak; gidarien hutsegiteak zaintzen

arreta berezia jarriko dute. Egubakoitzean hasi ziren errefortzuekin Ertzaintzako agenteak.

33 hildako

Azken zortzi hilabeteotan 3.027 izan dira bigarren mailako errepideetan gertatutako istripuak. Horien ondorioz, 33 hildako eta 1.449 zauritu izan dira. Esandako moduan, hildakoen %80 EAEko bigarren mailako errepideetan izan dira.

Datu horrek gehiengoaren pertzepzioa ezeztatzen du, alegia hildako gehienak errepide azkarretan izaten direla. Egunero erabiltzen ditugun errepide horietan izan dira hildako gehiago. Autobia edo autobideen aldean ezbehar kopuru handiagoa erakusten dute. Asteburutan gertatu dira hildako gehienak, 10.00-20:00 bitarteko tarte horretan.



GI-627 errepidean 26 istripu zenbatu dituzte azken zortzi hilabeteotan. | J. CALLEJA

Hainbat datu

- ▶ Euskal Autonomi Erkidegoan bigarren mailako errepideek 3.602 kilometro osatzen dute, euskal errepideen %86 hain zuzen.
- ▶ Herriak lotzen dituzten errepide horietan gertatzen dira errepideko istripuen eraginez hildakoen kopururik handiena.
- ▶ Ertzaintzaren arabera, inguruko herrietako gidariak dira nagusi aipatutako errepideetan; aldiz, autobide eta autobiatan gidari atzerritarren presentzia handiago da bigarren mailako errepideetan baino.
- ▶ Bigarren mailako errepideetan areagotu egingo ditu Ertzaintzak kontrolak egunotan. Zainketa eta gidarien hutsegiteen kontrola hobetzea dira helburuak.
- ▶ N-634 errepidea, 119 istripurekin, da istripu gehien jaso duen errepidea, Dena dela, beste errepide batzuk baino askoz ere luzeagoa da, Euskal Autonomi Erkidegoa ia alderik alde zeharkatzen baitu.
- ▶ Debagoiena zeharkatzen duen GI-627 eta N-240 delakoan 26 istripu zenbatu dituzte azken zortzi hilabeteotan.

Ospitaleko ekipamendua gustuko dute sozialistek

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Arrasateko PSE-EE "gustura" dago Debagoieneko Eskualde Ospitaleak izango duen ekipamenduekin. "Erresonantzia magnetikoa egiteko puntako ekipamendua izango du eta Gasteizera joan-etorriak amaituko egingo dira", esan du Aritz Arrieta bozeramaileak. Anestesia osteko errekupeziarako unitatea ere sortuko dela esan du eta lehen mailako asistentzia eta asistentzia espezializatua zerbitzu bakarrean batuko direla.

Askotariko bisita gidatuak

Arrietaren ustez, osasun etxearen birdimentsionatzeak "etorkizuna hobeto planifikatzea eta ondo ekipatutako ospitale moderno eta funtzionala edukitzea dakar, populazioaren beharrei egokitzu eta asistentzia hobetuz".

Jeltzaleen kritikei erantzunez, berriz, Arrieta esan du ospitale berria gauzatu dela "sozialistek bailara honetako osasun zerbitzuak lehen-tasunen artean" jarri dituztelako.

MUko ikasleen gradu amaierako proiekturik onena

'Erresilientzia goiztiarra haurren garapenean' lanarekin, Irantzu del Portillok irabazi du lehiaketa

E.M. | ARRASATE

HUHEZI fakultateko Psikopedagogiako Irantzu del Portillo Lopez ikasleak irabazi du MUko ikasleen gradu amaierako proiekturik onenaren saria. *Erresilientzia goiztiarra haurren garapenean* lanari esker, 2.000 euroko saria jaso zuen del Portillok egunean.

Mondragon Unibertsitateak eta Mondragon Korporazioak antolatutako sariaren lehenengo

edizioa da hau. Sariaren helburua MUko ikasleek karrera bukaerako proiektuak euskaraz egitera bultzatzea da.

Hamazazpi lan

17 lan aurkeztu dira sariaren lehen-biziko ekitaldira Enpresagintzatik, Goi Eskola Politeknikotik eta HUHEZItik. Lan guztiak maila tekniko altuko proiektuak dira, 9 notatik gorakoak, eta proiektu irabazlea euskaraz ondoen idat-



Irantzu del Portillo Lopez ikaslea MUko ordezkariarekin, egunean. | GOIENA

ztiziko lana izan dela nabarmendu du epaimahaiak. Euskararen kalitatea erabakigarria izan da Irantzu del Portilloren lana saritzeko. Hiru fakultateetako bina


kidek eta Mondragon Korporazioko Mikel Lezamizek osatu dute epaimahaia. Mondragon Korporazioak bere Plan Estrategikoan jaso zuen lehiaketaren erronka.

Zuberoako otarreak eskatzeko azken eguna abenduaren 5a da

Zuberoako otarreak gura dituztenek abenduaren 5a baino lehen egin behar dute eskaera zuberoako.ikasola1@orange.fr helbidean. Ordainketa egiteko zenbakia 30350036190360056389 da. Otarrean, ardi-esnez egindako kiloko gazta bat, kilo erdiko ezti potea, patea eta etxean egindako bizkotxoak daude, eta 40 euro balio du.

Otarreen salmentatik batutako dirua Sohütako Eperrak ikastolaren handitze lanak ordaintzeko erabiliko dute. 110 ikaslek dihardute han.

Otarreak abenduaren 16an banatuko dituzte.



Bilbao

Gran Vía 19
Plaza Barria 2

Tolosa

Kale Nagusia 21-23

Gasteiz

Foruak 12

Iruña

Arrieta 7

 skunkfunk



Astero moduan, joan den martitzenean Tavexen Bergarako bulegoen aurrean kontzentrazioa egin zuten 27 aurre-erretiratuk. | LEIRE KORTABARRIA

"Egoera dramatikoan gaude, dagokiguna kobratu barik"

Tavexeko 27 aurre-erretiratuk urtebete daroate prima jaso barik

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA
Tavex ehungintza lantegia orain urtebete itxi zuten, baina horren ondorioak egunero bizi dituzte 27 aurre-erretiratuk. Orain hasi dute kalte-ordaina kobratu bako 12. hilabetea segidan.

Orain bost urte inguru, Tavex hainbat langile ateratzen hasi zen, aurre-erretiro kontratuekin. Horietatik batzuei, aurre-erretiroko primak Belgikako Apra Leven aseguru-etxearen bidez ordainduko ziela esan zien. Tavexek Apra

Leveni ordaindu zien 27 langile horiei zegokien dirua, hark biderra zezan. Baina Apra Leven desegin egin zen, eta 27 aurre-erretiratu horiek kobratu barik geratu dira. Orain, langabezia subsidioa (426 euro) bakarrik kobratzen dute. Baina, gainera, Gizarte Segurantzari hilero 600 bat euro ordaindu behar diote, hark kotizazio-oinarriak gorde diezaien. Hala, hilabetea zorretan hasten dute.

"Egoera jasanezina da. Ezin dugu lan egin, aurrezkiak gasta-

tzen doaz... zer egin dezakegu?", esaten dute.

Tavexi eta Apra Leveni ordain diezaieten eskatzeko, astero bi aldiz kontzentratzen dira Gabiria dorrean, Tavexek oraindik bulegoak dituen lekuan.

"Eta etxea kentzen badiote?"

Denetarikoa egoerak daude: batzuk hobeto daude eta, beste batzuk, oso larri. Badago bakarrik alar-gun pentsioarekin bizi denik; bikotekidea ere aurre-erretiratu

eta oraindik ezer kobratu barik eta alaba bat lan prekarioarekin eta bestea ikasten duenik; edo semearekin batera abal-emaile egin behar izan duenik ere. "Eta egoera gehiago okertzen bada, zer egingo dute, etxea kenduko diete biei? Gertatu izan da", esaten du Jose Luis Aizpuruak. "Dauzkagun aurrezki txikiak bukatzen dabilta. Familiak lagundu ezean, egoera dramatikoan geratzen dira asko", esaten du Jose Ramon Sebal kaltetuak.

Egoerak oso luze jo dezake, norberari erretiratzeko geratzen zaizkion urteen arabera. Batzuei hiru urte geratzen zaie, kinka benetan jasanezin bihurtuz.

Auzitegietan

Batzuek diote Apra Levenena dela erantzukizun osoa, baina Tavexi ere erantzun dezan eskatzen diote.

Urritik abendura, Tavexek hilero 500 euro mailegatu dizkie. Baina eurek gehiago eskatzen dute: "Tavex ere kaltetua denez, gurekin eskutik joatea eskatzen dugu. Beste poliza bat eman diezaguten ere eskatzen dugu", esaten du Jose Ramon Sebalek.

Tavexek Valentzian eta Madrilen dauzka egoitzak. Valentziatik, esaten digute "ahalik eta babes handiena" ematen dietela langileei. "Kontua auzitegietan dago. Apra Levenen aurka hainbat prozedura daude zabalik". Tavex aztertzen dabil kaltetutako langileei beste mailegu bat ematea, baina ez dago ezer erabakita.

Gabonetako argiekin ere dirua aurrez daiteke

Egun osoan apaingarriak piztuta ez edukitzea eta LED bonbillak aukeratzea gomendatzen dute

L.K. | ARRASATE
Gabonetarako hiru aste eskas falta dira, eta etxebizitzetan eta kaleetan ipinita daude argi apaingarri asko. Efektu estetikoak lortzeko, ordea, energia kontsumo handia dakar. Bada, kontsumoa eta gastua ahalik eta txikiak izan daitezke, gomendio batzuk segi daitezke.

Oinarrikoena neurritz kontsumitzea da, eta ez edukitzea argiok gau eta egun piztuta. Etxetik irteterakoan entxufeak ateratzea komeni da. Komertzioen kasuan, argi-programatzaileak oso ondo datoz.

Girlandarekin konbinatu

Gela asko apaindu behar badira, bestelako apaingarriekin konbinatu daitezke argiok: girlanda, purpurina edo argiarekin ondo

joaten diren beste apaingarri mota batzuk.

Sarea askorik ez berotzeko, entxufe onak erabili. Ez konektatu argi asko gailu bakar batera. Horrez gain, ahal dela, kontsumo txikiko edo LED teknologiadun bonbillak erabiltzea komeni da.

Bukatzeo, apaingarriak behar diren egunetan eduki, ez gutxiago, baina ezta gehiago ere.

DATUA

%80

GUTXIAGO

Bonbilla inkandeszenteak baino %80 energia gutxiago behar du LED erako batek.

'Eztabaida' saioa hasiko da bihar, euroaren gaineko tertulia batekin

L.K. | ARRASATE

Eztabaida programa estreinatuko du Goiena telebistak bihar, martitzena, 21:00etan. Euroaren etorkizunaren gaineko saioa izango da. Lehenengo, erreportajea izango da, gaiaz gehiago jakiteko; eta, gero, tertulia egingo dute Iñigo Bullain Zuzenbide irakasleak, Eduardo Malagon Ekonomia Zientzietan doktoreak

eta Adrian Zelaia Ekai Centerko presidentek. Eneko Azkaratek aurkeztuko du.

Ekai Center ikerketa zentroarekin batera Goienak elkarlanean ekoiztu ditu hiru *Eztabaida*: biharkoaz gain, Europako industria politikaren gaineko bat eta finantza merkatuen gaineko beste bat egin dituzte.



Iñigo Bullain, Adrian Zelaia eta Eduardo Malagon. | ENEKO AZKARATE

Etxebideko espedientea Internetez alda daiteke orain

L.K. | BERGARA

On-line tramiteak egiteko prozedurak berritu egin ditu Etxebidek (www.etxebide.euskadi.net). Ekainaz geroztik, etxebizitza-eskatzailen erregistroan alta emateko egin behar guztiak Internetez egin daitezke, eta orain, espedientearekin lotutako aldaketak ere bai, paperak edo fotokopiak postaz bidali gabe.

Etxebizitza eskarian aldaketak *on-line* egiteko, sarbiderako pasahitza eskatzea besterik ez da behar. Horretarako, eguneratuta edukiko behar dira espedientearen agertzen diren harremanetarako datuak, posta elektronikoa adierazita eta Etxebidearekin harremanetarako lehen-tasunezko bide legez posta elektronikoa hautatuta.

Josu Pereda | Mankomunitateko Ingurumen batzordeko kidea

"Asmoa da 2013 erdialderako prest egotea Epeleko konpost planta"

- ▶ Debagoieneko Mankomunitateak ez du baztertzen aurretik ezartzea atez ateko sistema
- ▶ Mankomunitatetik irtenda soilik ahal izango lukete udalek bilketa beste era batera egin

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Poliki-poliki ari dira zehazten hondakinen kudeaketari dagokionez Debagoieneko Mankomunitateak dituen asmoak: konpost planta Epelen hondakin organikoarentzat, eta hori eta beste gaiak bereizita biltzeko atez ateko sistema; aurretik bestelakorik esan bazen ere, agian, konpost planta prest egon aurretik ezarriko dena gainera.

Konpost planta egingo da Epelen. Hasita daude lanak?

Bada, bai. Badira hilabete batzuk lehenengo kanpaina bat egin zela azterketa geologikoa egiteko, eta gaur egun ari dira zehaztasun gehiagorekin egiten zundaketak, geologikoki eta lurrazpiko urak eta aztertzen, ikusteko non eta nola egin konpostaje planta.

Eta erakitze lanak, noiz hasiko dira?

Orain arteko jabeen lurra erosi zaizkie. Abendu bukaeran izango da notaritzan eskrituren sinadura-eta; pentsatzen dut datorren urtean hasiko direla lanak eta urtebete edo urte eta erdiko epean amaituta egongo direla. 2013 erdialderako edo agian lehenago bukatuta egongo den esperantza dugu, hori desio dugu.

Nolakoa izango da Epeleko planta?

Alde batetik joango da konpostaje zentroa eta transferentzia gune bat, garraiatu beharreko materialak batetik bestera pasatzeko, eta, bestetik, bilketarako kamioientzat garaje bat; baita langileendako aldagelak, bulegoak... horiek ere bertan egongo lirarteke. Hortaz, bi zati izango lirarteke: lehena garajea-eta, eta hori Mankomunitatearen esku egongo da, bai proiektua eta bai obra; eta bestea, konpostaje zentroa eta transferentzia zentroa, Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kontsurtzioaren esku egongo da eta eurek kudeatuko dute proiektua, obra eta guztia.

Zenbat hondakin hartuko ditu?

Aurreikusita dago 5.000 tona hondakin organiko hartuko dituela urteko. Errendimendua izaten da %20-25ekoa. Beraz, irtengo lirarteke 1.200-1.300 kilo konpost urteko.

Eta nola dago atez ateko hondakin bilketaren gaia?

Planifikazioa egiten ari gara. Datozen bi hilabeteak nahikoa erabakigarriak izango dira planifikazioari dagokionez, epe batzuk bete beharko ditugulako

hurrengo esleipenerako, baldin eta esleipenik baldin badago, hori ere erabakitze dugu-eta.

Atez atekoa nola ezarriko da Debagoiengan?

Gauzak erabaki gabe daude oraindik, baina asmoa izango litzateke atez atekoa ahalik eta azkarren ezartzea gure bailaran eta denboran gehiegi ez luzatzea ezartze hori. Eztabaidan dagoen gaia da eskualde osoan batera ezarriko den edo bi fasetan egingo den. Baina, behar bada, bi fasetan egingo da: lehenengoan sartuko lirarteke Oñati, Bergara eta, nahi izanez gero, Elgeta; bigarren fasean sartuko lirarteke Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzaga.

Noizko izango da hori?

Asmoa da 2013an hastea ezarpenarekin. Ez dugu argi konpostaje zentroa amaituta egongo den ordurako edo lehenago ezarriko den hondakinen atez ateko bilketa sistema.

Lehenago esan zenuten konpostaje planta martxan jarri eta gero ezarriko zela atez atekoa; orain, berriz, diozue posible dela konpost planta bukatu gabe egonda ere atez atekoa martxan jartzea.

Aurretik esan bagenuen aurrena konpost zentroa amaitu beharko zela izan zen biltzen den hondakin organiko horrek leku bat izan behar duelako tratatzeko. Baina Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kontsurtzioa negoziatzean ari da eraman ahal izateko Iparraldeko konpost zentroren batera edo Nafarroako beste batera gure bailarako zentroa bukatu bitartean. Nolabaiteko urgertzia dago herrietan atez atekoa jartzeko; beraz, baliteke konpostaje zentroa egin aurretik ere ezartzea, aipatutako zentro horietara eraman badaiteke materia organikoa.

"5.000 tona hondakin organiko hartuko ditu urtean Epeleko zentroak"

"Baliteke prest egon arte Nafarroara edo Iparraldera eroatea"

Mankomunitateak erabakita du Debagoieneko herri denetan ezartzea atez atekoa; baina udal bakoitzak du azken hitza?

Konpetentzia udal bakoitzarena da. Gertatzen dena da, gure bailaran udal guztiek dutela eskumen hori mankomunitatearengan delegatuta. Beraz, mankomunitateak erabakitzen du nola bildu behar diren hondakinak gure eskualdean. Horrek ez du esan nahi ados ez dagoen herri batek ezin duenik mankomunitatea utzi eta berak nahi duen sistema ezarri. Baina mankomunitatean jarraitzen duten bitartean, nik uste, mankomunitatearen erabakiak onartu behar dituztela herri guztiek. Ados egon ez ezkerre aukera dago mankomunitatetik irten eta gestioa norberak egiteko nahi duen sistemarekin.

Orain arte ezagutzen dugunarekiko, hobekuntza edo aldaketarik izango du atez ateko sistemak Debagoiengan?


Badaude zenbait gai selektiboki batzen direnak, arazoren bat eman dezaketenak zintzilikarioen bidez batzeko. Aztertzen ari gara, Antzuolan egin den moduan eskatu duten atarrietan gurgildun edukiontzi txikiak jartzea papeira eta kartoia batzeko, ea horrek balio dezakeen beste herrietarako ere, ea alternatibarik dagoen zintzilikarioez gain. Hasiera baten, behintzat, paperarekin ikusten da arazo handiena zintzilikarioak jartzerako orduan.

Organikoa batzeko edukiontzi komunitariorik ez da izango, hortaz.

Ez. Gaiak bereizteko egin beharra indibiduala ez bada, jendeak kolektiboki egiteko aukera badu, ardura ez da hain handia, konpromisoa albo batera uzten da eta jendeak ez du ondo sailkatzeko.

Eta errefusa? Sasieta eramaten da oraingoz; aurreikusten da etorkizunean erraustegi bat egiteko aukera?

Erraustegiaren kontua, guztiz ez, baina ia erabat baztertuta dugu, badagoelako beste aukerarik errefusa hori kudeatzeko. Errefusa hori, zabor baina, hondakin da oraindik, badituelako erreku-peratu daitezkeen material batzuk. Eta geratzen den material horren toxikotasuna oso txikia da, eta, hala ere, badaude tratamendu termiko batzuk egonkortzea eragiten dutenak, fardelen kasuan eta duten toxikotasun txiki hori ere bertan behera uzteko. Hortaz,



Josu Pereda. | AMAIA TXINTXURRETA

"Atez atekoaren lehen fasean sartuko lirarteke Bergara eta Oñati"

"Errefusarentzat aurreikusten da inerteen hondakindegia bat"

aurreikusten direnak dira zabor-tegi txiki batzuk errefusa hori batuko luketenak; baina garbi utzi beharra dago errefusa hori inerte dela, ez dela toxikoa, beraz, horiek ezingo direla inondik inora alderatu gaur eguneko hondakindegiekin. Izango litzateke inerteen hondakindegia bat.

Eta ikusten duzue hori Debagoiengan jartzeko aukera?

Aزتتzen ari gara non jarri daitekeen hondakindegia hori, baina oraingoz ez dago horren gaineko erabakirik.

ZABALIK

ENEIDA ITURBE
http://goiena.net/iritzia/



Lana musu-truk

Trajeak eta gorbatak. Azaroan Boluntariotzaren Europako Biltzarra egin zuten Bartzelonan eta hartan pentsatzean gogora datorkidan lehena trajeak eta gorbatak dira. Administrazioetako eta federazioetako ordezkariak, gizonak (asko) eta emakumeak (batzuk) Enpresen Gizarte Erantzukizunari buruz hizketan.

Boluntariotza jarrera bat dela zioten, izateko modu bat. Altruismoa, elkartzasuna, beharra duenarekin denbora pasatzea, zailtasunak dituenari bizitza errazago egitea... dira boluntariotzaren oinarriak. Biltzar hartako hizlariak, baina, ez zidaten halakorik transmititu. Ordainean dirurik jaso gabe, ingurukoei laguntzeko eta gizarte hobetzeko lanean dihardutenak ez ziren han. Horrek ez du esan nahi, baina, halako jenderik ez dagoenik, ezta gutxiago ere.

Europako hiritarren %25ek egiten omen dituzte borondatzeko lanak. Milioika lagunek, orduan. Batzuek ingurunea eta animaliak babesten dituzte, beste batzuek pertsona nagusiei lagun egiten diete, zenbaitek elkartzasun taldeetan parte hartzen dute, eta boluntariotza Internet bidez egiten dutenak ere badira.

2011 boluntariotzaren urtea izan da Europan. Gizartearen laurden horrek egiten duen lana azpimarratu nahi izan du Europar Batasunak, nork bere esperientzia kontatzeko aukera eskainiz. Aldi berean, hiritarren beste hiru laurdenak animatu nahi izan ditu boluntario lanak egitera.

Ez dakit 2011n zehar balantza orekatzea lortu ote duten. Agian, laurdenetik herenera pasa da boluntarioen taldea. Nork daki! Hala ere, lan hori aintzat hartzeak eta ezagutza emateak bere garrantzia dauka. Horretan lagundu badu, merezi izan du!

Gaur, abenduak 5, Boluntariotzaren Nazioarteko Eguna da eta ziurrenik zenbait ekitaldi egingo dira horren inguruan. Traje eta gorbata dunak hor izango dira, nola ez, baina benetako protagonistei ere tartea egitea espero dut!

"Ez dakit, ba, urte honetan zehar balantza orekatzea lortu ote duten"

USTEAK USTE

EDU MENDIBIL | emendibil@goiena.com

Txikitzearen aldeko apusturik?

Ekologian aspalditik aipatu izan da 3R delako teoria. Gauza eta ideia asko on bezala Japoniatik ei dator eta gaztelaraz 3R horiek *reducir*, *reutilizar* eta *reciclar* dira. Ideiarik ere ez japonieraz nola esaten duten. Euskaraz, arazoa txikitzea (energia eta ondasun kontsumoa txikitu, ingurumenari ahalik eta kalte txikiena egiteko); berrerabilpena eta birziklatzea lirarteke ekologiaren hiru oinarri horiek. Baina hirurak oinarri sendoak dira gurean? Badirudi zabortegeak gainezka daudela eta hor ari dira alderdiak, nor bereari eusten. Naturak berak zer dio? Zalantza barik, arazoa txikitzeak mesede egingo lioke, baina horren aldeko apusturik egiten dugu gaur?

KALE INKESTA

Autoan alkoholometroa derrigortzeari ondo deritzozu?



IMANOL DIAZ DE ZERIO
ARRASATE

"Neurriak behar direla uste dut. Ezin da orokorrean hitzegin, baina alkoholarekiko ardura ez da beti behar bestekoa".



ELENA LOZANO
ARRASATE

"Segurtasun neurrien alde nago eta denendako ikusten dut gainera mesedegarri. Positibo ematen dutenak badaude oraindik ere".



FERNANDO RAMIREZ
ARRASATE

"Positibo kasuak ematen dira eta ondo irudituko litzaidake. Neurri murriztailea izan daiteke, baina beharrezkoa ere ikusten dut gaur egun".



NATALI MARTINEZ
ARRASATE

"Ondo iruditzen zait. Prest nago putz egitera eta ondo deritzot besteeke ere putz egiteari. Hobetu dugu, baina badago oraindik zer egin".

HANDIK ETA HEMENDIK

Estiloan ere egarri

Gorka Bereziartua
http://argia.com/boligrafo-gorria/

"Laguna hausten den hilobiak leher egiteraino zurruta kantua egin litekeen mahaia izan behar luke, zer axola plastikozko lore zikin hauek dardaraka ontzi jausi zartatuaren lepoan, zer axola gure mozkorraldiaren puskailak aldare profanatu batean, zer axola du, bizitza hau ez da edangarria".

Koldo Izagirrenen *Egarri egunak portualdean* nobelakoa da esaldia, aurrenekoa, apustu formal baten erakusgarri.

Donostiako San Jeronimo kalean (*going underground*) aurkeztu zuen atzo [azaroak 30] eta han bildutako gehienok alde aurretik irakurria genuen liburua, ezohiko abiapuntua ezohiko aurkezpenarentzat.

1977ko giro politikoa eta sozial nahasi, biolento, apasionantea angelu ugaritatik erretratzen du istorioak: klase gorrotoa, sexu grina, sindikatuen sorrera, poliziaren errepresioa, feminismoa, heroinaren lehen zamalkatzeak eta egarria,

alkoholarena, gizarte berri batena.

Aurreneko irakurrian *Sua nahi Mr. Churchill* liburuko ipuinen ildoan kokatuko nuke estilo aldetik, baina oraingoan apustua erradikalagoa da, elipsia gehiago, narrazio linealaren haustura gehiago; eta kontakizunaren kadentzia markatzen dute etengabe hirunaka tartekatzen diren esaldi laburrek, pintaketa horiek.

Grabagailuak 40 minututik gorako hizketa erregistratu du eta inpresionista ez, brotxa lodikoa beharko blogeko sarrera honek.

Nabardura gutxi, zuzenean interesatzen zaidan puntura: Nerea Azurmendik egindako galderak ekarri zuen, nire ustez, erantzun mamitsuena.

Nobelaren idazkeraz galdetu zion, zenbait elementu gramatikali uko egin ote dion jakin nahian.

Izagirrek erantzun: "Prosa ulergarri bat idatzi beharrez, euskalgintzaren izenean, azkenean prosa administratiboa idazten da, oso pedagogikoa; eta niri ez zait irteten. Ez dut laborategi

bat muntatu estilo bat sortzeko, ez naiz ibili baliabide gramatikalak kentzen estilo bat lortzeko. Ezinezkoa iruditzen zait esplikaziotan aritzea, 'alegia', 'zeren'... Horrelakoak oso esplikatiiboak egiten zaizkit eta ez zait batere gustatzen. Hor sortzen da, seguru asko, zuk diozun uko egitea, zenbait elementu gramatikala edo sintaktiko alde batera uztea. Horrek ez du lehenbizikoan ulermena errazten, baina nik uste dut horren bitartez belozidade desberdinak ematen dizkiodala testuari eta niretzat inportantea da. Ez dakit hurrengo batean horrela idatziko dudana edo ez, baina honetan behintzat apustu hori egin nahi izan dut, uste nuelako behar nuela saio bat egin fondoaren eta formaren arteko batasuna lortze aldera".

Kontu periferikoekin entretenituta ibiltzen gara maiz kulturaz idazten dugun kazetariak eta poztu nintzen aurkezpenen literaturaz hitz egin zelako, alegia formaz, estiloaz, hautu estetikoak buruz.

Halako kontuen inguruko eztabaida serioak ugarituko balira, bestelako egarriak laztuko liguke eztarria.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Aregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailtetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna
Goiatz Arana
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Zortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale.
Difusioa: 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Gorbeian duzu Gabonetako SARI NAGUSIA

Lehenengo
Saria:

3000
EURO*

7000
EURO
SARIETAN

Bigarren
Saria:

2000
EURO*

Hirugarren
Saria:

1000
EURO*

10 Sari:

100
EURO*

Sartu:

centrocomercialgorbeia.com

(*Erosketa txarteletan. Baldintza osoak ikusteko sartu: www.centrocomercialgorbeia.com Abenduak 2tik 21era balio duen promozioa.



ABENDUAK 3tik URTARRILAK 15era ARTE

**ETOR ZAITEZ PATINATZERA
GORBEIAKO IZOTZ PISTARA**

**5.000 SARRERA
OPARITZEN DITUGU**

INFORMAZIO GUZTIA: www.centrocomercialgorbeia.com

Parte hartu PlayStation 1. Txapelketan

Abenduak 22, 23, 24, 29, 30 eta 31 egunetan

Izena emateko 622 411 857 telefonoan

Informazio gehiago www.centrocomercialgorbeia.com



GORBEIA
www.centrocomercialgorbeia.com



UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Juan Mari Garitano | EAko zinegotzia Bergaran (1991-1995 eta 1995-1999)

- ▶ Herritarrek herriarentzat lan egin behar dutela uste duelako sartu zen Udalean
- ▶ Egitekoa hasiera baten uste zuena baino zailagoa, gogorragoa, izan zela esan du
- ▶ Euskal Herriak bere nortasun propioa eskuratzea da Garitanoren ilusioetako bat

"Auzolanaren filosofiari eutsiz sartu nintzen Udalean eta ilusioz bete nuen egiteko hori"

ASIER ALKORTA | BERGARA

Pozik bizi dela eta orain arte emandako pausoz ez dela damutzen dio Juan Mari Garitanok (Arrasate, 1942). Bi agintalditan izan zen zinegotzi Bergaran, eta, esperientzia hartatik asko ikasi bazuen ere, garai gogorak ere bizi izan zituela dio. Auzolanerako duen prestutasun berberekin, elkarrizketarako tartea egin du.

Zelan sartu zinen Udalean?

Baserrikoa naiz eta han auzolana zen nagusi. Filosofia hori betidanik izan dut barruan eta horri eutsiz sartu nintzen Udalean. Herriarendako lan egin nahi nuen, neure buruarekin konpromiso hori nuen, eta ilusioz bete nuen egitekoa.

Zinegotzi izan zinen urteetan lortutako zerbaitekin bereziki harro zaude?

Ez. Orain bizi dugun egoera lehenago etor zitekeela uste nuen. Aukera batzuk egon ziren egoera lasaitzeko, baina ez zen ezer gauzatu. Ez gara izan gauza herrian bizitza beste modu batera egiteko; beste giro baten bizi izateko. Orokorrean, txarto egin dugun beste gauza bat ere badago: guri falta izan zaiguna gure seme-alabei ez faltatzea. Hori ez dugu bete.

Zortzi urteren ostean, utzi egin zenuen. Nekeak eraginda akaso?

Ez. Nire aldetik zortzi urte haiekin egin behar nuena egin nuela pentsatu nuen, eta ordurako ez nuen aurretik sentitzen nuen konpromiso hori sentitzen.

Uste zenuena baino gogorragoak izan ziren urte haiek?

Sartzerakoan ikusi nuen egitekoa nahiko nekeza izango zela. Baina



Juan Mari Garitano, Bergarako Barrenkaleko elkartetxearen aurrean. | ASIER ALKORTA

urte haiekin sufritu ere egin nuen, maila pertsonalean. Nire iritziz, garrantzitsuen familia eta lagunak mantentzea da.

Emandako pausoz inoiz damutu zara?

Sekula ere ez. Gauza puntualetan hanka sartzeak egingo nituen, baina nahi barik egindakoak izango ziren. Jakinda ez, behintzat. Hortaz, orokorrean, ez naiz damutzen orain arte egindakoaz.

Beraz, esperientzia bat gehiago izan zen.

Bai, horretan geratzen da. Hasi-eran, nire ezjakintasunarengatik -edo, errazagoa izango zela pentsatu nuen. Baina konturatu nintzen gauzak ez zirela hain errazak. Politikan gorabehera asko daude.

Alor jakin bateko zinegotzi izan zinen?

Gobernazioan egon ginen, ni eta nire alderdikidea zen bestea. Gai guztietara heltzen ez ginenez, gai guztiak jorratzen ziren tokian egotea onena izango zela pentsatu genuen.

Erronkaren bat izan zenuen?

Baziren proiektu batzuk, ez gureak, gu ados geundenak (industrialdea...). Gero, beste proiektu batzuk ere bazeuden, ez zitzaizkigunak gustatzen. Horien artean zegoen hilerria kanpora ateratzekoa. Horrekin, adibidez, ez negoen ados. Egunerokotasunean, aldiz, ez zegoen gorabehera handirik. Borroka handirik egiteko ere ez genuen aukerarik izan. Finean, gu -EA- bi bakarrik ginen.

Egitekoa ilusioz egin zenuela esan duzu lehen. Oraindik orain ilusio horri eusten diozu?

Bai, bai. Oraindik hemen nago eta gauzak ilusioz egiten segitzen

"Hilerria herritik kanpora ateratzeko proiektuarekin ez nengoen ados"

"Egiten ditudan gauza guztiekin disfrutatu egiten dut"

du. Dena dela, nire ilusio handiena Euskal Herriak bere nortasun propioa eskuratzea litzateke.

Eta Bergarak?

Bergarak badauka nortasuna. Ni jaiotzez arrasatearra naiz, eta bai Arrasatek, baita Bergarak ere nortasun propioa dute; berezitasun bat dute.

Zein berezitasun?

Hori ez dizut esango [kar-kar-kar]. Zuk zeuk bilatu behar duzu.

Udaletik irten zinenean, nora bideratu zenuen zure egitekoa?

Betidanik autonomia izan naiz ni. Eta gerora ere egiteko horrekin segitu nuen. Horrek aukera eman dit mundu osoan bidaiatzeko. Txina, Polonia, Eslovakia... Leku askotan ibili naiz.

Eta osterantzean, zeintzuk dira zure zaletasunak?

Mendira joatea asko gustatzen zait. Jende asko dagoen lekutara joateak gogaitu egiten nau. Lasai-lasai mendian bueltatxo bat eman, perretxikoak batu... Hori atsegin dut. Animaliak ere asko gustatzen zaizkit. Zaldi bati begira orduak eman ditzaket. Lagunekin herrian bueltatxo bat ematea ere gogoko dut.

Baserrikoa zarela esan duzu lehen. Hona hemen zure baserri sena.

Ba, bai. Idi-probak ikustea-eta ikaragarri atsegin dut. Eta futbola ere gustatzen bazait ere, pilota dut orain gogoko.

Politikaria, langilea, mendizalea, munduan barrena ibilitakoa... Gauza asko bizi izandakoa zara zu.

Ez dakit. Behintzat, egiten dudarekin disfrutatu egiten dut. Izan ere, orain arte, nahi izan dudana egin dut.

Ez galdu aukera paregabe hau

2x1*

* urruneko, hurbileko eta betaurreko progresiboetan.

ADIN GUZTIETARAKO ESKAINTZA

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
lehen a zerbitzu optikoetan

Eskaintza hau baliagarria izango da 2012/01/7ra arte. Kontsulta itzazu optikan, kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da pilatu beste promozio batzuekin.

HERRIAK

ONATI



Egoera eskasean dago Larrañako futbol zelaia: argiak eta atek herdoilduta, belarra hazita, paretetan grafitiak margotuta... | MIREIA BIKUÑA

ESANAK

"Aurrekontuaren arabera, lehentasunak markatuko ditugu, baina kirolgune osoa egingo dugu"

JOSU LIZARRALDE | ZINEGOTZIA

"Larrañan beteranoetako partiduak bederatziz bederatziz kontra jokatzeko ziren"

ANTON SIERRA
HERRIKO FUTBOL TXAPELKETA

Udala 2012an hasiko da Larrañako kirolgunea berritzen eta txukuntzen

Foru Aldundiak 50.000 euroko dirulaguntza eman du lanak egiteko

MIREIA BIKUÑA | ONATI

Oñatiko Udalak ETEO zaharraren atzeko aldean dagoen futbol zelaia berrituko du 2012an. Badira urte batzuk Foru Aldundiak 50.000 euroko dirulaguntza eman zuena kirolgunea berritzeko, baina lanak atzeratu egin dituzte Hezkuntza Sailaren lagapena falta zelako. "Terrenoa Hezkuntza Sailarena da, eta lagapena falta zitzaigun. Dirulaguntza aspaldi izan arren, asko atzeratu da proiektua", esan digu Josu Lizarralde zinegotziak. Udal arduradunek lortu dutena da Aldundiaren dirulaguntza urtez urte mantentzea. Proiektuak argi berdea ikusiko du 2012an. Udalak partida bat izango du hurrengo urteko aurrekontuetan.

Skate parkea ere bai

Oraindik proiektua zehaztu barik duten arren, egingo diren lanen artean futbol zelaia egokitzea dago. Urte askoan herriko futbol txapelketa hartu duen lekuan futboleko jokatzeko zelaia ipiniko dute. "Asmoa da kirolgune osoa egitea. Daukagun diruaren arabera, lehentasunak zehaztuko ditugu. Kirolgunea izatez gain, aisialdirako lekua izatea gura dugu. Gure asmoa da skate parkea ipintzea han", dio Lizarralde.

San Lorentzoko kirolgunearekin, Azkoagaineko masifikazioa bukatu gura dute. "Aloñaren taldeak, beteranoetakoak, eskola kiroleko

partiduak... Ibarra kendu zutenetik, lepo bete da Azkoagain, eta askotan arazoak daude partidu guztiak sartzeko", esan digute.

Partidu gehiegi Azkoagainen

Herriko futbol txapelketako taldeek baimena dute Azkoagainen jokatzeko-lehen, Ibarra jokatzeko zuten, Aloñako harrobiko taldeekin batera-, baina euren partiduak ipini

behar dituzte Aloñak libre uzten dituen orduetan. Aloña Mendik egun 12 futbol talde ditu. Gainera, zapatu goizetan, eskola kiroleko neska-mutikoez zortziko futbol partiduak jokatzeko dituzte. Hori horrela, Herriko Futbol Txapelketako arazoak dituzte jardunaldiak antolatzeko. "Jardunaldi baten bi partidu bakarrik jokatu ahal izan genituen. Arazo asko ditugu jar-

dunaldi bakoitzari dagozkion lau partiduak sartzeko. Larraña berritzen badute, erosoago ibiliko gara", esan digute beteranoen zuzendaritza batzordekoek.

Herriko futbol txapelketako kideek, euren Facebookean, partiduak Larrañan jokatzeko aldekoak eta kontrakoak azaldu dituzte, taldeek horren berri izan dezaten. "Bi kirolgune izanda,

erosoago ibiliko ginatke. Baina beteranoetako partiduak Larrañan jokatzeko zirenean bederatziz bederatziz kontra jokatzeko zuten, futbol zelaiaren neurriek gehiagorako ez zutelako ematen. Ikusi beharko dugu futbol zelaia margotzen dutenean ze neurri duen. Alegia, talde bakoitzean zenbat jokalarik jokatu ahal izango duten", esan digu Anton Sierrak.

Larrañako frontoia, erabilgarri

Eskola orduetatik kanpo erabiltzeko Larrañako frontoia eraberritu zuten 2008an. Orduetik hona, hainbat herritarrek erabiltzen dute pilotalekua, jokatzeko edo entrenamenduak egiteko. Eskaera Larraña institutuan.

Kirolgunea egiten dutenean eskaintza zabala izango dute San Lorentzo, Olakua, Ugarkalde eta Larraña auzoetako bizilagunek.

Partidu barik azken 17 urteetan

Larrañako futbol zelaia 1950eko hamarkadaren azkenetan eraiki zuten agustindarrek. Orduetik hona, makina bat kirol ekitaldi jaso du; besteak beste, beteranoen txapelketako partidu asko, San Lorentzoko jaietako berbenak eta bestelakoak. Azken 17 urteetan ez da Larrañako futbol zelaia apenas erabili eta nahiko egoera txarrean dago gaur egun: argiak eta atek herdoilduta, belarra hazita...

Herriko futbol txapelketako partiduak Ibarra egiten hasi zirenetik, ez da futbolic egon han. Baina, beteranoen garai onenetan, lepo betetzen zen. Ez zuen harmailarik, eta ikusleak zelaiaren bueltan egoten ziren taldeak animatzeko.



Zaleak beteranoetako partidua ikusten Larrañako futbol zelaian. | HERRIKO FUTBOL TXAPELKETA



Arrasateko Herriko plaza jendez beteta Euskalgintzak antolatutako Lip dub-a grabatzeko. | JULIO CALLEJA



Aretxabaletan barikuan egin zuten Amodiozko SMS lehiaketako sari bantze ekitaldia. Arg.



Eingeinkek antolatuta, Eskoriatzan jarritako karpan bapoz bazkaldu zuten euskararen eguna ospatzeko. | J.C.



Inazio Azkarraga-Urizar, Arrasateko alkatea, udaletxeko balkoian euskararen alde. | J.C.

DEBAGOIENA

Euskaraz bizi nahi du Debagoienak

Zapatuan Arrasaten, Eskoriatzan, Bergaran, Antzuolan eta Elgetan ospatu zuten Euskararen Eguna; Oñatin, Leintz Gatzagan, Aretxabaletan eta Aramaion, aldiz, aste barruan hainbat ekintza egin zituzten

MAIDER ARREGI | DEBAGOIENA

Ibarreko herri guztiek ospatu dute Euskararen Eguna: astean zehar batzuk; zapatuan bertan beste askok. Han eta hemen egindako askotariko ekintzen bitartez, Debagoienak ozen esan du "euskaraz bizi nahi dut!".

Egun handia izan zen Arrasaten zapatukoa. Euskalgintzak antolatuta, grabaketa erraldoia egin zuten eguerdian: Herriko plaza beteta, Euskalgintzaren alde lanean diharduten herriko eragileek eta arrasatear askok kolorez jantzi zituzten kaleak, tartean,

Arrasateko alkateak; *Euskaraz bizi nahi dut* leloa daraman izara udaletxeko balkoian jarri zuen, herritarren begiradapean. Eskoriatzan, 60 lagun inguru batu ziren bazkarian. Musikak alaitu zuen bazkal ostea eta Mihiluze lehiaketak barre algarra edarrak eragin zituen.

Bergaran, hitz gurutzatuen lehiaketa murgilduta ikusi genituen buru-belarri gaztetxo asko, San Martin plazan. Iluntzean, ume, zahar, gazte, heldu..., denak kantuan aritu ziren: *Euskal Herrian euskaraz...* Elgetan, Patxin eta Potxin

pailazoez gaztetxo zein gurasoen barre algarak eragin zituzten; ondoren, margotze tailerra egin zuten.

Antzuolan, aldiz, pintxoak eskaini zituzten iluntzean, 19:00ak aldera, gazte txokoko gaztetxo eta begiraleek.

Ikastetxe askok barikuan

Debagoieneko ikastetxe askok, ikasle, guraso eta irakasleekin, barikuan ospatu zuten Euskararen Eguna. Hala, Oñatin Elkar Heziko ikasle guztiek giza-kate erraldoia egin zuten herriko plazan, *Bildu,*

zabalduta eta goratu euskara lelopean. Errekalde Herri eskolako gaztetxoak, aldiz, kiroldegiko kantxan batu ziren kalejiran eta kantuan egiteko. Eta Txantxiku Ikastolako DBHko ikasleek Gaztelekuan egin zuten hitzordua, eguerdian. Guztiak elkartu, gorritz jantzi eta ekitaldia egin zuten barruan. Gero plazara atera eta, zoruan, *Euskara* hitza irudikatu zuten gorputzekin.

Aretxabaletan ere barikuan egin zuten amodiozko SMS bidezko mezuen lehiaketaren sari banaketa. Irabazlea Garazi Abasolo (15 urte) izan zen, *Begirai-*

dazu ta irribarre eging dizut, uki nazazu ta maitik zaitt, emaidaz mxu ta zurea izng naiz, btk mezuarekin. Sari banaketaren ondoren kontzertua izan zen Freedom Boys taldearekin.

Aramaioko liburutegian, ipuin kontalaria izan zuten. *Zurrunka* antzerki taldeko Eñaut Gorbeak saio bikoitza egin zuen, 3 eta 6 urte bitarteko umeentzat aurrena; ondoren, hortik gorako neska-mutikoen zat.



IRATI ETA NEREA
ESKORIATZA

"Bapoz bazkaldu dugu, patatak errioxar erara eta okela egosia! Trikitiaz eta gitarraz, euskal kantuak abestu ditugu bazkal ostea alaituz. Mihiluze txapelketan ere ongi pasako dugu".



MARIA JESUS
ARRASATE

"Euskararen eguna ospatzeko asmoz etorri naiz plazara. Saiatzen naiz egunero euskaraz bizitzen; Egun polita antolatu dute eta giro oso ona dago".



ARIADNA, LEIRE, ANE ETA ALAZNE
BERGARA

"Lehen aldiz hartu dugu parte Jardunek antolatu duen gisa honetako lehiaketa batean. Hitz gurutzatuak egin ditugu; nahiko zaila dela iruditu zaigu, baina liburuaren laguntzaz denon artean egitea lortu dugu. Hizki-zopa, ordea, errazagoa egin zaigu. Ea zortea daukagun eta saria eskuratzen dugun gaurko lehiaketan!"



MAREN ETA AROA
BERGARA

"Nahiko erraz egin ditugu hitz gurutzatuak eta baita hizki zopa ere. Bergararekin lotutako hitzak, gaiak ondo egin ditugu! Egun polita antolatu dute gaur eta giro paregabea dago".



azkian irabazleak dituzue. | JULIO CALLEJA



Antzuolako gaztetoak pintxoak egiten. | GAZTETXOKOA



Bergaran gazteak hitz gurutatuak egiten. | JULIO CALLEJA



Oñatiko Elkar Heziko ikasleak plazan. | J.B.



'Euskara' irudikatuta gizagorputzaz. | TXANTXIKU IKASTOLA



Oñatiko Herri Eskolako haurrak. | J.B.

**JULEN, AITOR ETA IBAI**
ARRASATE

"Euskaraz bizi nahi dut leloa duen izara etxeko balkoian jarriko dugu. Gaur Lip dub grabaketan parte hartu dugu eta Erraldoi eta Kilikien Konpartsarekin dantzatu dugu. Guk euskaraz, baina, beti egiten dugu!".

**GARI, TXOMIN ETA JOSEBA**
ARRASATE

"Erraldoi eta Kilikien Konpartsa txikiko kideak gara eta dantza egingo dugu plazan. Euskaraz bizi gara eta euskaraz hitz egiten dugu egunero-egunero. Giro ona dago eta ondo pasako dugu gaur!".



Aranzadiko ikasleak erreakzio kimiko bat egiten. | ANDER MONEDERO

BERGARA

Kimika erakustaldia Aranzadiko batxilergoko ikasleen eskutik

ANDER MONEDERO | BERGARA
Egubakoitz arratsaldean, Aranzadi ikastolako batxilergoko lehen eta bigarren mailako zazpi ikaslek kimika erakustaldia egin zuten udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Ikasleek, lau esperimentu egin zituzten, kimika erakustetaren paneletan azaltzen diren bi eta euren aukeraturako beste bi. Horretarako, ura, sodioa,

ozpina edo iodoa bezalako elementuak erabili zituzten.

Umeak aho-zabalik

Esperimentuak ikustera 50 bat lagun elkartu ziren udaletxeko pleno aretoan. Bertan izan zirenen artean zeuden udal ordezkariak, guraso eta lagunak, eta etxeko txikienak aho zabalik geratu ziren egindako esperimentuen emaitzarekin.

**ARRASATE**

JULIO CALLEJA

100 kilo gaztaina!

Bariku arratsaldean Herri Eskolako guraso taldeak antolatuta gaztainak banatu zituzten herriko plazan. Guztira 100 kilo gaztaina erre zituzten lau danbolinetan. Epeletan, suaren bueltan eta euskal musikaren laguntzaz, haur eta guraso ugari gerturatu zen muxu-truk gaztainak dastatzera. Gazteto bat baino gehiago ikusi genuen gaztaina eskean birritan.

Joxe Etxeberria | Euskara zinegotzia

"Aurrekontuetan euskara ez dugu murriztuko, lan handia dago-eta egiteko"

- ▶ Biziberritzeko plana zein puntutan dagoen azaldu du
- ▶ Euskalgintzakoekin hasiko dira planarekin, abenduan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Arrasateko Udalak Bikain ziurtagiria jaso berri du. Bada, Joxe Etxeberria euskara zinegotziari agiri horrek suposatzen duenaren gainean eta Euskara Biziberritzeko Planaren gainean galdetu diogu Arrasate Irratian.

Euskararen kudeaketaren bikaintasuna saritzen duen Bikain ziurtagiria jaso berri duzue. Ez da kasualitatea izan, ezta?

Saria ez da pertsona baten egun bateko lana. Urteetako lanaren

emaitza da eta udal langile guztiak zoriondu behar dira. Irakurketa ezberdinak ditu. Batetik, politikarien erabakia dago, euskararen alde hartu zena. Gero, euskara

"Bikain ziurtagiria dela-eta udal langile guztiak zoriondu behar dira"

teknikariak plana egin eta plan hori gauzatzen lagundu dute eta, azkenik, udal langileek plan hori martxan jarri dute. Euskararen aldeko plan horretan guztiak dira beharrezkoak. Zorionak denei.

Euskara Biziberritzeko planari dagokionez zer esan dezakezu?

2002-2003an Jaurlaritzak abiarazitako plana da, herri ezberdinetan ezartzen joan dena. Arrasaten ere badago eta martxan dagoen zerbait da. Hori bai, oraindik falta dena da planeko ekintzak



Joxe Etxeberria. | J.B.

nork erabaki behar dituen zehaztea. Hau da, Udalak bakarrik bere gain hartu behar duen, Udalak euskalgintzan dihardutenekin batera egin behar duen edo Uda-

"%55ak daki eta %30ak erabiltzen du euskara gurean, gutxi gorabehera"

lak eta euskalgintzan dihardutenek ikastetxe eta beste eragileekin batera egin behar duen zehazteko dago. Azken fase hori da falta zaiguna, parte hartzearena.

Eta azken puntu horren aurrean zein asmo dauka Udalak?

Planteatzen dugu Biziberritzeko Planean integra daitezela Arrasaten euskararen normalizazioaren alde dauden ekimen guztiak. Denok parte hartzea gura dugu, eta ardurak ere banatzea; planaren eraginkortasuna bide horretatik helduko dela uste dugu. Abenduaren erdialdetik aurrera hasiko gara bilerekin. Asmoa da lehendabizi euskalgintzan lanean diharduten eragileekin elkartzeko, eurak izango direlako euskara biziberritzeko motorrak.

Beste maila batean hezkuntzan diharduten eragileak egongo lirarteke eta azkenik, gainerakoak. Finean, herriko hainbat eta hainbat eragilerengana heldu gura dugu. Asmoa da 2012ko udazken aurretik plana zehaztuta izatea, 2013rako aurrekontuetako partidei begira. Argi duguna da aurrekontuetan euskara arloan ez dugula murrizketarik egingo, oraindik lan handia dago-eta egiteko: Arrasaten euskaraz %55ak daki eta %30 inguruk erabiltzen du, gutxi gorabehera.



Hirigintza aldetik etorkizuneko Arrasate nolakoa gura duten galdetuko die Udalak arrasatearrei. | JOKIN BEREZIARTUA

Hiri Antolamendurako Plana, herritarren eskura

Plan berriaren gainean arrasatearrek iritzia eman ahalko dute; besteak beste, erakusketa jarriko da

J.B. | ARRASATE

Arrasateko Hiri Antolamenduren Plan Orokorren (HAPO) aurrerapena prest dago. Izan ere, Hirigintza Plan berriarekin lanean dihardu Hirigintza Sailak. Azken plana behin betikoz onartu zenez, zortzi urte pasa dira eta Udalak plana berrikustea erabaki du. Prozesua, baina, luzea izango da. Aurrerapena egin dute dagoeneko eta azken osokoa aho batez

onartu zuen udalbatzak zirriborro hori jendaurrean erakustea. Bada, aurrerapen hori 15 minutuko bideoan ikusgai dago, Arrasateko Udalaren webgunean: www. arrasate-mondragon.org (Plan Orokorra barruan klikatuz).

Erakusketa abenduaren 16an HAPO berria arrasatearren eskura jarri eta euren iritzia jasotzeko Kulturaten erakusketa

jarriko dute, abenduaren 16tik otsailaren 5era. Lehen aipatutako bideoan erakusketaren aurrerapena ere ikus daiteke.

Erakusketan herritarren iritzia jaso ostean behin behinokoz onartuko da agiria, dagozkion aldaketekin. Aldaketok egiturazko antolamenduren funtsa aldatzen ez badute Udalak agiria EAeko Lurraldearen Antolamendurako batzordeari igorriko dio eta batzorde horren txostena loteslea izango da lurralde antolamenduko tresnei, eta Udalez harago dauden proiektuei. Hiru hilabete izango du batzorde horrek txostena egiteko. Eta orduan, aldaketa guztiak egin ostean, Udalak behin betiko Plan Orokorra onartuko du.

Mondraren ez ohiko batzarra Kulturaten, gaur (18:30)

J.B. | ARRASATE

Mondra futbol taldeak ez ohiko batzar berezia egingo du gaur Kulturaten, Jokin Zaitegi aretoan. Deia egin zaie bazkideei, eta konbokatuta dituzte 18:30erako, lehen deialdian, eta 19:00etarako, bigarrenetan. Aurtengo diru kontuen berri eman eta onarpena egin; datorren urtekoen aurrerapena egin; Mondraren tabernaren balorazioa egin, eta 2011-2012 denboraldiko aurrekontuen berri eman. Horixe izango da gai zerrenda.

Gaurko batzarrak ikusmina piztu du, klubeko hainbat bazkidek zantalant jarri dutelako oraingo presidentearen lana eta kudeaketa modua. Kezkatuta daude Mondraren etorkizunarekin.

"Ez daukat ezer gordetzeko"

Patxi de Andres presidentek honakoa adierazi du: "Mondrako bazkide ez diren batzuk badirudi arlo pertsonalean nire kontra zerbait daukatela, eta eurak dira zarata ateratzen dabilzanak. Aurreko batzarraren aurkezten nuena aurkezten nuela nire kontra etorri ziren, eta aurrez prestatuta zeukaten dena. Batzarraren egingo dugu eta kontu guztiak argitu; ez daukat ezer gordetzeko".


Gabonetarako 100 otzara banatuko ditu Ibai-Arte elkarteak

Ibai-Arte merkataritza elkarteak eskaintza berezia prestatu du Gabonetara begira. Ibai-Arteko laguntzaile diren saltokietan erosketak Ibai-Arte txartelarekin ordaintzen dituzten bezero guztiak izango dute otzaretako bat irabazteko aukera.

Otzara horiek abenduaren 23an banatuko dira Herriko plazan, 13:30etik aurrera.

Diru kopuru bera San Nikolas omenezko bolorako; bihar, plazan

San Nikolas ospatuko da bihar eta urtero moduan, Udalak Herriko plazan antolatzen duen boloak ez du hutsik egingo. Aurtengoa erabilitako diru kopuru bera zahatu du Udalak goxokitan. Bi txanda izango dira: 12:00etan eta 12:30ean. Eguraldi txarra egingenez gero, Uarkape pilotalekuan egingo da boloa.



lazio boloa, plazan. | ARTXIBOIA



Kiroldegiko erabiltzaileen iritzia jaso guran dabil AUKEA. | JOKIN BEREZIARTUA

AUKEA bazkideen iritzia jasotzen dabil, inkesten bitartez

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

AUKEA Arrasateko kirol erakundeak bazkideen iritzia jakin gura du, eta horretarako inkesta bat egiten ari da bazkide guztien artean. Inkesta horretako emaitzak txosten baten jasoko dituzte eta

ondorio horiek markatuko dute AUKEAren datozen lau urteetarako norabidea.

Horregatik, bazkide guztiei gonbidapena egin diete inkestok bete ditzaten; abenduaren 18a baino lehen entregatu behar dira.

Urtarrilean argitaratuko dituzte emaitzak. Jakina da barruko igerilekuetako obren atzerapenak haserrea piztu zuela hainbat erabiltzaileen artean. Egoera horri buelta eman dioten jakin gura dute, besteak beste, AUKEA-koek.

Bazkideei eurei galdetuz zerbitzua hobetzeko saiakera horrez gain, bestelako ohar batzuen berri ere eman du AUKEA. Hasteko, aste hau berezia izango da kiroldegian ere. Hau da, martitzen eta eguenean itxita egongo da. Hala ere, martitzen eta eguenean ikastaroetan parte hartzen dutenek astelehen eta eguaztenean joateko aukera izango dute, aste honetan bakarrik.

Gimnasia hipopresiboa gaur

Azkenik, gimnasia hipopresibo ikastaroa gaur, hilak 5, hasiko dela iragarri dute. 20:30ean hasiko da saioa. Azken orduko aldaketarik ezean, oraindik badago lekua izena emateko. Eta nola eman daitekeen izena? Arduradunek eskatu dute edozein ikastarotan izena emateko Musakolako kiroldegira joateko.

Informazio gehiago jasotzeko 943 77 16 77 telefono zenbakira deitzea gomendatzen dute.



Mikel Ezkurra eta Juan Mari Raso, auzoan. | NEREA IBARRONDO

Mikel Ezkurra eta Juan Mari Raso | Udalpe kaleko bizilagunak

"Auzoa apur bat hilda geratu da, ona litzateke elkarte bat eraikitzea"

Bazkide eskaera egiteko azken eguna, hilaren 15a; 48 dira eta 100 izatera heldu gura dute

J.B. | ARRASATE

Garaia Berrikuntza Gunearen eta Uribarri auzoaren ondoan eraiki den auzo berriaren elkarre gastronomikoa zabaldu guran dabilza Mikel Ezkurra eta Juan Mari Raso. Horretarako, baina, 100 bazkide behar dituzte.

Elkarte gastronomiko bat. Zergatik? Zertarako?

Azken urteetan etxebizitza ugari eraiki dira Uribarri ondoan eta apur bat hilda geratu da auzoa. Lehen, ortuak ziren nagusi, baina orain, etxebizitza ugari egin dira eta beste batzuk egitea aurreikusita dago. Hala, familia gazte asko bizi gara bertan, eta, horregatik, proiektu polita iruditu zitzaigun elkarte gastronomiko bat sortzea.

Topaleku bat izango litzateke auzokoendako, auzokook txoko bat izan eta elkar eza-gutzeko toki polit bat.

Baina ez dago jende nahikorik oraingoan, ezta?

Hala da. Oraingoan, 48 bazkide gara, eta egokiena litzateke 100 bazkidera heltzea, elkarte eraikitzeke gastuei aurre egiteko. Bazkide egin gura duenak abenduaren 15a baino lehen 649 70 33 83 (Nerea) telefono zenbakira dei dezala. Gutxieneko bazkide kopurua lortzen ez badugu, garajeak egingo dira.

Gainera, berezitasun bat ere izango du gure elkarteak, aurrera egiten badu: bazkideak eta haren bikotekideak esku-bide berberak izango dituzte.

"Bazkideak eta haren bikotekideak eskubide berberak izango dituzte"

Punk-rocka gazte dagoela aldarrikatu zuen NCCk

la 300 lagun erakarri zuten donostiarrek; asteen atsedena dator eta hurrengoan, Zea Mays



NCCren formazio berria egueneko zuzenekoan, dena ematen. | JOKIN BEREZIARTUA

J.B. | ARRASATE

Koultur ostegunak ekimenaren barruan Nuevo Catecismo Catolico taldearen punk-rocka izan zen joan den eguenean gaztetxean. Haize berriekin etorri ziren donostiarrek; Gonzalo Ibañez baxu barik agertu zitzaigun, abeslari aritu zen. Ordubetek eskas iraun zuen emanaldiak eta Estatuan punk-rockaren erreferente direnek jende asko mugitzen segitzen duela berretsi zuten: 283 sarrera saldu zituzten egun baten; ez da marka makala. Taldearen ibilbide osoko kantuak jo zituzten, betiko jarraitzaile leialen gozamenarako.

Datorren eguenean, zubia dela eta, deskantsua hartuko du ekimenak. Hori bai, abenduaren 15ean goi mailako beste talde bat izango dugu gaztetxean: negua itzuli da; hala ere, dena ematera etorriko da Zea Mays.

Amuritza eta Colinarekin, giro ederra San Isidron

Azaroaren 25erako Musakolako jai batzordeak antolatu zuen bertso afarian Xabier Amuritza eta Sustrai Colina bertsolariak izan ziren gonbidatu San Isidro elkartearen. Antolatzaileen arabera, giro ederrean ibili ziren: "57 lagun elkartu ginen. Bertsolariak ederto aritu ziren eta ederto pasatu genuen, barre algaraka".



MUSAKOLAKO JAI BATZORDEA

Bailara osoko jardunaldiak asteen gaztetxean

Debagoieneko gaztetxeetako kideek hitzordu garrantzitsua dute asteen Arrasateko gaztetxean. Izan ere, bailara osoko jardunaldiak antolatu dituzte, abenduaren 9tik 11ra. Hainbat hitzaldi eta tertulia egingo dituzte eta, besteak beste, AHTaren aurkako borroka, gaztetxe ezberdinen aldeko borroka eta hondakinen kudeaketa izango dute hizpide hiru egun horietan.

Gosariak, bazkariak eta afariak emango dituzte eta lo egiteko aukera egongo da.

Teknologia berrien alorrean euskara bultzatzeko kanpaina

Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Jardun elkarteak jarri dute abian; ikasleei mugikorra eta ordenagailua nola euskaratu erakutsiko diete

EDU MENDIBIL | BERGARA

Udalak eta Jardun euskara elkarteak teknologia berrien arloan euskararen erabilera bultzatzeko kanpaina jarri dute abian. Ekimen horren bidez, telefono mugikorrek eta ordenagailuetan ohikoak diren programak eta aplikazioak euskaraz jartzera animatu nahi dituzte herritarrak. Abenduaren 1etik urtarrilaren 6ra arte iraungo du kanpainak.

Hiru zutabe kanpainak

Alde batetik, informazioa idatzia emango diete bergararrei, telefono mugikorrek eta ordenagailuetako programak euskaraz jartzeko zer egin behar duten jakin dezaten. Era berean, ikastetxeen bidez informazioa bidaliko diete ikasleen etxetara, ekimenean parte hartzera gonbidatuz eta ordenagailuak eta telefonoak euskaratzeko beharrezko informazioa emanez. Bide batez, gazteei, ikastetxeetan bertan erakutsiko diete nola euskaratu telefono mugikorrek eta ordenagailuak. Eta kanpainaren hirugarren zutabea hauxe da: Bergaran telefonoak eta ordenagailuak saltzen dituzten dendei, kanpainara atxikitze gonbita egingo diete. Informatika-denden kasuan, Gamak, Hurbil Zerbitzu Informatikoak eta Infordelta komertzioek kanpainarekin bat egin dute.

Nerea Mendizabal Jarduneko teknikariaren hitzetan: "Telefonoa edo ordenagailua erosten duten bezeroei tresna berria zein hizkuntzatan jarri nahi duten galdeztzeko eskatu diegu dendari horiei, bezeroek nahi duten hizkuntza izan dezaten tresna berria, erosten duten momentutik, hain zuzen.



Jendeak mugikorrek euskaraz konfiguratzeari da helburuetako bat. | GOIENA

Gazteen eta helduen artean euskararen presentzia indartzea da helburua.

Gabonen ostean amaitu

Kanpaina, esan bezala, aurreko egunean, abenduaren 1ean, jarri zuten abian eta Gabonen ostean bukatuko da. Udaleko Euskara Zerbitzuko Eli Payrosek hauxe

adierazi digu: "Ez dakigu zenbat jendeak daukan ordenagailua edo telefonoa euskaraz konfiguraturik, baina kanpaina amaitutakoan horren gaineko datu argigarriak eskuratuko ditugu eta hurrengo urratsak zehazteko lagungarria izango da hori, zalantzarik ez".

Nolabait, zapatuan ospatutako Euskararen Egunarekin ere lotu

nahi izan dute Udalak eta Jardunek kanpaina. Hain zuzen ere, tartetxo bat eskaini zioten teknologia berrien gaiari zapatu eguerdian: telefono mugikorrek eta ordenagailua euskaraz jarri nahi zuten herritarrei laguntza eskaini zieten San Martin plazan. Bada, jende askok egin zuen ekimen horrekin bat.

OHARRAK

LANERAKO IKASTAROAK MIGUEL ALTUNAN

Lanerako formazioa egitarauaren barruan, langile eta langabeendako ikastaroak eskaintzen ditu Miguel Altunak. Katalogo modular berrira lotutako eta %100 diruz lagundutako ikastaroak dira. Argibideak Miguel Altuna ikastetxean, 943 76 70 49 telefono zenbakian.

KEINU HIZKUNTZA IKASTAROAK

Aransgik, Gipuzkoako pertsona gorren familien elkarteak, keinu hizkuntza ikasteko ikastaroak antolatu ditu. Gorrekin komunikazioa hobetu nahi duten debagoien-dar guztiei daude zuzenduta. Hastapen eta sakontze mailak izango dira, urtarrietik maiatzera. Ikastaroak 30 ordukoak izango dira Argibide gehiago Aransgiko egoitzan, Boni Laskurain pasealekuan, edo 943 76 27 03 telefono zenbakian.

ELOSUKO ATERPETXERA IRTEERA ASTEBURUAN

Xabalote gaztelekuak irteera antolatu du Elosuko aterpetxera asteburu-pasa joateko. Abenduaren 10ean eta 11n egingo dute irteera. Gaur, astelehena, amaitzen da izen-ematea egiteko epea. Argibide gehiago 943 77 91 60 telefono zenbakian.

POL-POLEKO FEDERATU TXARTELAK

Pol-Poleko kideak dagoeneko hasi dira 2012ko federatu txartelak egiten Oxirondo azokako goiko solairuan daukaten bulegoan. Ordutegia hauxe da: astelehen, martitzen eta eguaztenetan 18:45etik 19:45era. Internet bidez ere egin daiteke federatu txartela, Pol-Poleko webgunean: www.pol-pol.net.

LASAI-TOKIREN LUNCHA ERRETIRATUENDAKO

Aspaldiko ohiturari eutsiz, Lasai-Toki elkarteak herriko erretiratuendako luncha iragarri du abenduaren 8rako. Lasai-Tokin izango da, 12:00etatik 14:00etara.

ODOL ATERATZEA ABENDUAREN 14AN

Urteko azken odol ateratzea Bergaran abenduaren 14an egingo dute, anbulatorioan, 18:00etatik 20:30era. Lokal berriaren zain, hauxe argitu nahi dute odol emaleen arduradunek: azkenaldian ez dute lehen egiten zuten moduan telefonozko deirik egiten emaleei abisatzeko, eta, horrenbestez, herritarrei dei egiten diete etzi anbulatoriora joateko. Aurtengo emaitzekin orokorrean pozik daude elkarteak, eta 2012rako lokal propioa izatea eskatzen dute.

Sukaldaritza begetarianoa lantzen Zuloan

Udalak eta Bizikasik antolatuta, sukaldaritza begetarianoari buruzko ikastaroa egin dute azaroko astelehenetan Zuloa elkarteak. Sabrina Pato izan da irakaslea eta haren eskutik hainbat errezeta berezi prestatzen ikasi dute partaideek. Aurreko astelehenean izan zuten azken eskola. Orain, ikasitakoa praktikara eramán eta etxekoak eta lagunak txunditzera...





Taldea bat Bergarako herri barruan egindako bisita gidatu batean. | GOIENA

Turismo Bulegoa zabalik, bisita gidatuak egiteko aukera abenduaren 11ra arte

Herri barrua hobeto ezagutzeko bisita gidatuak egiteko aukera izango da: udaletxeko 'Molekulen artean' erakusketan ere izango dira Turismo Bulegokoak

EDU MENDIBIL | BERGARA

Oraingo asteko jai egunak aprobetxatuz, Udaleko Turismo Bulegoa domekara arte izango da zabalik, gaurtik zapatara 10:30etik 19:00etara eta domekan, goizez bakarrik, 13:30ak arte.

Itzi Irizar Udaleko Turismo arduradunak zera adierazi digu: "Bisitari kopuru aldetik urteko beste sasoi batzuk baino motelagoa izaten da abenduko hau, baina aurten zenbait tokitan aste osoan oporrak izango dituztenez, beste urte batzuetan baino mugimendua handiagoa espero dugu. Ikusi behar". Urtean zehar Aste Santuan, uda denboraldian eta azaroaren leku zubian zabaldu dute aurten Turismo Bulegoa.

Azken urteotan ohikoa denez, Nis enpresako langileak izango dira udaletxeko sarrera ondoan dagoen Turismo Bulegoan lanean. Hara hurbiltzen direnek herri barrua hobeto ezagutzeko bisita gidatuak egiteko aukera izango dute asteon. Argibidetakoa, haxe duzue Turismo Bulegoko telefono zenbakia: 943 77 91 28.

Erakusketan, aste barruan 09:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era dago zabalik eta aste bukaeretan, berriz, 12:00etatik 14:00etara.

Erakusketan

Turismo Bulegoko langileak udaletxean ikusgai dagoen *Molekulen artean* erakusketan izango dira baita. Abenduaren 11ra arte dago erakusketan zabalik. Aurtengoa kimikaren nazioarteko urtea dela eta, kimikak gure gizartean duen eta izan duen garrantzia nabarmendu nahi dute aipatutako erakusketan. Osoko bilkura aretoan, aste barruan 09:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:30era dago zabalik eta aste bukaeretan, berriz, 12:00etatik 14:00etara.

PSE-EE eta EAJ, atez ateko sistemaren aurka

E.M. | BERGARA

Udal gobernuak atzera bota zuen PSE-EE alderdiak hiri ondakinaren gainean aurreko asteleheneko osoko bilkuran aurkeztutako mozioa. Mari Karmen Barrenetxeak PSE-EEren izenean aurkeztutako testua atez ateko sistemaren kontra azaltzen zen: "zaborra biltzeko zerbitzuan atzerapausoa da, bai osasungarritasun, bai erosotasun eta bai efizientzia ekonomikoaren ikuspegitik ere". Edukiontzia itxien aldekoa da PSE-EE alderdia, "hondakin birziklagarriak eta konpostagarriak biltzeko sistemarik onena delako". Azkenik zera eskatzen zion udal gobernuari sozialisten ordezkariak: "hondakin organiko bideodegradarri asko sortzen duten eragileak erakartzea eta plan bat garatzea, konposta daitezkeen hondakin ahalik eta gehien zirkuitu berri horretara bideratu ahal izateko. Edukiontzia itxiak harri behar direnean, hementik aurrera, bertara zaborra sartzeko orduan txartel adimendunak erabili ahal izatea eskatu nahi diogu baita gobernuari, gehien birziklatzen duten hiritarrek zabor-tasan hobera lortzeko aukera izan dezaten.

PSE-EEk aurkeztutako mozioak EAJko zinegotzien babesa lortu bazuen ere, esan bezala, udal gobernuak atzera bota zuen.

Amodiozko gutunen lehiaketa 20. ekitaldira iritsi da dagoeneko

Jardun euskara elkarteak antolatutako Amodiozko gutunen lehiaketa 20. ekitaldira iritsiko da aurten. Lanak jasotzeko epea urtarrilaren 7ra arte izango da zabalik eta lau sari banatuko dituzte: irabazleak 500 euro jasoko ditu; bigarren saria 250 eurokoa izango da; bergarar onenaren dako, 150 euro; eta, azkenik, 26 urtetik azpiko onenak ere 150 euro eskuratuko ditu. Irakurle gazteek erabakiko dute azken sari hau.

Lehiaketaren inguruko argibide gehiago 943 76 36 61 telefono zenbakian edo Interneten: www.goiena.net/blogak/jardun.

Errepidea itxita Uberan bihar eta etzi, eguaztena

Bergarako Udalak Ubera auzoan urbanizazioko azpiegitura lanak egiten dihardu azkenaldian. Lan horiek egin ahal izateko, baina, datozen egunotan errepidea asfaltatu behar denez, bidea itxita egongo da.

Hain justu ere, bihar, martitzena eta etzi, eguaztena itxiko dute errepidea, 08:00etatik 18:00etara. Hala jakinarazi dute Bergarako Udaletik.

Martitzena eta egueneko jai egunak direla eta, ohi baino ibilgailu gutxiago espero dira eta hori dela eta, lanok oraingo astean egitea erabaki dute. Bihar eta etzi, beraz, hamar orduz itxiko dute Uberako errepidea.



Giltzaguneak hainbat kaletan

Diputazioak giltzak gordetzeko metalezko kutxak jarri ditu Bergaran. Guztira 17 dira eta helburua zera: itxitako kaleetara emergentzietako zerbitzuak (suhiltzaileak, ambulantiak...) modu erraz batean sartu ahal izatea beharrezkoa denean. Giltzagune guztiak maisu-giltza giltza batez (Gipuzkoa osorako berdina) zabaltzen dira. Kutxa bakoitzean dagokion kalea zabaltzeko behar diren giltzak egongo dira.



Jarduneko gaztetxoak izotzetan patinatzen

Jarduneko asteburuko aisialdi taldekoak Gasteizko izotz pista joan ziren azaroan 19an. 8-12 urte bitarteko 24 gaztetxo eta bi begirale joan ziren arratsalde pasa. Ederto pasatu zuten izotzean patinatzen. Esperientzia polita izan zela eta bai aurtengo eta baita beste urte batzuetako arrakasta ikusita, datorren ikasturtera begira ere irteera honekin jarraitzea da asmoa. Haurren arteko harremanak sendotu eta era berean arratsalde zoragarria igaro zuten elkarrekin. Horrelako proposamen gehiago jaso eta aste bukaeretan haurrak hartzeko atek zabalik dituzte Jardunen; zapatu eta domeketan, 17:00etatik 20:00etara batzen dira Arrizuriagan.

JARDUN



Bidea itxita egongo da hilabetez, argazkiko kartelak dioen moduan. | GOIENA

Ugargain eta Lizarretxe arteko bidea konpontzen dihardute

Bi metro zabalduko dute bidea beheko alderantz, bost metro izan arte

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Olabarrietako Ugargain base-riaren eta Lizarretxe jatetxearen arteko bidea konpontzen dihardute. Bi tokiak lotzen dituen errepidea zabaldu egingo dute. Lurkide enpresak dihardu lanok egiten. Aurrekontua, BEZ barik, 58.000 euro inguru da; Udalak aurreikusitakoa baino txikiagoa.

Dena den, konpontzen dihardutena auzo-bidea denez, Landa Garapen Elkartearen laguntza jasoko du Udalak.

Bi metro zabalduko dute

Ugargaindik Lizarretxera doan bidea itxita dago azken asteotan, eta jate-txera joan gura dutenek Olabarrietako itzulua egin behar dute. Indus-keta-makinak dabilta lanean.

Bi helburu dituzte Lurkide enpresak egiten diharduten lanek: bidean dagoen zirkulazio arazoa konpondu eta paseatzen ibiltzen diren oinezkoendako segurtasuna bermatu. "Bidea nahiko estua da, eta askotan arazoak egon dira bi auto elkar jo eta zelaian behera erori direlako. Bestalde, herritar asko dabil paseatzen han, eta

autoekin gurutzatzean, sustoak egon dira", esan digu Mikel Biain alkateak.

Hori guztia kontuan hartuta bi metro zabalduko dute bidea beheko noranzkoan –egun, hiru metro ditu, eta bost izango ditu–. Horretarako, betetze lanak egingo dituzte beheko aldeko zelaian, ezkerretara, bidearen kotarekin berdintzeko.

Harri-lubeta erako horma egingo dute bideari paralelo. "Lanak bukatzen direnean aldea nabarmena izango da. Txukun geratuko da, bai autoendako eta baita oinezkoendako ere. Abendu erdirako-edo bidea zabaltzea espero dugu", dio Mikel Biainek.

Une honetan argiteriako hodiak sartzen dihardute.

ESANAK

"Txukun geratuko da, autoendako eta oinezkoendako"

MIKEL BIAIN | ALKATEA

Kolonbiarako dirua batzeko margolanak salduko dituzte plazan

Oñatiko Margo Taldeko kideek egingo dute salmenta

M.B. | OÑATI

Oñatiko Margo Taldeko kideek elkartasun jardunaldia egingo dute hilaren 17an. Parrokiako Misio Taldeak Kolonbian duen proiekturako dirua batzeko salmenta berezia egingo dute. Bada, pintura ikastaroan egindako margolanak salgai ipiniko dituzte herriko plazan, 11:30etik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

Udaletxeko arkupeetan ipiniko dituzte margolanak, eta lan bakoitzak agerian izango du balio duena. Oñatiko Margo Taldeko kideak han egongo dira, erosleen zalantzak argitzeko.

Askotariko margolanak ipiniko dituzte salgai: paisaiak, natura hilak, erretratuak...

Harrera-etxea

Margolanen salmentarekin jasotako dirua Parrokiako Misio Taldeak bidaliko du Kolonbiara, Bogotako Las Brisas auzora. Han hainbat lan egiten dihardute, besteak beste, eskolatu bako haurrei laguntza ematea, mediku eta dentistendako kontsulta, jangela, sukaldea eta bildegia egitea. Gainera, harrera-etxe bat egiten dihardute. Misio Taldeak 40.000 euro batzeko ardura dauka.

OHARRAK

ODOL-ATERATZEA

Urteko azken odol-ateratzea egingo dute hilaren 9an Txan-txiku Ikastolako aretoan, 18:00etatik 20:00etara arte.

GARBIGUNEA

Urrutxuko garbigunea zabalik dago egunero, domeketan izan ezik: astelehenetik egubakoi-tzera arte 09:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 19:00etara; eta zapatuetan, 09:00etatik 13:30era arte.

TRASTE ZAHARRAK

Hileko eguen guztietan batzen dituzte traste zaharrak. Interesatuek 943 71 19 38ra deitu behar dute trasteak non utziko dituzten zehazteko. 20:00etatik aurrera batuko dituzte.

Gospel Soul taldearen musika beltzak berotuko du Oñati

M.B. | OÑATI

Musika beltza izango da protagonista Oñatin hilaren 16an. Gospel Soul taldeak zuzeneko a egingo du Santa Ana antzokian, 22:30ean. Dagoeneko salgai daude sarrerak kultura etxean, 10 eurotan. Leihatilan ere erosi ahal izango dira kontzertuaren egunean, baina 12 eurotan.

Jatorri askotarikoak

Bost kidek osatzen dute Golden Soul taldea: Rachel Ratsizafy sopranoak, Emma Lamadji mezoak, Marie Nicole Leborgne altuak, Joël Rhino baritonoak eta Danien Moreau piano-jotzaileak.

Bostek bat egingo dute musika beltza egiteko. "Ahots bako-

tzak ezaugarri batzuk ditu. Izaera bat dauka, eta guztiok bat eginik musika goxoa eta, era berean, bortitza egiten dugu", diote Gospel Soul taldekoek.

Jatorri askotariko musikariek osatzen dute taldea, eta hori antzeman egiten da musikan. "Nork bere ekarpena egiten du. Nork bere mezua zabaltzen du. Kimika handia dago ahotsen artean. Belarrientzako doinu erakargarria egiten dugu".

Gospel Soul taldeak mundu zabalean egin ditu kontzertuak eta nazioarteko jaialdi entzutsuenetan parte hartu du: Rosesek Gospel jaialdian, Madrilgo Calle 54 klubean eda Sabadelleko jaialdian.



Gospel Soul taldeko kideak. | GOSPEL SOUL

Bertsolari txapelketako finalera joateko autobusa ipini du Bertso Eskolak; txartelak kultura etxean daude

Gipuzkoako bertsolari txapelketako finala abenduaren 18an jokatu dute, Illunben. Oñatiko Bertso Eskolakoek egun osoko irteera antolatu dute. 120 txartel ipini dituzte salgai kultura etxean, 10 eurotan. Abenduaren 7ra arte erosi ahal izango dira –kultura etxea abenduaren 8an eta 9an itxita dago–. Finalerako sarrerak ere salgai dituzte kultura etxean, baina sarrera arruntak bakarrik; bazkideen sarrerak Internet bidez eros daitezke helbide honetan: www.bertsozale.com.

Hilaren 6an eta 8an ez dute igeriketa ikastarorik emango Zubikoan; gaur eta eguaztenean, bai

Abenduko zubia dela eta, hilaren 6an (martitzena) eta 8an (eguna) ez dute umeendako (0-8 urte artekoak) igeriketa ikastarorik emango. Hori horrela, igeriketa eskolak bi egunetan egingo dituzte: gaur, astelehena, astelehenetan eta eguaztentean ikastaroa duten umeek joan beharko dute; eta eguaztentean, martitzenean eta egunetan ikastaroa dutenek. Zubikoako gainerako ekintzak gaur, astelehena, eta eguaztentean emango dituzte. Bihar eta eguenean kiroldegia 09:00etatik 14:00etara zabalduko dute.

Bilboko Gabonetako parkera irteera egingo dute topalekutik; hilaren 21era arte eman daiteke izena

Bilboko BECen ipintzen duten Gabonetako parkera irteera egingo dute topalekuko arduradunek urtarrilaren 3an. Egundako irteera egingo dute eta dagoeneko zabalik dago izena emateko epea, hilaren 21era arte. Gabonetako parkera joan gura dutenek gurasoen edo tutoreen baimena beharko dute. Bestalde, norberak janaria eraman beharko du etxetik. BECera helduta, egun osoa izango dute ondo pasatzeko: jolasak, jokoak, izotz gaineko patinajea, denbora-pasak...

ESKORIATZA

Udal lokalen erabilera arautzeko ordenantza onartu du Udalak

Araudiaren asmoa lokalen erabileran sor daitezkeen arazoak ekiditea da

ASIER ALKORTA | ESKORIATZA

Herrian dauden irabazi asmorik gabeko taldeek udal lokalak erabiltzeko ordenantzari hasierako onarpena eman dio Udalak. Orain arte lokal horiek erabiltzeko ez zegoen inolako araudirik, eta, horren bitartez, Udalak hutsune hori bete nahi izan du.

Funtsean, ordenantzak bi helburu ditu: udal lokalak erabili ahal izateko prozedurak baldintza berak izatea guztientzat eta lokal horien erabilera eta funtzionamendua arautzea. "Orain arte ez zegoen araurik lokal horien erabilera arautzeko, eta, antolaketan aldetik horrek arazoren bat edo beste sor dezakeenez, arazo horiek ekiditeko araudia egitea pentsatu da".

Besteak beste, herriko bizitzarekin zerikusia duten jarduerak egiteko lokala behar duten pertsonak edota taldeek erabili

ahal izango dituzte lokalok. "Ezin izango zaie lokalik laga irabazteko asmoa duten elkartei".

Lokalen erabilpenari dagokionez, nagusiki, jarduera kulturalak, artistikoak, hezkuntzakoak, soziokulturalak eta ludikoak egiteko lagako direla jakin eragin du Udalak.

Dena den, helburu komertzialerako edota irabaziak lortzeko helburu jakin batengatik ere utzi

ahal izango du Udalak lokala. "Kasu horretan, lagapena aldi baterako izango da", argitu dute Udaleko teknikariek.

Hiru motatako lagapenak

Izan ere, lagapena zehatza (egun bakarrerako), aldi batekoa (lokal bat hainbat emanaldi zehatzetarako lagatzea) edo denbora baterako (urte baterako edo gehiagorako) izan daiteke.

Bestalde, ezkontza zibilak (Ibarraundin), hileta zibilak (Ibarraundin) edo antzeko izaerako ekitaldiak ere egin ahal izango dira udal lokaletan. "Ibarraundi museoa ekintza horietarako aproposa da", esan zuten udal ordezkariak osoko bilkuran.

Araudia ikusgai dago Udalaren webgunean eta talde guztietako kideek aukera daukate ikusi, aztertu eta, zalantzaren bat edukiz gero, galdetzeko.

Udal lokalak irabazi asmorik ez duten taldeendako dira, hasiera baten

ARETXABALETA

Uholde berdeak hartu zuen Iturrigorri

Bihotzez ikasi lelodun kamiseta berdeen uholdea iritsi zen pilotalekura eguen iluntzean. Kurtzebarri eskolako kideak ziren, Udazken Jaia ospatzen. Jai berezia gero, eskolako kideek asmatutako flashmob jendetsua egin zuten-eta.



MIRARI ALTUBE

ARETXABALETA

Euskararekin bat egin zuten Basabeazpin

San Frantzisko Xabier eta Euskararen Eguna batera ospatu zituzten Basabeazpiko kideek egubakoitzean. Marrazkiak egin, jolasean jardun, txistorra goxoia jan eta trikiti doinuekin dantzari eginda bukatu zuten goiza.



BASABEAZPI

ESKORIATZA

Udalak obra publikoetako ingeniari tekniko lanpostua betetzeko eskaintza zabaldu du

Oinarriak Udalaren webgunean daude jasota; curriculumak aurkezteko epea zabalik dago

A. ALKORTA | ESKORIATZA

Bide publikoetan, eraikin eta instalazio publikoetan, zerbitzuetan eta obretan lan egiteko ingeniari tekniko lanpostua betetzeko eskaintza zabaldu du Udalak. Lanpostua betetzeko, laugarren hizkuntza eskakizuna bete eta gidabaimena izan beharko dute eskaintzari erantzuten diotenenak.

Eskaintza azaroaren 11n argitaratu zuen Udalak eta abenduko bigarren astera arte egongo da curriculumak aurkezteko epea.

Aukeratutako hautagaia obra publikoetako ingeniari tekniko lanpostuan atxikiko dela esan du Udalak eta ordainaria Udalak onartutako taulako 18,89 mailari dagokiona izango da.

Egin beharreko lanak

Lanpostua betetzen duenak egiteko hauek izan beharko ditu, besteak beste: kontsumo azterketak egitea, obra publikoak, bide publikoen mantentze-zerbitzuak, eraikinak eta udal instalazioak lehiaketa bidez emateko baldintza teknikoak agiriak egitea, bere eskumeneko lanei buruz gainontzeko udal departamentuek eta herritarrek egindako oharrei eta eskaerei erantzutea eta arloko kontrolaz eta aurrekontu-erabilgarritasunaz arduratzea eta proposamenak egitea.

Eskaintzaren oinarriak eta plaza betetzeko bete beharreko baldintzak zeintzuk diren jakiteko, Udalaren webgunea kontsulta dezakete interesatuek.

ARETXABALETA

Udal hautetsiek abenduaren 16an, egubakoitzean, barau egingo dute euskal presoek eskubideen alde

Ohiko osoko bilkuran onartutako mozioan zehaztutako konpromisoetako bat da

M. A. JA. A. | ARETXABALETA

Bost mozio eztabaidatu zituzten udalbatzako kideek joan den asteleheneko ohiko osoko bilkuran. Azken bilkuretan izan ez den Ainhoa Sagarriribai alderdi sozialistako zinegotziak bi aurkeztu zituen, biak zaborraren gainekoak. Atez ateko bilketaren aurka egin zuen hark baina ez zuen babes handirik lortu, EAJrena bakarrik. Bilduk erantzun zion "atez atekoaren gaineko azterketa egiteari bakarrik ere uko egiten diola mozioak" eta Aralarrek "ez dela momentua".

EAJk aurkeztutako Beasain-Bergara autobidearen lanek aurrera egiteri, oster, baietza eman zioten guztiek.

Hartutako konpromisoak

Bestalde, Bilduk aurkeztutako euskal presoek eskubideen aldeko mozioaren kontra egin zuen PSE-EEko zinegotziak: "ETAk min larregi eragin du eta ezin dira ahaztu biktimak". Gainerakoek onartu egin zuten, eta hainbat konpromiso hartu; tartean, abenduaren 16an udal hautetsiek barau egitea eta ondoren elkarretaratzea 12:00etan; eta urtarrilaren 7an euskal presoek eskubideen alde egingo den manifestazioarekin bat egitea.

Euskararen Nazioarteko Egunaren gaineko aldarrikapena ere onartu zuten, PSE-EEK mozio horren aurka bozkatu bazuen ere.



Nagusion hizkuntza ohiturak jasotzen dituzte gure seme-alabek.

eredu izan
EUSKARAZ
plazera delako!

ELGETA

Manolo Montiel | Argazkilari afizionatua

"Argazkiak ateratzea herria hobeto ezagutzeko bidea izan da"

- Herriko txoko garrantzitsuenei argazkia atera eta bideo-muntaia egin du
- Zapatuan bi emanaldi egin zituen Ostatu tabernan; lepo bete zen

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Aurreko batean Gipuzkoako herri guztietan izan zen eta herri bakoitzetik txakur baten argazkia ekarri zuen. Oraingo honetan ez da Elgetatik mugitu, baina txoko gehienetan izan da. Argazkiak atera eta bideo-muntaia batean batu ditu guztiak. Zapatuan erakutsi du bere lanaren emaitza. Gustura geratu da jendearen erantzunarekin,

Zelan joan dira emanaldiak? Urduri egongo zinen!

Bai, nahiko urduri egia esateko baina oso ondo joan da guztia. Jende asko etorri da, nik espero baino gehiago. 21:00etako emanaldira 19:00etakora baino jende

gehiago, baina bietan bete da taberna. Itxura denez, gainera, gustatu egin zaie; amaieran txalotu egin dute eta gustura gelditu naiz.

20 minutuko muntaia da, argazki asko dira... Jendeak non erreakzionatu du?

Batzuk ezagutzen ez zituzten tokiak ikusterakoan; Lagun Artea errotaren argazkiarekin, esaterako. Jendea agertzen den argazkiek ere harrera oso ona izan dute. Lagunak ikusterakoan erreakzio oso politak egon dira. Atentzioa deitu dit ere dentistaren kontsulta agertu denean baten batek nola galdetu duen ea hori non dagoen. Hemen enteratu da,

antza, Elgetan dentista dugula. **Jende asko agertzen da argazkietan. Komertzioetan ere sartu zara. Elgetarrek erraz onartu dute argazkietarako posatzea?**

Hasieran kosta egiten zaie, baina azaltzen duzuean zertarako den eta zer bilatzen duzun, animatzen dira. Herrikoa naiz, ezagutzen naute...

Nola otu zitzaizun horrelako lan bat egitea?

Bat batean otutzen zaizkit niri horrelakoak. Egun batean anaierekin plaza gurutzatzen ari nintzela udaletxeari argazkia ateratzea otu zitzaidan. Eta hortik sortu zen herriko hainbat eraikinik argazkia ateratzeko ideia. Eraikinak, komertzioak, musika eskola... gauza asko etorri dira ondotik.

Toki asko agertzen dira. Nola osatu duzu argazkitan jaso beharrekoen zerrenda?

Jendearen laguntzarekin. Zertan nenbilen jakin eta batek baino gehiagok esan dit 'atera duzu halako?' eta ni joan eta atera. Ez pentsa! Nik neuk ere ezagutzen ez nituen parajeetara iritsi naiz kontu honekin. Herria hobeto ezagutzeko bidea izan da.

Zer ezagutu duzu, esaterako?

Lagun Artea errota, Santixau ermita... eta ez nekien Aixolatik behera joanda dagoen Oillakorta taberna Elgeta denik.

Argazkia ateratzea gustuko duzu. Bai. Horrelakoetan asko ikasten da eta uste dut apurka apurka hobetzen ari naizela.

Beste proiekturen bat buruan izango duzu honezkero!

Baditut pare bat ideia, baina atsedean apur bat hartu behar dut. Esperientzia hau positiboa izan da eta seguruenik animatuko naiz beste zerbait egitera baina lasaitzea tokatzen da orain. Ordu dezente sartu ditut azken aldian kontu honetan.



Manolo Montiel zapatuan Ostatu tabernan egindako bi emanaldien ostean. | L.Z.

LEINTZ GATZAGA

Hiru enpresa aurkeztu dira Udal eraikinak garbitzeko lehiaketara

Egunotan dabilta aurkeztutako eskaintzak aztertzen; gero osoko bilkuran izendatuko dute

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Udal eraikinak garbitzeko lehiaketa deia azaroan egin zuen Gatzagako Udalak, eta behin epea bukatuta, hiru enpresa aurkeztu dira deialdi hartara. Hiru horietako bakarra dela debagoiendarra jakinarazi dute.

Joan den eguenean zabaldu zituzten Udal ordezkariak eskain-

tzen kartazalak, eta egunotan aztertuko dituzte egindako diru-eskaintzok eta aurkeztutako agiri guztiak. Udalak finkatutako aurrekontua izan da 15.183 euro urtean, eta diru kopuru hori hobetu beharra izan dute garbitze enpresek.

Behin agiri guztiak aztertuta, egokiena hautatuko dute, eta gero

osoko bilkuran izendatu zerbitzu hori emango duena. Ohiko osoko bilkura horretarako datarik oraindik ez dute zehaztu, baina Gabonak baino lehen izango dela iragarri dute.

Bi urteko kontratua

Zerbitzuaren ardura hartzen duen enpresak beste batzuen artean udaletxea eta herriko eskola garbituko ditu. Ardura hori bi urterako izango da, eta bi aldeak gustura egonez gero kontratua beste bi urtez luzatzeko aukera izango dute.

Azken urteotan Eskoriatzako Hemen Garbiketarako enpresak egin ditu garbitasun lan horiek.

ARAMAIO

Teknologia berrien gaineko jardunaldiak, gazteen hezitzaileendako

Zuiako koadrilako udalerriendako antolatu dute ekimena; hilaren 27an eta 28an izango da, Zigoitian

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Gazteekin lan egiten duten hezitzaileendako jardunaldi bereziak antolatu ditu Arabako Diputazioak eta Zuiako koadrilak. Abenduaren 27an eta 28an izango dira eta teknologia berrien gaineko oinarrizko hainbat arlo landuko dituzte. Izena eman behar da abenduaren 19a baino lehen; epmaraba@yahoo.es helbide elektronikora mezua bidalita eta norberaren datuak, telefono zenbaki bat eta harremanetarako helbide elektronikoko bat utziz. Horrez gain, honako kontu korronte zenbakian ordainketa egin behar da: 2097 0224 94 0104932644. Tailerretan parte hartzeko hamar euro ordaindu behar da; jardunaldi

osoan parte hartzeko, berriz, 15 euro. Argibide gehiago, Zigoitiko Udalean (943 43 01 67/650 47 17 18). Lekua mugatua izango da eta izenematearen ordenaren arabera zehaztuko dira parte hartzaileak. Zuiako koadrilakoei emango zaie lehentasuna, aramaioarrei barne. Ordenagailu eramangarria eramatea aholkatzen dute.

Sare sozialak eta aplikazioak

Egitarru zabala prestatu dute. Besteak beste, hiru tailer egingo dira, sare sozialen eta ordenagailu mugikorretarako aplikazio praktikoek gainean. Txikienei interneterako sarbidea kontrolatzea helburu duen hitzaldia ere egongo da.



Gazteekin lan egiten duten hezitzaileendako ekimena da. | GOIENA

ANTZUOLA

Lizarraga auzorako kaminoa konpondu eta zabaldu egin dute

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Azaroko lehen aste bukaeran izandako euri-jasen ondorioz Lizarraga auzorako bidean lur-jausia izan zen eta erori egin zen kaminoaren zati bat. Egoera arriskutsua zela-eta presazko lana egin behar izan dute.

Valen Moñux udaleko Hiritzinta teknikariak azaldu digunaren arabera, harri-lubeta egin dute erreka aldean eta

kaminoa sendotzeko asfalto beharrean hormigoi armatua bota dute. Lan horiek eginda, kaminoa sendotzeaz gain, zabaldu ere egin dute.

Dirulaguntza

Lan horiek guztiak egiteko 18.000 euro gastatu ditu Udalak. Orain Foru Aldundian aurkeztu dute egindako lana, dirulaguntza jaso ahal izateko.



Konpondu duten bide zatia. | USOA AGIRRE

SARI NAGUSIA



- 32"-ko TFT-LCD pantaila.
- LTD integratua.
- HDMI
- USB grabagailua

Bidali KLUBA TELEBISTA [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.

SKUN-FUNK-EKO MATERIALA

Bidali KLUBA SKUNKFUNK [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.



2 SARRERA

'Ezetz hegan egin' haur antzerkia ikusteko
Amaia antzokian, abenduaren 10ean. 17:00etan.

Bidali KLUBA SARRERAK [Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.



Topakide txartelarekin parte hartzeko
deitu 943 25 05 05 telefonora.

2011n
atera etekina
txartelari

LILURA EDERTZE INSTITUTUA

Bergara, 943 76 31 71

- -%15 laser depilazioan: hanka osoa + izterrondoa (besapekoak opari).
- -%20 elikagai-intolerantzia proban.
- -%10 mikropigmentazioan: begiak, ezpainak edo bekainak.
- -%10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

Bazkidearentzat eta lagunarentzat

ETA HAUETAN ERE BAI



SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ez ezatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba 2011

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com | goienakluba.com
Urteko kuota: 48 €.

goienakluba[™]
Abantailaz betetako kluba!



KIROLA

PILOTA

Txikitasunean pilotari handia dela erakutsi du Mendizabalek

- ▶ Lau t'erdiko Promozioko finala irabazi du 15-22 Lemunoren aurka
- ▶ Uztailean egin zuen debuta profesionaletan Mendizabal III.ak
- ▶ Antzuolarren babesak izugarria izan zen Beotibar pilotalekuan

ARANTZAZU EZKIBEL | TOLOSA

Aitor txiki handia dela erakutsi zuen Beotibarren. Bost hilabete besterik ez daramatza profesionaletan eta, dagoeneko, lehenengo txapela lortu du. Lau t'erdiko Promozioko Txapelketako txapeldun berria da antzuolarra. Zapatuan, Tolosako Beotibarren, 15-22 irabazi zion Lemunori.

Antzuolarren babesak

Lehia hasi baino ia ordubete lehenago sartu ziren pilotalekura lehenengo antzuolarrak. Bigarren pisuko sarrerak zituzten, eta han jarri zuten txapeldun berriaren aldeko pankarta: *Galdu o irabazi, hi txapeldun. Aupa Aitor!* Antzuolatik joandako jarraitzaile gehienak kanpoaldean zeuden, pilotalekuko tabernan. Giroa berotuta zegoen, izan ere, gehienak goizean goiz joan ziren Tolosara herriko pilotaria animatzera.

Poliki-poliki harmailak betetzen joan ziren. Antzuolako jarraitzaileak bakarrik ez, Debagoie-

neko hainbat pilotazale joan ziren Tolosara; besteak beste, Arrasate eta Bergarako jarraitzaileak.

Txanpona gorri irten zen

Txanpona gorri irten zen, Lemunoren alde. Iparraldekoak egin zuen lehenengo satea eta baita tantoa ere. Mendizabalek, baina, 1-1 berdindu eta markagailuan aurre hartu zuen, 1-5 jarriz. Beotibarren antzuolarraren aldeko kantuak entzuten ziren: *Mendizabal eta Jo ta ke irabazi arte oihuak*.

Lemunok hartu zuen satea ondoren eta beste bi tanto egin zituen; gero, Mendizabalek satea hartu zuenean, gogor lan egin eta 11. tantoraino alde egin zuen (5-11).

Handik aurrera, bai bata bai besteak egin zituzten tantoak. Lemuno gehiago jokatzen hasi zen eta 12-18tik 15-19ra hurbildu zen. Mendizabal urduri jarri zen, eta amaieran aitortu zigun azkeneko partiduko mamuak etorri

RRA

Sthepane Lemuno eta Aitor Mendizabal podiumean; Mendizabal, irabazlearen garaikurra eta txapelarekin. | ARANTZAZU EZKIBEL

zitzazkiola burura. Hala ere, beste behin, Lemuno baino gehiago dela erakutsi eta 22. tantora iristea lortu zuen.

Partidu borobila

Partiduan hasieratik sartu zen antzuolarra. Angelu guztiak bilatu zituen, bai txokoa eta baita zabalera ere. Gauzak zuzen egin zituen eta opari gutxi Lemunori. Erritmoa jarri zuen, batez ere, bolearekin. Egindako lanaren emaitza izan zen txapela.

Bost hilabete profesionaletan

Ez da samurra profesionaletarako salto egin eta bost hilabete lehenengo txapela janztea. "Ez du edonork egiten", esan zuen Jokin Etxaniz Aspeko kirol teknikariak. Baina Aitorrek, bere txikitasunean, pilotari handia dela erakutsi du. Lanean jarraitzeko morala eman gion garaipena lortu zuen zapatuan. Mauri Zubillaga Arrasateko pilota elkartearen entrenatzailearen ustez, konstantziaren emaitza da, "ez du inoiz utzi",

gaineratu zuen. Pilotari handia dela eta "estelarrak" jokatzen ikusiko dugula ere esan zuen.

Pozik zegoena Antzuolako pilota elkartearen Felix Agirre zen: "Ezin da gehiago eskatu", zioen. Aurrera begira, helburua txapel gehiago lortzea izan behar dela esan zuen. Etxanizek ere zera esan zuen: "Lehenengo izan da, baina ez dadila azkena izan".



JOKIN ETXANIZ
ASPEKO KIROL TEKNIKARIA

"Abantailarekin hasteak lasaitasuna ematen du. Hasieratik sartu da partiduan, nahiz eta 7-11ekin Lemuno jokatzen hasi den. Gauzak zuzen egin ditu eta merezitako txapela izan da. Ea ez den azkena izaten!".



FELIX AGIRRE
ANTZUOLAKO PILOTAZALEA

"Gaur merezi izan du etortzea. Ondo jokatu du, urduri hasi arren. Abantaila hartzea mesederako izaten da, beti. Gehiago izan da, akats batzuk egin dituen arren. Berraondok ekarri zuen txapela eta Mendizabalek ere bai".




MAURI ZUBILLAGA
ARRASATEKO PILOTAZALEA

"Aitor oso ondo ibili da, baina besteak ez du jokatu. Txapela nork irabazi duen badakigu; gainera, jarraitutasunaren oparia izan da, opari zoragarria. Segi eta segi eta segi ibiltzen da Mendizabal, ez du inoiz ere utzi. Pilotari handia da".



GURUTZ MUGURUZA
PILOTAZALEA

"Lemuno pilotari arriskutsua da eta ezker kolpe bikaina dauka, baina Aitorri dena irten zaio gaur. Ondo merezitako garaipena izan da, harmailtan sekulako giroa izan dugu. Uztailean debuta egin eta 1go garaipena izan da hau".



JON MADARIAGA
PILOTAZALEA

"Uste nuena baino partidua errazagoa izan da. Mendizabali eskumara botatzea zen asmoa, baina erraz irabazi du. Zaleek eman diogun animua izugarria izan da, herrikoa da, eta hau ez dago diruz ordaintzerik".

TXIRRINDULARITZA | Arrasateko klubak 35 urte | 26



AITOR MENDIZABAL | PILOTARIA

"Behin finalera iritsiz gero aprobe txatu behar diren aukerak dira eta lortu dut"

Gustura, pozik zegoen Mendizabal antzuolarra partidu amaieran. Bost hilabete txapela janztea lortu du, eta hori balentria handia dela badaki. Jarraitzaileei, familiari eta neska lagunari eskaini die txapela.

Zorionak, Aitor!

Eskerrik asko. Gustura nago, bai. Finalera iritsi naiz eta txapela lortu dut, hori da garrantzitsuena, txapelarekin etxera joatea.

Bost hilabete profesionaletan, eta lehenengo txapela!

Bai, kristona, ez? Finalera iritsi naiz eta, behin ailegatuta, garrantzitsua da irabaztea. Finala galduz gero ere, lana ondo eginda dago baina, behin finalera iritsita, aprobe txatu behar diren aukerak dira. Lortu dut eta oso pozik nago.

Hasieratik hartu duzu aurre markagailuan. Nola ikusi duzu partidua?

Ondo hasi naiz, sakeak ondo egin ditut eta ongi mugitu dut pilota. Gero, Lemuno ere jokatzen hasi da eta estutu egin nau. Urduuri jarri naiz eta zerbait gehiago kosta zait pilota mugitzea baina iritsi naiz 22. tantora.

Lemunok markagailuan aldean jan dizunean, azkeneko partiduko mamuak etorri zaizkizu burura?

Bai, burutik beti pasatzen dira gauzak. Pare bat sake gora bota ditut eta orduan



Aitor Mendizabal. | A.E.

gerturatu zait markagailuan. Buruak lan asko egiten du horrelakoetan.

Non egon da partiduen gakoak?

Ondo hasi naiz, tantoa ondo bukatzen, eta pare bat pilota on bota ditut. Gero bera ere jokatzen hasi da baina ez dit min handirik egin. Eroso jokatu dudala esan daiteke.

Jarraitzaileen babesa izugarria izan da!

Bai, kristona da. Holako ikusleak... kristona da! Ikusi besterik ez dago zenbat jende etorri den. Alde denetik, herrikoak, lagunak...

Amaitzeko, nori eskaintzen diozu txapela?

Etorri den jendeari; familiari, gehien sufritzen dutenak direlako; eta, nekari Finlandian dago eta ez du izan partidura etortzerik.

Artolak eta Rezustak finala jokatuko dute Zumarragan

EMAITZA

ARTOLA-REZUSTA

22-19

JAKA-LARUNBE

A.E. | BERGARA

Bankoa Credit Agricole-DV txapelketako finala jokatuko du Beñat Rezusta bergararrak, Artola bikote kidearekin batera. Hilaren 25ean jokatuko dute finala, Zumarragan.

Finalerako txartela zapatuan lortu zuten, Bergarako Udal pilotalekuan jokatutako finalaurrekoan.

Rezusta, atzealdean sendo

Artola eta Rezustak uste baino lan gehiago egin behar izan zuten partidua irabazteko. Hasieran, samur hartu zuten aurre markagailuan eta egindako lanaren emaitza berehala ikusi zen: 19-10 aurre-ratu ziren.

Gorritz jantzitako bikoteak, baina, ez zuen partiduko guztian erritmo bera mantentzerik izan. Hala, Jakak eta Larunbek erritmoa jarri zioten lehiari eta 19-19 berdintzea lortu zuten. Abantaila murrizterakoan sakeak berebiziko garrantzia izan zuten; izan ere, Jakak lau tanto jarraian egin zituen sake bitartez.

Bergarako pilotariari dago-kionez, Rezustak lan ona egin zuen atzealdean. Sendo ibili zen eta ez zuen arazorik izan Larunbe baino gehiago izateko.

Partiduko azkeneko hiru tantoak Artola eta Rezustarendako izan ziren. 22-19 irabazi zuten eta promesa mailako finala jokatuko dute Zumarragan datorren hilaren 25ean.



Jose Mari eta Aitor aita-sembleak pilota aukeratu ondoren. | A.E.




Azken tantoa egin eta zaleak agurtu zituen Mendizabalek. | A.E.



Harmailetan gogoz animatu zuten antzuolarrak. | A.E.



Herritarren babesa izan zuen Mendizabalek frontoian | A.E.



Beñat Rezusta. | JULIO CALLEJA

OHOREZKO ERREGIONALA

Aloñako mutilek jarraian lortzen duten laugarren garaipena eskuratu zuten atzo

Iker Olalde, Unai Bikuña, Asier Ugarte —bi gol— eta Aritz Garmendia izan ziren golegileak

EMAITZA

ALOÑA MENDI

5-0

HONDARRIBIA

FITXA TEKNIKOA

Aloña Mendi: Aginagalde, Mendoza (Urkia, 77. min.), Agirre, Idigoras, Palacios, Bikuña (Lizarra, 66. min.), Ugarte (Moreno, 77. min.), Juaristi (Garmendia, 71. min.), Zelaia (Ruiz, 70. min.), Millas eta Olalde.

Hondarribia: Pablos, Martxel, Iñigo (Markel, 72. min.), Ugaitz, Mikel, Aitor (Olaizola, 77. min.), Endika (Eneko, 65. min.), Oliveri (Haitz, 65. min.), Blazquez, Cervantes eta Jonba (Sagar, 72. min.).

Epailea: Antofiana.

LARRAITZ ZEBERIO | OÑATI

Partidua ez zen nahi orduko amaitu Hondarribiko mutilendako. Haserre zeuden, gertatutako guztiak sinistu ezinik. "Oparitu egin ditugu hiru gol, *enpanatuta* ibili gara", zioten. Norgehiagoka amaitutakoan ere horrela esan zion Hondarribiko entrenatzaileak Andoni Azkargortari; "Gabone-

tako oparia jaso duzue". Opariak tarteko edo ez, etxeok bost gol egin zituzten eta horrelakoak ez dira egunero lortzen.

Hondarribiarrek joko maila eskasa erakutsi zuten atzo Azkoagainen eta, egia esan, etxeok ere joko hobea egiten ikusi izan ditugu. Onartu behar da, ordea, behar zen unean behar zen tokian egoten jakin zutela, eta horrek bere fruituak eman zituen amaierako emaitzan. Hala, Azkoagainen apur bat urrunago ikusten dituzte orain hasierako emaitza negatiboak. Ezin dugu ahaztu Azkargortaren taldeak jarraian lortzen duen laugarren garaipena dela honakoa.

Sailkapeneko erdi pareko postuetan kokatu da Aloña. Andoni Azkargorta entrenatzaileak esan duen moduan, "datorren zapatuan Bergararen aurkako partidua irabazita lasai iritsiko ginateke Gabonetara".

Hasieratik baloiaren jabe

Norgehiagokaren hasieratik nagusitu ziren oñatiarrak futbol zelaian, eta partida hasi eta gutxira —4. minutuan— iritsi zen lehenengo gola: Iker Olalde egin zuen, buruz, estrategiazko jokaldi baten ondorioz.

Bigarren gola atsedeneren aurretik iritsi zen, 36. minutuan: Hondarribiko atezainak akats nabarmena egin zuen; Unai



Unai Bikuña Aloñaren bigarren gola egiteko bidean. | JULIO CALLEJA

Bikuñak hanka artetik kendu zion baloia eta, atea hutsik zegoela, gola sartu zuen. Markagailuak 2-0 jasotzen zuela iritsi ziren bi taldeak atsedenera.

Bigarren zatian hiru gol

Bigarren zatiko lehen minutuetan hondarribiarrak golaren bila irten ziren. Saiatu ziren eta pare bat aukera sortu zituzten, baina arrakasta gutxirekin. Aloñaren azken aizkorakada 61. minutuan iritsi zitzaion, Asier Ugartek hirugarren gola egitea lortu zuean. Txantxikuen bigarren golak min handia egin bazuen, hirugarrenarekin lur jota utzi zituen hondarribiarrak. Une horretatik aurrera, etxeok jaun eta jabe izan ziren futbol zelaian eta hala etorri ziren Asier Ugarteren bigarren gola —partiduko laugarrena— eta Aritz Garmendiarena. Ezer tarako gogorik gabe partidua amaiera itxaron zuten berdeek.

ANDONI AZKARGORTA | ENTRENATZAILEA

"Egia da akats handiak egin dituztela, baina, nire ustez, guk behartuta"

Pauso garrantzitsua eman du Aloñak garaipenarekin.

Emaitza ona.

Bai. Ez da erraza 5-0 irabaztea. Hondarribiak gure taldearen ibilbide nahiko antzerakoa egin du orain arte eta pentsatzen genuen partiduhonetan lan egin beharra izango genuela. Azkenean, lana eginda, baina emaitzak lagundu egin digu.

Oparitutako golak izan dira?

Erraztasunak eman dizkigute, hori horrela da. Batez ere, bigarren gola



Azkargorta. | L.Z.

egiteko. Eurei min egin die gol horrek eta guri asko zabaldu digu bidea. Akatsak egin dituzte, baina, nire ustez, guk behartuta. Bigarren gol hori atezainaren akatsa izan da, baina gu baloi horren bila joan garelako. Benetan sinistu dugu baloi

hori irabaziko genuela.

Hurrengo helburua?

Zapatuan Bergararen aurka jokatuko dugun partidua. Irabaztea pauso polita litzateke Gabonetara lasai iristeko.

OHOREZKO ERREGIONALA

Denetariko emaitzak etxetik kanpo: UDAk irabazi egin du; Bergarak, berdindu; eta Mondrak, galdu

Aretxabaletako taldea sailkapeneko goiko postuetara iritsi da; bertan jarraitu nahiko luke

L.Z. | ARRASATE

Bergarak, UDAk eta Mondrak etxetik kanpo jokatu dute aste bukaeran.

Bergarak bi gol egin eta berdinketa lortu zuen Pasaian. Joko ona egin zuten eta baloiaren jabe izan ziren baina pasaitarrak jarri ziren aurretik. Atsedenean emaitza 1-0 zen. Ez ziren hor amaitu bergararren atsekabeak. Bigarren zatia hasi eta gutxira bigarren gola egin zuten eta etxeok. Baina markagailuari buelta emateko gauza izan ziren Galanen mutilak. Zenbait aldaketa egin

eta laster egin zuen gola Baltzategik. Deskontuko minutuetan iritsi zen bigarrena Urrutiaren burukadaz.

Mondrak 1-0

Ezinean dabiltzanak Mondrako mutilak dira. Punturik gabe itzuli ziren atzo Berion jokatutako partidutik. Lehenengo zatian nahiko ondo ibili zirela esan digu Iban Rodriguez entrenatzaileak. Aukerak sortu zituztela esan du baina punteria falta izan zitzaizela jaurtiketan. Beriokoek gol bakarria egin zieten eta falta baten ondorio izan

zen: jaurtiketa zuzena eta gola. Puntu beharrean daude Arrasatekoak, izan ere, sailkapeneko azken postuetan daude.

Udak 0-1

Txanponaren beste aldean UDAREN emaitza dugu: aste bukaeran kanpoan lortutako emaitzarik onena. Aretxabaletakoak Tolosan izan ziren zapatuan eta 0-1ekoarekin itzuli ziren etxera. Pozik agertu dira UDAkoak. "Tolosa talde ona da eta partidua hori irabazita sailkapeneko goiko multzoan kokatzen gara".

Zapatuan partidua serioa egin zuten eta tolosarrek ez zuten aukera bakar bat ere eduki. UDAkoen gola atsedenetik bueltan iritsi zen. Oxel Apraitzek egin zuen burukadaz. Bi partidua irabazi ditu jarraian UDAk. Hurrengo biak etxean jokatuko ditu, jarraian Mondraren aurka egin beharko du eta beste bi etxean izango ditu. "Animatuta gaude. Asteburuko emaitza ona da".



EMAKUMEZKOAK

JULIO CALLEJA

4-0 irabazi dute Mondrako neskek

Partidu gogorra izan dute aste bukaeran Arrasateko neskek baina atsedenerako aurretik ziren markagailuan Ainhoa Alonsok egindako golari esker. Itzuleran gogor saiatu ziren Pauldarrak taldeko neskek eta aukeraren bat izan zuten baina zorterik ez. Alonsok egin zuen bigarren gola ere eta Maite Roak hirugarrena. Norgehiagoka guztiz apurtuta zegoenean iritsi zen azkena; hori ere Alonsok egin zuen.

SASKIBALOIA

Azken 15 minutuetan joan zitzaion partidua Aloñari

Lehen 25 minutuetan ondo eutsi zion Aloñak; hortik aurrera ezinean ibili zen, bai defentsan bai erasoan

EMAITZA


NATRA OÑATI
76-96
PAS PIELAGOS

LARRAITZ ZEBERIO | OÑATI

Hasieratik jarri ziren aurretik kantabriarrak, baina ondo eutsi zuten erritmoa oñatiarrek. Bosgarren minuturako zazpi tantoko alde zuten kanpotarrek, baina diferentzia hori ez handitzea eta apurka apurka murrizten joatea lortu zuten Igartuaren mutilek. 37ra berdintzea lortu zuten eta atsedenean markagailuak 42-44 adierazten zuten.

Gainbehera

Hirugarren laurdeneko lehenengo bost minutuak oso onak izan ziren. Etxeko taldea aurretik ere ibili zen -47-44-, baina halako batean gauzak okertu egin ziren. Defentsan hutsegite handiak egin zituzten eta erasoan asmatu ezinik ibili ziren. Hirugarren laurdena amaitu orduko zazpi tantoko alde hartu zuten kanpotarrek. Laugarren laurdena oso txarra izan zen; zazpi tantoko alde hori 20ra artekoa bihurtu zen.



Aloñako Asier de la Iglesia Bart Williams-en presiopean. | JULIO CALLEJA



XABI IGARTUA
ENTRENATZAILEA

"Gaseosari gasa amaitu eta bost minutu txar egin ditugu"

Triste zegoen Igartua partidu amaieran.

Partidu gogorra, ezta?

Oso ekipo ona da, nire ustez gurea baino hobea. Euren meritua izan da. Onartu egin behar dugu; gu baino gehiago izan dira.

Non egon da arazoa?

Hasieran hor egon gara; lehenengo 25 minutuetan ondo eutsi dugu, baina hirugarren laurdeneko azken minutuak txarrak izan dira. Gaseosari gasa gastatu zaio. Atzean samurtasun larregi eman dugu eta atzean egin ez duguna aurrean konpondu nahian ibili gara, ezinean.

Jokalari onak dituzte...

Bai, basea oso ona da eta hiruko saskiratze asko egin dizkigu. Burusoila, berriz, Gasol eta Navarrok ere ibilitakoa da. Kalitate handiko jokalariek! Guk, aldiz, Ifigoren baja edukita zailtasunak izan ditugu.

TXIRRINDULARITZA

Markel Irizarrek masailezurra eta atzamar bat apurtu ditu

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Zapatu goizean, entrenatzen ziharduela, erorikoa izan zuen Markel Irizar ziklista oñatiarrek -RadioShack-Nissan-, Bergara eta San Prudentzio arteko bidean. Zauri handiak zirela-eta, Arrasateko Ospitalean artatu zuten lehenengo eta hortik Donostia Ospitale-raman zuten.

Masailezurra eta atzamar bat hautsita ditu Irizarrek. Aurpegiko zauriak, gainera, nahiko deigarriak dira. Aurpegiaren alde bat oso kalte-tuta dauka oñatiarrek; puntuak eman behar izan dizkio-te bekain batean eta ezpainean. Ziklistak berak eman zuten zapatu gauean bertan bere egoeraren berri, Twitterrean. Gau hori obserbazioan eman behar izan zuten eta domeka eguerdian itzuli zen etxera. "Espero zena baino gutxiago, baina zartako formula", adierazi zuten ziklistak Twitterrean.

Momentuz etxean

Atsedean hartu beharko du orain Irizarrek. Domekan taldekide guztiakin batera Calpera joatekoa zen RadioShackek Alacante aldean hastekoa duen kontzentrazioan parte hartuz.

Irizarrek jarraitzaile ugari- riren animoak jaso ditu Twitterren bitartez, artean Joseba Beloki txirrindulari ohia- renak.

ESKUBALOIA

Atsedenen osteko defentsa bikaina izan zen; atezainaren lana ere, primerakoa

Elgoibarkoek lan handia eman zuten; jarraitzaileak ere asko ekarri zituzten

EMAITZA

FORD MUGARRI
28-27
ELGOIBAR

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Merezitako garaipena lortu zuten zapatuan Ford Mugarrri Arrasateko mutilek. Elgoibarko taldeak lan dezente eman zuen kantxan. Ez hori bakarrik; jarraitzaile asko ekarri zituzten Arrasatera, Iturripek Elgoibarkoen kantxa

emateraino. Baina Herreroren mutilak ez ziren kikildu. Lehenengo minutuetan arerioak markagailuan hartutako aurrea neutralizatzen jakin zuten eta, atzedenerako, berdinketatik gertu zegoen emaitza zuten: 13-14.

Bigarren zatian, hobeto

Herrero atsedenen ostean egin-dako lanarekin dago gustuen. "Defentsan asko igo dugu, bai intentsitatean bai kontaktuan. Aitor Txabarri atezainari laguntza eman diogu eta oso-oso ondo aritu da; dena gelditu du. Erasoan ere askoz gehiago mugitu dugu baloia; errazago joan da alde batetik bestera, modu ordenatuan eta nahiko argi ibili gara erasoan. Hor egon da diferentzia nire ustez". Amaieran ahalegin handia egin zuten Elgoibarkoek, baina denbora falta izan zitzaion.



Kepa Isasmendi erasoan. | JULIO CALLEJA



ESKUBALOIA

JULIO CALLEJA

Bergarakoek 32-41 galdu dute

Zapatu arratsaldean gaizki hasi zuten Hondarribia taldearen aurkako norgehiagoka Josetxo Muniategiren mutilek. "Gaizki hasi genuen baina 17-17 iritsi ginen atsedenera". Txarrena eginda zutela pentsatu zuten orduan bergararrek, baina bigarren zatian ezin izan zuten Hondarribikoek erritmoa jarraitu. "Defentsan oso partidu txarra egin genuen; erasoan, nire ustez, hobeto ibili ginen", zioen Muniategik.



Eguren iluntzean, 35. urteurrena ospatzeko luncha egin zuten klubeko lokalean. Bertan batutakoak topa egiten ageri dira goiko argazkian. | GOIATZ ARANA

TXIRRINDULARITZA

35 urte beteta, 50era ailegatzeko esperantzan

GOIATZ ARANA | ARRASATE

Arrasateko zikloturista taldeak 1976. urtean eman zituen lehen urratsak. Sekulako afizioa zegoen garai hartan eta hasiera indartsua izan zuen: ziklokros proba ofizialak egiten ziren gurean, belodromoak egiteko eskaera egin zuten -firma bilketa zabal baten babesarekin-, Bergarako Lamikiz Espainiako txapelduna izan zen bi urtetan... Debagoienean sortu zen lehen zikloturista taldea izan zen eta bailara osoko jendea zen bertako bazkide, ehundik gora

lagun. 1994. urtean, ordea, estazio ondoko lokala utzi eta Inazio Zuloagan berria egiteko unean, atzera egin zuten askok, lekualdatzeak diru ekarpena eta lana egitea zekarrelako. 35 bat bazkiderekin geratu zen, baina gerora gora egin du berriz eta 66 dira egun Debagoiena Txirrindularitza Klubeko kide. Zaletasuna piztu eta mantentzea dute helburu.

Oroitzapenak onak dira, 90eko hamarkadan auto batek harapatuta hil zen Joxe Mari Saizen heriotza salbu.



Ezkerretik eskuinera, goran: P. Alvarez, Morras, Menendez, Garcia, M. Sola, Eraña, I. Vitoria, Guzman, L. Vitoria eta Errasti; behean: Martinez, M. Nafarrate, Goñi, ezzezaguna, Alberdi, T. Martinez, G. Martinez, J. Madinabeitia eta Eraña. | D.T.K.

Profesionalen pare!

"Argazki hau noizkoa den? Seguru ez gaude, baina 25 urte izango ditu, gutxienez!" San Juanetan jai zutela aprobetxatuz, Frantziara egindako irteera bateko argazkia da, Tourmaletoko gainean ateratakoa. Astebeteko egonaldia egin zuten bertan, hotelean, eta

autobusez egin zuten joan-etorria. Aspen, Aubisque... egunero egiten zituzten 100-150 kilometro, lehen mailako mendate bat tartean zela. Oroitzapen oso onak dituzte, batez ere, Juan Madinabeitiak: "Tourmaleta igo genuen eguna loriatsua izan zen Paco Alvarez eta biontzat, profesionalak al ginen galdetu ziguten frantses batzuk!", diosku irribarre batekin.

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK

Beti Gazte-Behobia	4-1
Roteta-Oiartzun	0-2
Aurrera-Elgoibar	1-2
Pasaia-Bergara	2-2
Aloña Mendi-Hondarribia	5-0
Anaitasuna-Trintxerpe	2-0
Berio-Mondragon	1-0
Real Union-Urola	1-1
Tolosa-Aretxabaleta	0-1

SAILKAPENA

TALDEA	P	J
1 Anaitasuna	29	13
2 Berio	25	13
3 Oiartzun	24	13
4 Pasaia	23	13
5 Tolosa	22	13
6 Aretxabaleta	21	13
7 Beti Gazte	20	13
8 Urola	19	13
9 Real Union	18	13
10 Elgoibar	18	13
11 Aloña Mendi	17	13
12 Trintxerpe	16	13
13 Bergara	16	13
14 Hondarribia	16	13
15 Roteta	12	13
16 Mondragon	10	13
17 Aurrera	10	13
18 Behobia	6	13

HURRENGO JARDUNALDIA

Behobia-Roteta
Oiartzun-Aurrera
Elgoibar-Pasaia
Bergara-Aloña Mendi
Hondarribia-Anaitasuna
Trintxerpe-Berio
Mondragon-Real Union
Urola-Tolosa
Aretxabaleta-Beti Gazte

EUSKAL LIGA, GAZTEAK

Aretxabaleta-Lengokoak	1-0
------------------------	-----

1. ERREGIONALA

Mondra-Urki	0-2
Aretxabaleta C-Ikasberri	2-5

OHOREZKO GAZTEAK

Billabona-Bergara	0-1
Mondra-Lagun Onak	1-6
Tolosa-Aloña Mendi	4-3

GAZTEAK, 1. MAILA

Bergara B-Aretxabaleta B	4-1
Aloña Mendi B-Eibartarrak	4-1
Urki-Arizmendi	9-1

OHOREZKO KADETEAK

Bergara-Real Sociedad	1-1
Aloña Mendi-Aretxabaleta	3-0

KADETEAK, 1. MAILA

Urki-Arrasate B	3-2
Antzuola-Eibartarrak	0-3
Elgoibar B-Aloña Mendi B	9-3
Arizmendi-Bergara	4-2
Eibartarrak-Aretxabaleta B	7-1
Arrasate	atsedena

EMAKUMEZKOAK 2. MAILA

Mondra-Pauldarrak	4-0
-------------------	-----

EMAKUMEZKOAK GIPUZKOA MAILA

Lagun onak-Arizmendi	3-2
----------------------	-----

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPEL. GIZON.

Ford Mugarri-Alcorta Elgoibar	28-27
-------------------------------	-------

2. LURRALDEKO TXAPELKETA

Decotena Pulpo-Arrasate	33-24
-------------------------	-------

GAZTE MAILA, GIZONEZKOAK

T. Chapime Arrasate-Elgoibar	24-24
Aloña Mendi-Urola	28-27
Bergara-Amenabar	30-21

KADETE MUTILAK

Karibe Zaharra-Berezo Aloña	34-25
Chapime Arrasate-Soral. Bergara	23-26

GAZTEAK, EMAKUMEZKOAK

Bera Bera-Aloña Mendi	32-18
-----------------------	-------

SASKIBALOIA

EBA MAILA

Natra Aloña-Pas Pielagos	76-96
--------------------------	-------

ARETO FUTBOLA

EUSKAL LIGA

Eskoriatza-Sasikoa	6-1
--------------------	-----

GURE KIROLA

GOIENA PAPEREAN
ASTELEHENERO



goiena

PARAPENTEA

Andoni Ruiz de Azua | Amillena aire kirol taldeko kidea

"Hegaztiek gurekin batera hegan egiten dute, ez da arazorik izaten"

- ▶ Amillena aire kirol taldeak hitzaldia antolatu du abenduaren 17rako
- ▶ Hegaztien eta hegaldi librearen arteko harremana aztertuko dute

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Amillena aire kirol taldean hamar bat lagun daude. Ingu-ruko mendietan ibiltzen dira, hegan, hegaztien moduan. Aloña, Kurtzebarri... gurean aukera onak ditugula diote. Hegaldi libreak eta hegaztiak izango dituzte berbagai.

Abenduaren 17an izango da hitzaldia; zer jorratuko duzue?

Hegaztien eta hegaldi librearen arteko harremana jorratuko dugu hitzaldian. Edonori zuzenduta dago, baina badakigu horrelakoe-tan parapentean dabilen jendea etortzen dela.

Hitzaldi honekin, hegaldi librearen eta hegaztien artean dagoen estigma hori kendu gura dugu. Hau da, esaten da hegaztiak bel-durtu egiten direla gurekin, bai-na hori ez da egia. Hegaztiek gurekin batera hegan egiten dute.

Parke naturaletan hegan egiterik badago?

Parke naturalen gaia dugu orain. Gertatzen dena da dekretuz parke naturaletan ezin dela hegan egin. Ordesan, adibidez, ezin da hegan egin lurretik 1.000 metro baino gorago hegan ez bazabiltza. Hori da antzinako lege bategatik: lehen, hegan hegazkinek bakarrik egiten zuten, eta horregatik ez zuten uzten hegan egiten.

Erakutsi gura dugu guk eta hegaztiek elkarrekin hegan egin genezakeela, inongo arazo barik.

Pedro Txapa madrildarrak egingo du hitzaldia.

Bai; madrildarra da, baina gure elkarteko kide ere bada, era berean. Lehen, delta hegalean ibiltzen zen.

Hemengo hegaztien berezitasunak azalduko ditu eta, horrez gain, bi film labur eskainiko ditu-gu, ordu laurden ingurukoak.

Zuek egindako filmak izango dira?

90eko hamarkadan egin genuen dokumental bat Arangoitin (Nafarroa). Pedrori ez zaio askorik gustatu, ez dakit ipiniko duen edo ez.

Nolako erantzuna izaten dute antolatzen dituzuen hitzaldiek?

Iaz Oñatin egin genuen hitzaldi bat, GPSaren erabilerearen inguruan. Hitzaldi hartara parapente eta delta hegal munduan dabilen jendea joan zen.

Zenbat lagun zabilzate gaur egun Amillena aire kirol taldean?

Hamar bat lagun, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati eta Antzuolako jendea. Orain dela urte batzuk modan egon zen, baina, azkenaldian, geratuta dago zaletasuna. Banakaren bat hasten da, baina



Andoni Ruiz de Azua, Monterron parkean. | ARANTZAZU EZKIBEL

"Parke naturaletan, antzinako lege dekretuz, ezin da hegan egin"

"Hegan egiteko denboraldiak maiatzetik irailera irauten du"

"Gurean oso toki onak ditugu hegan egiteko: aireratzeko eta lur hartzeko"

askorik ez. Egia esan, ez dakit zergatik...; izan ere, oso kirol polita da. Gainera, parapente mota asko daude.

Parapentea ere aldatu da azkenaldian.

Bai; lehen, parapentean ibiltzea zen mendira joan eta handik salto egitea, jaitsi arte. Gaur egun, ostera, hegan egiten da. Gure taldeko pilotu batek, esaterako, 156 kilometro inguru egin ditu: Piedrahitan (Avila) irten eta Arconeseraino (Segovia).

Oker ez banago, zuen asmoa distantzia luzeko opena egitea da?

Bai, asmoa da distantzia luzeko opena egitea, baina oraindik zehaztu gura barik dago. Kirol hau sustatu gura dugu. Kurtzebarritik irtengo ginatete eta lehiaketa izango litzateke nor urrunen iritsi. Irabazleari urdaiazpiko bat emango genioke.

Noiz da garai egokia hegan egiteko?

Maiatz inguruan hasten da eta irailera arte irauten du denboraldiak. Kirol hau eguraldiarekin oso lotuta dago.

Orain dela bi urte Adunako mutil bat Kurtzebarritik irten zen eta Alcanadreraino joan zen (Errioxa), 77 kilometro zuzen. Hortik irten da kirol hau promozionatzeko ideia.

Ibarrean leku aproposak ditugu kirol hau praktikatzeko?

Bai, kirol polita da eta, gainera, leku aproposak ditugu. Aloña eta Aizkorri ingurua, Kurtzebarri... oso leku politak dira. Egun ona izanez gero, ederto pasa daiteke.

Aireratzeko zein toki daude gurean?

Belar eta Kurtzebarri punta. Kurtzebarriara oinez edo lur orotariko ibilgailuarekin joan behar da eta Belarrera autoan joan daiteke.

Kirol honetan hasi gura duenak zer egin behar du?

Beharrezkoa da ikastaro bat hartzea. Sopelan, Gasteizen... har daiteke ikastaroa. Gero, komeni da, batez ere hasieran, taldean ibiltzea. Gu, adibidez, laguntzeko prest gaude.

Hasteko, Kurtzebarri leku egokia da. Aireratzeko toki ona, eta baita lur hartzeko ere.

Abenduaren 17an hitzaldia

Amillena aire kirol taldeak hegaztien eta hegaldi librearen gaiaren gainean hitzaldia egingo du abenduaren 17an, Kulturaten, 11:00etan. Pedro Txapak egingo du hitzaldia eta inguruko hegaztien azalpenak emango ditu. Gainera, bi film labur ere eskainiko dituzte.

Parapentean dabilzanek lotura zuzena dute hegaztiekin: haiei begiratzen diete haize-lekuak non dauden jakiteko. Hegaztiak haize-lekuetan ibiltzen dira.

Garatxoak, dermatitis atopikoa, moluskuak, zorriak...

Haurren azaleko 'etsai nagusiak' aurkeztu dizkigu Jabier Agirre pediatrik

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Ume txikien larruazala oso sentibera da; erresuminak, gorriuneak edo azkura oso erraz azaltzen dira. Bost arazo nagusi nabarmendu ditu Jabier Agirre pediatrik *Guraso.com* atarian.

Dermatitis atopikoa

Adituen ustez bost umetik batek jasaten du gaur egun, herentziazkoa da eta bizitzako aurreneko urtea bete aurretik agertu ohi da. Lesio gorri eta lehorrak agertzen dira eta azkura oso nabarmena da. Azal topikoendako xaboi bereziak daude baita kortikoide-kremak dermatitisak erasandako zonen-dako.

Pixoihalagatiko dermatitis

Pixoihalak estaltzen duen azalean agertzen da umea elikagai solidoak jaten hasten denean, hortzak ateratzen diren garaian edo umea beherakoarekin dagoenean. Prebenitza errazagoa da sendatzea baino. Pediatrik pixoihala maiz aldatzeko gomendioa egiten du eta gauez zink oxidoz egindako pomadak erabiltzeko.

Moluskuak

Molluscum contagiosum da deitura zientifikoa. Izterretan, ipurmasailtan eta sabelean agertzen diren goraune biribildu txikiak dira. Ez dute azkurarik ematen baina oso kutsakorrek dira. Banan

-bana kendu behar dira anestesia lokala eman eta gero.

Garatxoak

Haurtzaroan garatxo lauak dira arruntenak, kolore marroi-horixkakoak. Gehienetan aurpegian agertzen dira eta normalean bere kasa desagertzen dira.

Zorriak

Parasito horiek nahikoa buruhauste sortzen dute. Produktu intsektiziden berri ematen du Agirrek bere artikuluan. Dena den, bi urtetik azpiko umeen kasuan ez da komeni horrelakoak erabiltzea eta silikona moduko xanpu bereziak gomendatzen ditu.



Umea besoon dermatitisak eragindako orbanarekin. | LOTUS CARROLL

Martin Sanchez eta Itziar Baltzategi | Haur minbizidunen gurasoen elkarte Aspanogiko kideak

"Umearen egoerara moldatu behar duzu zure bizimodua, eta gainera bere ondoan egon nahi duzu 24 ordutan"

Medikuengan konfiantza osoa edukitzeko eta Aspanogi elkartera jotzeko gomendatzen dute haur minbizia gertutik ezagutu duten bi guraso hauek

AMAIA TXINTXURRETA / L.Z. | ARRASATE

Martin Sanchez eta Itziar Baltzategi bergararrak dira. Biak bizi izan dute seme edo alaba baten minbizi kasua. Aspanogi elkartearen lana eman gura dute eza-gutzera.

Nortzuk osatzen duzue Aspanogi elkarteak?

Minbizia izan edo duten haurren gurasoek osatzen dugu. Herrialde bakoitzean elkarte bat dago, gu Gipuzkoako elkarteak gara.

Nola jasotzen da horrelako notizia bat?

Kolpe oso handia da hasteko eta behin ez duzulako espero, eta sortzen den larritasuna oso handia da. Zer gertatuko da?, Nola joango da?... Galdera asko sortzen zaizkizu eta aldi berean batere ze blokeatuta gelditzen zara. Egoera oso gogorra da.

Familiaren bizimodua guztiz aldatuko da, ezta?

Noski. Umearen erritmora bizi behar duzu, eta gainera bere ondoan egon nahi duzu 24 ordutan. Ez zaude beste ezertarako. Zorionez gaur egun legeak aldatu egin dira, eta baja hartu daiteke. Sasoi batean inspektoreek segidan deitzen zuten. Laster esaten zuten "gaixoa ez zara zu, gaixoa zure semea da". Ez zuten ulertzen, itxura denez, ume bat ezin dela bakarrik utzi.



Aspanogi elkarteak Martin Sanchez eta Itziar Baltzategi. | AMAIA TXINTXURRETA

"Zorionez gaur egun legeak aldatu egin dira eta baja hartu daiteke"

Eta tratamendua hasten denean?

Umearen egoerara moldatu behar duzu zure bizimodua. Tratamendua jaso ondoren nekatuta badaude edo botaka badaude gaizki sentitzen dira, eta euren erritmora ibili behar duzu. Baina umeak ume dira eta bentaja hori dute. Ez diote buruari asko eragiten, eta gaixo badaude ere ondo sentitzen direnean jolasteko gogoak dute. Euren bizimodu normala eramaten dute.

Ze laguntza eskaintzen du Aspanogi elkarteak?

Ospitalean ordu asko bota behar izaten dira, askotan hilabeteak eta egunero bazkaria eramaten diogu haurraren arduradunari. Askok ez dute bazkaltzeko tartarik ere hartzen-eta. Psikologoak ere baditugu, ordenagailuak... Aurten lokal txiki utzi digute Donostia ospitalean. Gure txokoa da. Ondo dator beti.

Aholku bat egoera gogor horretan egon daitezkeen gurasoendako?

Lehenengo eta behin ospitaleko medikuengan konfiantza osoa izateko oso mediku onak ditugu-eta. Gero, eskainitako edozein laguntza onartzeko. Eta Aspanogira jotzeko. Ez badira etortzen gu azalduko gara.

Jaurlaritzaren hobekuntzak eskola jantokietarako

L.Z. | ARRASATE

Eusko Jaurlaritzak eskola-jantokietako jarraibide berriak aurkeztu ditu. Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen elkartetik -EHIGE- pozik agertu dira egindako zenbait aldaketarekin, baina lanean jarraitu beharra dagoela adierazi dute eskola jantokien egoerak ez dituelako oraindik ere gutura uzten ez zerbitzua jasotzen duten pertsonak ez antolatzen dutenak ere.

Onartutako hobekuntzak

Aurkeztutako hobekuntzen artean sei nabarmendu ditu EHIGEk. Lehenengoa ahal den neurrian 30 minutuko bazkaltze-txandak egingo direla. Bestetik, begirale eta ofizialeko langileek ikasturtean 18 ordu gehiago izango dituzte koordinazio batzarrak egiteko zein familiendako txostenak prestatzeko. Talde handietan menu barazkijaleak eskaintzeko aukera aztertuko du Hezkuntza sailak, eta ikastetxeak jantoki-batzordea osatzera premiatuko dituzte. Ikastetxeen eta catering enpresen arteko komunikazioa ere hobetuko dute; Internet bidez izango da hori.

Azkenik, bi astetik aste batera murriztuko da kuota-ren zati bat itzultzeko epea. Berdin jokatu da ikastetxeak antolatutako jardura bat dela-eta piknik-a eskatzen bada.

Klis-klasikoak bilduma; haur eta gazteendako kalitatez eta euskaraz

Galtzagorri elkarteak Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin bideratutako liburu bilduma da Klis-klasikoak. Helburua da literaturako liburu klasi-koak euskaraz eta kalitatez berrargitaratzea. Haur eta gazteei zuzendua adin-tarte guztiak hartzen ditu kontuan: 4-8, 9-12 eta 12-16 urte. Momentuz lau liburu kaleratu dituzte eta gehiago etorriko dira.

Udaberrian sortzera doa 'Etxean Hezitzeko' hiru-hilabetekaria

Aldizkaria bideratzeko taldea sortu da eta atalak zehazten ari dira. Asmoa da *Etxean Hezitzeko* hiru-hilabetekaria izatea. Urtean lau zenbaki izango ditu; udaberria, uda, udazkena eta negua. Lehen zenbakia doan jaso nahi duenak aukera izango du Durangoko azokan eskaera egiteko. Informazio gehiago gida@hikhasi.com helbidean.

Kalean da Xabi Strubellen 'Lur gorrian barrena' abesti-ipuina

Kantu tradizionalei bere estilo pertsonala eman eta haurrendako abesti-ipuina egin du Xabi Strubell musikari ezagunak. Bederatzi kantu eta hamar narrazio jasotzen ditu Maluta argitaletxearen zigilupean Durangoko azokan aurkeztutako lanak. Diskoan kantuak ipuin batean txertatuta daude.

KULTURA



Ezkerretik eskuinera: Aitziber Eguskiza, Rosa Urzelai, Maider Morras eta Maitane Igartua barikuan egindako prentsaurrekoan. | MAIDER ARREGI

Indarkeria matxisten aurkako zine soziala Debagoienez

Abenduaren 12tik 23ra bitartean, filmak eskainiko dituzte Bergaran, Arrasaten eta Eskoriatzan; eztabaidak ere egingo dituzte

MAIDER ARREGI | DEBAGOIENA

Bigarren urtez, elkarrekin, zinemaldi soziala antolatu dute Mugarik Gabe eta Elkarheitzzen Gobernu Kanpoko Erakundeek. Aurtengoa puri-purian dagoen gaia da, gainera: indarkeria matxisten aurkakoa. Eztabaida, antzezlan, film eta dokumental desberdinen bitartez erakutsi nahi dute indarkeria matxista ez dela bakarrik bikotekideen artean ematen. Hala, indarkeria sinbolikoa, estrukturala eta ekonomikoa ere hor daudela gogorarazi nahi dute.

Ibilbide honetan, Arrasateko Udala eta Arrasateko genero

indarkeriaren kontrako Plataforma Mistoa ere bide-lagun dituzte. Indarkeria matxisten inguruan pluralen hitz egiten dute. Izan ere, aldarrikatu nahi dute hilketatik eta, orokorrean, indarkeria fisikotik haratago dauden eta horrenbeste ezagutzen ez diren indarkeria mota asko daudela.

Ezin da ukatu, baina, azken urteetan aurrera pausuak eman direla, batez ere legearen esparruan eta gizartean zabaldu den sentsibilizazioan. Orain, zinema sozialaren bitartez, indarkerien ondorioen gainean egin gura dute lan. "Arrazoi horietan indarra

jarri nahi dugu eta ikusten ez den indarkeria ezagutzera eman. Azken batean hauek ere emakumeen giza eskubideen bortxaketa suposatzen dute-eta", nabarmendu zuen Aitziber Eguskiza Mugarik Gabe-ko kideak.

Datuek hori erakusten dute: "Emakumeak munduko biztanleriaren erdia gara, baina dagoen diruaren hamarren baten jabe gara bakarrik eta ondasunen ehunen baten jabe". Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoan, pobrezia eta baztertzeko arriskuan dauden pertsonen %82,9a emakumezkoa dela azpimarratu zuten

barikuan Kulturaten emandako prentsaurrekoan.

Denondako erronka berri bat dela esan zuen Maitane Igartuak, Helkarheitzzen elkarteko kideak, eta parte-hartzen nahiz antolatzen ari direnendako begiak zabaltzeko aukera izango dela azaldu zuen: "Ikusten ez den biolentziaren gainean hausnartzeko balio dugu eta aurre egiteko mekanismoak bilatzeko". Antolatzaileek azpimarratu dute balio handiko lanak ikusteko aukera izango dela, lan asko egin ostean lortu dituztenak eta zinemetan edo Interneten ikusi ezin direnak.

MAITANE IGARTUA | ELKARHEITZEN

"Indarkeria matxistaren aurreran hausnartu gura dugu"

Maitane Igartua oñatiarra Elkarheitzzen Gobernu Kanpoko Erakunde kide da. Bigarren aldiz antolatu dute zine soziala Debagoienez.

Zein da zine sozialaren helburua? Bizi ditugun pobrezia, ezberdintasun eta bereizkeria egoerak azaleratu nahi ditugu; horren gaineko hausnarketa egitera bideratu. Jendea sentsibilizatu nahi dugu eta elkartzasuneko jarrairak bultzatu. Uste dugu zine sozialaren bidez hori lortu daitekeela; egun irudiak duen indarrak, barneratzen



Maitane Igartua. | MAIDER ARREGI

laguntzen du. Aurreko edizioaren gaineko balorazioa oso positiboa izan zen. Oraingoan, Mugarik Gabe erakunde kanpaina hartu dugu oinarri; indarkeria matxista, landu beharreko gaia dela erabaki dugu.

Gazteen artean azaleratu da indarkeria matxista.

30 urtetik beherakoen artean azaleratu da; batez ere, ikusten ez direnak. Indarkeria horien arrazoiak jo behar dugu. Ematen du gazteak berdintasunean bizi direla eta urruneko zerbit

dela. Lan asko dago egiteko.

Hausnarketarako bidea eskaintzen du zine sozialak.

Bai, ikastetxeetara joko dugu gaztetxoak sentsibilizatzeko. Iragarkiak jarriko ditugu ikastetxeetan; bestalde, hitzaldiak eta zine emanaldiak ere antolatu ditugu. Antzerki forum-ean, esaterako, bakoitza antzezlearen papelean jarriko da eta zer egingo lukeen, zer jarreraz jokatu lukeen hausnartu beharko du egoera ezberdinen aurrean.

ZINE SOZIALA: EGITARAUA

ARRASATE

Abenduak 13: 20:30. Amaia Antzokia. *¿Por qué son importantes las mujeres?* + *El cuerpo de las mujeres* + *Pantojismos*.

Abenduak 16: 22:00. Gaztetxea. *Propiedad privada* + *Hechos son amores* + eztabaida.

Abenduak 19: 19:00. Kulturate. Hitzaldia: *Los mitos del amor romantico*. Hizlaria: Coral Herrera.

Abenduak 21: 19:00. Kulturate. *20 años* + *Martxan* + eztabaida.

Abenduak 23: 22:00. Gaztetxea. Antzerki-foruma, Yokerendan taldearekin.

ESKORIATZA

Abenduak 12: 18:30. Ibarraundi. *Propiedad privada* + *Hechos son amores* + eztabaida.

Abenduak 20: 18:30. HUHEZI: Hitzaldia: *Los mitos del amor romantico*. Hizlaria: Coral Herrera.

BERGARA

Abenduak 14: 20:30. Zabalotegin. *20 años* + *Martxan* + eztabaida.

Abenduak 21: 20:30. Zabalotegi. *¿Por qué son importantes las mujeres?* + *El cuerpo de las mujeres* + *Pantojismos*.

Oharra: Proiektzioen aurretik IV. Spot sozialaren lehiaketako spot-ak ikusi ahal izango dira.

Bergarako taia eskolaren aurreko ikasturteko 73 artelan Aroztegin ikusgai

Irakasle eta ikasleek euren lanak Aroztegi aretoan erakusten dituzten seigarren aldian da honakoa

ANDER MONEDERO | BERGARA
Bergarako taia eskolako ikasleek 2010-2011 ikasturtean zehar egingo dako lanak ikusgai jarri dituzte

Aroztegi aretoan. Erakusketa egubakoitz iluntzean zabaldu zuten eta, guztira, 22 taiagile bergarrek landutako 73 artelan

daude ikusgai Barrenkaleko aretoan. Taia eskolak antolatzen duen erakusketaren seigarren edizioa da aurtengoa eta helburua da Bergarako taiagileen lanak ezagutaraztea eta herritarrak eskolan parte hartzera animatzea.

Elkarteko presidente Manuel Gabilondok esan zuen erakusgai jarritako lanen kalitatea gora doala urtetik urtera taia eskolan landutako teknika eta jasotako esperientziari esker.

Aldiro, ikastaroetan jende gehiagok parte hartzen duela nabarmendu zuten eta, nahiz eta

batek baino gehiagok ikastaroa ez bukatu, urtez urte, Bergaran egurra lantzen duen jende kopurua gorantz doala gaineratu zuten.

Bergarako taia eskolako ikasleek askotariko gai, era eta formatako lanak egin dituzte. Asentsio Esnaola irakaslearen begiradapean: ordulariak, kutxak, herriko kaleen erreproduzioak, itsasontziak... eta baita bestelako gauza bitxiak ere: Esteban Men-

dikutek giza eskuaren forma duen aterkin baten heldulekua egin du, esate baterako.

Hilaren 11ra arte, zabalik

Taia erakusketa egubakoitzean zabaldu zuten eta abenduaren 11ra arte egongo da irekita. Zubia dela-eta, erakusketa aretoak ordu-tegi berezia izango du: gaur itxita egongo da eta bihar eta eguegunean jai egunetako ordutegia izango du.



Bergarako taia elkarteko kideak, euren lanak erakusten. | ANDER MONEDERO

MANOLO GABILONDO | PRESIDENTEA

"Bi orduko klaseak izaten ditugu, baina lanera egunero joan gaitzke"

Manolo Gabilondo da Bergarako taiagile elkarteko presidentea eta eguneroko lanari buruz galdetu diogu.

Zer nolako lanak egin dituzte?

Ordulariak, kutxak, keramika-lanak, paisaiak... egurra lantzeko teknikak erabiliz, horiekin egin daitekeen edozer gauza egin ditugu.

Noiz hasi duzue aurtengo ikastaroa?

Azaroaren 2an hasi ginen, beraz, hemen ikusgai dauden lanak aurre-



Manolo Gabilondo | J.A.M.

ko ikasturtean egingo dakoak dira.

Eguaztenetan elkartzaren zaretze...

Bai, bi orduko klaseak izaten ditugu, baina egunero joan gaitzete egurra lantzera, nahi izanez gero.

Ze jende doa ikastaroa?

Gehienak erretiratuak gara, baina gero eta gazte gehiago dago.

Ikasle berririk baduzue?
Bai, aurtun lau ikasle berri daude. Espero dugu hurrengo urtean gurekin jarraitzea denek.

'Arrasate Hiria' txapelketan guztira 275 akordeoi-jotzaile lehiatu dira aste bukaeran

Martitzenean jakingo da nortzuk diren nazioarteko eta Gipuzkoako irabazleak

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Parte-hartzaile gehien izan dituen edizioa izan da aurtengoa. Antolatzaileen arabera, gainera, "maila ezin altuagoa egon da eta oso parekatuta daude asko". Nazioartekoan, 19 partaideetatik, 9 pasa dira aurrera. Amaia antzokia bete egin da asteburuan eta askoak kanpoan gelditu behar izan dute, sarrera guztiak agortuta.

Kanporaketak eta azken fasea

Gaur eta bihar, lehiaketan kanporaketak eta azken faseak egingo dira. Azken ekitaldia eta sari banaketa bihar, 20:00etan.



Akordeoi-jotzaile bat domekako saioan. | JULIO CALLEJA

LEHIAKETEN EGITARAUA

ASTELEHENA, 5

09:00: Kulturaten. Junior.

10:00: Amaian. Senior.

15:00: Kulturaten. Junior.

15:00: Amaian. Haurrak.

17:30: Amaian. Senior.

20:00: Amaian, Ivan Sverko.

MARTITZENA, 6

09:00: Amaian. Nazioarteko lehiaketako azken fasea.

15:00: Amaian. Nazioarteko lehiaketako azken fasea.

20:00: Amaian. Sari banaketa eta jaialdia.

Agirreazaldegik ez du Gipuzkoako finalerako txartela eskuratu

Gpuntu finalaurrekoa jokatzen zen atzo Hernanin. Galarreta pilotalekua bor-bor, 1.600 lagunek giroa berotu zuten arratsalde partean. Hauek finalaurreko saioan lortutako puntuak: 480 Iñaki Apalategik; 479,5 Jon Martinek; 472,5 Amaia Agirrek; 470 Jokin Urangak; 460,5 Mantxik; eta 451,5 Ainhoa Agirreazaldegik. Saioan fin aritu bazen ere, Agirreazaldegik ez zuen atzo finalerako txartela eskuratu. Txalo zaparradak jaso zituen agurrean, ikusleen aurrean kantatzea suertea dela esanez. Iluben, Gaztelumendi, Irazu, Apalategi, Sarriegi, Agirre, Rezola eta Martin anai-arrebak izango dira.

Aurtego Azokan **GUNE BERRIAK**: Aretoa, Ahotsenea, Haur Literatura Aretoa, Kabi@, Irudienea eta Szentokia. 200 ekitaldi baino gehiago, jai-giroa... **GUZTIA DURANGON!!!**

ZATOZ AZOKARA

Abenduaren 4tik 8ra



46 DURANGOKO
Euskal Liburu eta Disko Azoka

2011ko abenduaren 4tik 8ra

Salgai daude musikaz eta magiaz beteta Ganbara Txikik aurkeztu dituen ipuin musikatuak

- ▶ Eva Ugaldek eta Josu Elberdinek musikatu dituzte 'Eskolopendra' eta 'Jostailugilea' ipuinak
- ▶ Liburuak Oñatiko dendetan, Interneten eta Durangoko azokan eskuratu daitezke

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Musikaz eta magiaz betetako liburu bi aurkeztu dituzte Ganbara Txikiko kideek: *Jostailugilea* eta *Eskolopendra*. Taldeak aurrez antzeztutako ipuinak dira, baina oraingoan liburuan aurkeztu dituzte, ilustrazio bereziki gainera.

Santa Ana aretoan egin zuten ekitaldia, egubakoitzean. Aitor Biain Ganbara Txikiko zuzendariak eta Edurne Retegi idazkariak aurkeztu zuten ekitaldia. Ganbara Txikik azkeneko urteetan egin duen lana goraiatu zuten lehenengo, eta liburuok lan horren emaitza direla gaineratu zuten gero. Ikus-entzuzko baten bitartez, azken urteotan egindako lana ikusteko aukera egon zen.

Liburuen egileak, bertan

Eva Ugaldek musikatu du Mikel Martinezen *Eskolopendra* ipuina; *Jostailugilea* idatzi eta musikatu, oster, Josu Elberdinek egin du. Marrazki eta diseinu lanak Jabier Erostarbe oñatiarrak eta Joana Mansizidor arrasatearrak egin dituzte.

Ugalde eta Elberdin aurkezpen ekitaldian egon ziren. Taula gainera igo ziren eta hitz goxoak eta beroak izan zituzten Ganbarako lagunendako eta, batez ere, Aitor Biain zuzendariendako. Bide batez, Ganbara bezalako abesbatza bat herrian izatearen garrantzia nabarmendu zuten. Egileez gain, ikus-entzuzkoaren bitartez, proiektuan parte hartu duten beste hainbaten berbak entzuteko aukera ere egon zen.



Neskatala *Jostailugilea* ipuin musikatua eskuetan duela. | JULIO CALLEJA

Jabier Erostarbek, esaterako, marrazkiak nola egin zituen azaldu zuen.

Euskal kulturaren sustapena

Miren Arregi Ganbara abesbatzako presidenteak nabarmendu zuen lanok euskara hutsean eginda daudela. "Ganbarak nazioarteko abestiak ere abesten ditu, baina euskal kultura eta folklorea izan dira beti gure ardatza", azaldu zuen. Amaitzeko, Manu Egaña kultura zinegotziak hartu zuen hitza. "Ganbarako kideen begien distiraz" berba egin zuen Egañak, eta gaineratu zuen "distira horrek jarraitzen duen bitartean Udala laguntzeko prest" egongo dela.

Liburuak, salgai

Liburuak Oñatiko kultura etxean, Urzai informatika dendan, Altuna estankotan, Ibarrondon, Aritzan, Arantzazuko dendan, Sesiñena ile-apaindegian eta Donostiako Hontzan daude salgai; baita www.ganbara.org atarian ere; eta egunotan, Durangoko Azokako Badihardugu elkartearen mahaian ere egongo dira. Bietako bat 20 eurotan, eta biak 35 eurotan.

'Olentzero & Co!' musikala ikusteko hiru aukera aurten

Musikal erraldoia Bilbon eskainiko dute aste honetan, eguenean; 16:30ean eta 19:30ean

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

"Ilusioz beterik gatoz, batez ere, iaz izandako arrakasta ikusita". 5.000 lagunek baino gehiagok ikusi zuten iaz Oihan Vegak zuzendutako *Olentzero & Co!* musikala eta asko eta asko sarrearik gabe gelditu ziren. Bada, Gabonotarako hiru emanaldi iragarri dituzte eta dagoeneko hasita daude entseguak egiten.

Lehenengo bi emanaldiak bertan ditugu; abenduaren 8rako iragarri dituzte Bilboko Campos Eliseos antzokian. Debagoienarekin lotura handia duen musika da honakoa. Zuzendaria zein antzezlaria asko gure ibarrekoak dira. Ez hori bakarrik, ikuskizunean parte hartzen dute Bergarako Orfeoak, Aritzeta abesbatzak eta Bergarako musika eskolak.

Sarrerak salgai daude dagoeneko www.arteria.com atarian,

BBK kutxazainetan, FNAC-en edo El Corte Ingles-en. Prezio bakarra da: 12 euro.

Abenduaren 27an, Iruñian

Gabonotan hiru emanaldi egingo dituzte, azkena, abenduaren 27an Iruñako Baluarte auditorioan. 20:00etan hasiko da eta sarrera, kasu honetan, 14 euro da.

Diziplina guztiak uztartzen dituen obra erraldoia da *Olentzero & Co!* 200 artista biltzen ditu eta musikaz gain dantza, txotxongiloak, zinea, magia eta akrobazia saioak ere batzen ditu. Broadway tankerako pop-rock musikal moduan definitu dute bultzatzaileek. Iaz Arrasaten eta Eibarren egindako emanaldiek goraino bete zituzten aretoak eta jendea sarrera barik geratu zen. Hemen, ikuskizunaz gozatzeko aukera berria.



'Olentzero & Co!' ikuskizuneko une bat iaz Amaia antzokian. | JOSETXO ARANTZABAL

BEDELKAR
BILBOAN DENDAK OSTALARI eta ZERBITZU TALDEA

Gabonetako zozketa 2011
2000€

- 1000€-ko sari bat
- 250€-ko lau sari

Zozketa eguna
10-1-2012

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
INDUSTRIA, BERRIKUNTZA,
MERKATUA eta ENERJIA
DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
INDUSTRIAL, COMERCIO Y TURISMO



GOIENAKO e-postak

HERRIAK

- Antzuola:** antzuola@goiena.com
Aramaio: aramaio@goiena.com
Aretxabaleta: aretxabaleta@goiena.com
Arrasate: arrasate@goiena.com
Bergara: bergara@goiena.com
Elgeta: elgeta@goiena.com
Eskoriatza: eskoriatza@goiena.com
Oñati: oinati@goiena.com

GAIK

- Berriak:** berriak@goiena.com
Kirolak: kirola@goiena.com
Kultura: kultura@goiena.com

SAILAK

- Papera:** papera@goiena.com
Telebista: telebista@goiena.com
Internet: webmaster@goiena.com
Irratia: irratia@goiena.com
Publizitatea: publi@goiena.com
Harpidetza: harpidetza@goiena.com
Goiena Kluba: kluba@goiena.com

Hartu kontuan!

GURE MUSIKA TALDEAK

KLAK!SON



Klak!son taldeak Antzuolan, etxean, eta jarraitzaileen aurrean aurkeztu zuen disko berria. | JOSETXO ARANTZABAL

"Kantuek estilo propioa dute; musikalki disko aberatsa egin dugu"

- ▶ Psikodelia, rock-and-rolla eta erritmo dantzagarriak batzen ditu diskoak
- ▶ Eguenean Durangoko Azokako 'Ahotsenea' gunean izango dira, 19:30ean

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

2008an hasi ziren diskoa prestatzen. Bada, denbora luzetxoa pasatu ostean, antzuolarrek *Zai At Devo City* lana aurkeztu digute.

Artisau-lana izan da grabazioa.

Bai. Ez da estudioko grabazio normala izan. Instrumentu pistak poliki-poliki gehitzen joan gara eta, kasu askotan, grabazioarekin batera kantuen konposizioa ere ixten joan gara. Oso prozesu luzea izan da.

Diskoa abstraktua, poetikoa da.

Letrak Jon Pinillos *Pinik*-ek egin

ditu. Oso pertsonalak dira, bere bizipenak kontatzen dituztenak, kasu askotan abstraktuak eta fonetika asko landutakoak. Gure ustez, oso lan ona egin du.

Psikodelia, rocka... non sentitzen zarete erosoan?

Ba, egia esan, galdera zaila da erantzuteko. Norbaitek hasiera baten esan zigun rock melodiko progresiboa egiten genuela, beste batek psikodelia puntu bat geneukala –The Doors eta Itoizen arteko nahasketa– eta aspaldian esaten digute nahiko ilunak garela, melodiari eta batez ere letrei erre-

paratuz. Egia esan, etiketa horiek guztiak aitortu eta onartzeko moduan gaude. Denon arteko ideien nahasketaren emaitza da.

Taldea aldatu, heldu egin da.

Taldea martxan jarri genuenetik, 2005a ezker, bik bakarrik segitzen dugu hasierako kideetatik –Asier Alkorta gitarra eta Ionngu Biteri teklista–, eta, normala den moduan, musikalki ere igartzen joan da. Hasiara baten, 70eko hamarkadako bertsio rockeroak jotzen genituen; gerora, gure estilo propioa aurkitu eta make-ta atera genuen, eta orain, gure

bigarren lana. Konposizio aldetik lan berri honetan aurrerapausoa izan dugula pentsatzea gustatuko litzaiguke.

Zazpi kantu ezberdin.

Kantu guztiek estilo propioa dute; musikalki disko aberatsa da. Kantu progresiboak ditu: *Hiri galdua*, *Satoriztuna*; dantzagarriak: *Sukuboaren bisita*; motelak: *Ziklo baten istorio txikia*; eta rockeroak: *Atrako*, kantu ezberdina. Igor Susaetak egin digu letra.

Nahasketak eta masterizazio lanak Bartzelonan egin dituzue.

Uste baino luzeago joan da. Joseba Iturbe Bartzelonan egoteak eta gu Euskal Herrian ez dituzte gauzak erraztu, egia esan. Baina emaitzarekin gustura gaude!

Ze harrera izan du diskoak?

Orain arte komentatu digutena oso positiboa izan da. Antzuolan aurkeztu genuen diskoa eta harrera beroa izan genuen. Guretzako zuzeneko berezia izan zen; uste dugu jendea gustura egon zela!


Zuzenekoetarako Itoitzen Fois jauna berreskuratu duzue.

Jendeak hala eskatuta Antzuolako zuzenekoan *bis*-ean jo genuen. *Fois jauna* abesti borobila da guretzako eta horregatik jotzen dugu kontzertu askotan. Pena da gure abestia ez izatea...

Zueko ekoiztu duzue, eta banatu.

Bai. Mila kopia jarri ditugu salgai: Antzuolan, Surpe eta Mox tabernetan; Arrasaten, Ekaitzen; Bergaran, Etxagin; Oñatin, Akerren; eta Urretxun, Ku eta Intrepid Fox tabernetan, 5 euroren truke.

ZERTZELADA



ZAI AT DEVOCITY

Estiloa: Rocka, popa, post-rock, psikodelia....

Egilea: Klak!son

Argitaletxea: Autoekoizpena.

Iraupena: 33,7 minutu.

Antzuolako altxor ezkutua garatuta

Antzuolako taldeak oso erritmo lasaia darama kanpora begira, baina disko honekin erakutsi du ezkutuan lana gogoz egiten dutela. Danbaka lehiaketan ezagutu nituen eta sorpresa hartu nuen oso proposamen desberdina eskaintzen zutelako. Orain ere, ezohiko giro eta doinuak lantzeaz gain, gogortuta datoz, lehen baino intentsitate, gordintasan eta erritmo landuagoekin. Instrumentuak hobeto menderatzen dituzte eta abeslaria gai da erregistro desberdin asko nota onez lortzeko. Bada The Doors-en oihartzunik oraindik eta ltoiz ere ez dute begibistatik kendu, baina post-rockean gehiago murgildu dira, esperimentatuz.

IKER BARANDIARAN



Yahoo!ko bulego zentralen sarrera. | MUYINTERNET.COM

Yahoo!-k teknologia Txinako erraldoi bati salduko dio

Amerikako Estatu Batuetan Interneteko nagusietako bat izaten jarraitzen du baina asmoa dute indarrak bideo zerbitzuetan kontzentratzea

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Garai baten Yahoo! liderra zen Interneten baina sare sozialen etorrerarekin erregetza galdu du gaur egungo alorrik puntakoenan. Aspaldi dabilta Yahoo! saldu ala fusionatu guran baina oraindik ere pribilegiozko postua dauka Estatu Batuetan, batez ere albisteei eta kirol informazioari dagokionean. Publizitate kontuetan, adibidez, sarrera gehien dituen sareko enpresa da, Facebook eta gero. Mundu mailan nahi dute lidertza baina, eta Txi-

nako bere sozioak, Alibaba delako enpresak, teknologia guztia erosi gura dio Yahoo!-ri Softbank, Blackstone Group eta Bain Capital enpresekin batera egindako eskaintza batekin.

Bideo zerbitzuetan interesa

Microsoft izan da historikoki Yahoo!-ren ezkongai baina sekula ere ez dute elkar ulertzerik lortu. Hala ere, Bing bilatzaileak eta Yahoo!-renak teknologia bera darabilte eta emaitza berdinak erakusten dituzte. Etsai nagusia,

historikoki, ordea, Google izan da baina borroka hori galdutzat emanda, bestelako zerbitzuetan egon da lanean Yahoo!, albistetan eta informazioan sakonduz, estrategia nagusi moduan.

Orain begirada Internet bidezko bideoan dauka jarrita Yahoo!-k eta mota horretako zerbitzuetan sakontzea da helburua. Estatu Batuetan hasiko dira eta hango liderra izatea da helburua. Gainontzeko teknologia Txinako enpresa taldeari saltzea da posiblen.

Bing bilatzailean 2011ko bilatuenak: Bieber, Sharapova eta Bin Laden

J.B. | ARRASATE

Urtea oraindik amaitu ez bada ere, Microsoften Bing bilatzaileak aurreratzea erabaki eta aurten "gehien bilatutakoaren" zerrenda argitaratu du. Emaitza globalak badira ere, Estatu Batuetan egin ditu aurten zabalkunderako ahalegin handienak bilatzaileak eta emaitzetan ikusten den moduan, hango pertsonaia eta

gertaerak izan dira kontsultatuenak azken 11 hilabeteetan.

Justin Bieber lehen postuan

Pertsonaiarik bilatuena Justin Bieber abeslari gaztea da, iaz seigarren lekuan geratu eta gero, aurten lehen postua eskuratzera heldu dena, hain zuzen. Izarren artean, kirolaririk bilatuena Maria Sharapova tenis jokalaria izan

da. Albiste eta gertaerei dagokienez, interes gehien piztu dutenak celebrity eta prentsa arrosari dagozkienak dira eta horietaz gain, albisterik bilatuena Casey Anthonyren epaiketa izan da eta Osama Bin Ladenen heriotza. Irene hurakana, lurrikara eta Japoniako tsunamia dira, hurrenez hurren bilatuenak. Heriotzak eta ezbeharrak dira nagusi eta hori frogatzeko azken albisterik bilatuena: Amy Winehouse musikariaren heriotza. Gailu elektronikorik bilatuena Xbox kotsola da, Microsoftena, noski.

Euskal Wikipedia osatzeko saioa bihar Durangoko Azokan

Euskal Wikipediak abenduaren 6an hamar urte egingo ditu. Urteurrena aitzakia hartuta, edizio-maratoia antolatu du UEUK Gerediaga Elkartearekin, Euskal Wikipediarekin eta IXA taldearekin batera. Bihar bertan, 10:30etik 19:30era bitartean, Durangoko Azokan saioa gidatu egingo dute edukiak osatzeko.

Esan Ozenkik katalogoa digitalizatu du eta bilduma bat argitaratu

90 hamarkadan euskal musikaren erreferente izan zen diskoetxeak. Webgune berria abiatu eta horrekin batera katalogo digitalizatua argitaratu du. Webgunean aurki daitezke itxi arte kaleratu zituzten disko guztiak eta baita ere etxearen ibilbidea laburtzen duen CDa, Fermin Muguruzak aukeratuta.

Kindle irakurgailua salgai dago jada Estatuan

Joan den astetik nahi duenak *Amazon.es* webgunean eskuratu dezake *e-reader* ezaguna. 99 eurotan ipini dute salgai Espainiako Estatuari dagokion dendan. Inolako iragarpenik gabe ipini dute salgai gailua webgunea zabaldu eta zenbait astera, ziurrenik gertu dauden Gabonetako kanpainen begirada jarrita.

E-posta mezuen %80 spama ala zaborra ei da

J.B. | ARRASATE

GData seguritate enpresak egin du kalkulua eta zehaztu du spama bereziki zuzendua egon dela azken urtean banka elektronikoko, sare sozialeko eta on-line jokoetako erabiltzaileei.

Milioika, segundo erdian

Orain dela urte batzuk kaltegarriak ziren dokumentu atxiki bidez erasotzen bazen, gaur egun *spamingileek* fidagarri diruditen loturak bidaltzen dituzte postontzira, erabiltzaileak amuari kosk egin eta datuak eman ditzan webgune engainagarrietan. Spam bidaltzaileek 299 euroren truke milioi bat mezu bidaltzeko aukera ematen dute bataz beste. Spam eskaintzetan gainera posta elektronikoen zerrendak eta erabiltzaile mota zehatzei bideratutako zerrendak ere salgai daude merkatuan. *Botnet* direlako zerbitzarietatik bidaltzen da spama eta gauza dira ordenagailu horiek 25 segundotan milioi bat mezu bidaltzeko. Orduko 42.660 euro irabazi ditzake halako *botnet* batek.


Bilatzaileari itxura aldatuko dio orain Google-ek

J.B. | ARRASATE

Azken hilabeteetan, pausuz pausuz, Googlek eskaintzen dituen zerbitzu gehienei itxura aldatu die, zenbait ezaugarri kendu, irudi garbiagoa erakutsi eta erabilera simpletuz. Gmail-ek azken asteetan itxura erabat berritua ekarri du eta RSS-ak irakurtzeko aplikazioak ere, Google Reader delakoak, itxura aldatu du, erabiltzaile asko batere konbentzitu ez dituen. Orain guztien amarekin gauza berdina egingo dute eta Google Bilatzaileari diseinua aldatuko diote.

Goiko barra beltza kanpora

Bilaketa koadroaren goiko aldean dagoen barra beltza kendu eta bertako menua (blog, argazki ala albiste bilaketa zehatzak egiteko) Google-en logora pasatuko da, bertan gezia pausatu eta bertikalki zabalduko den menua erakutsita. Honekin, Google + sareari lehenetsuna eman gura diote eta bilaketatik bertatik erabiltzaileak zerbitzu guztiak leku berean izango dituela bermatu.



ELPAIS.COM

Larregiko "ukituen" amaiera

Argazki batek software bidez eginiko ukituak ote dituen detektatzeko gai den software-a garatu dute. Estatu Batuetan *Photoshop*-aren erabilera erregulatu gura dute hedabideetan, besteak beste, 13 urteko nesken %53a euren gorputzarekin pozik ez daudela jakin eta gero. Neurritz kanpoko itxura eta neurri aldaketak kontrolatu gura litzukete horrela eta software berriak ukitu horiek identifikatuko litzuke.

TELE-BEGI

AMAIA PAVON



ETBren erabakiak

Agirregomezkorta gabeko *Vaya Semanita*-z hitz egitera nindoan eta hara non heldu zaidan notizia: Navarra Directo saioa emititzen jarraituko du ETBk, baina iraupena erdira jaitsita. Eguneroko emittzen da Navarra Directo. Deskonexio bidez Nafarroarako sortutako 20 minutuko erreportaje saio honek ezer gutxi gehitzen dio España Directoren originaltasunari.

Hori izan da, oraino, ETBk hartu duen erabakia, orain hilabete jakinarazi ostean saioa bertan behera utziko zuela, Nafarroan ez delako ETBren emisiorik helzen Lurreko Telebista Digitalaren bidez.

ETBren nora ezak ondorio politikoaren usaina du berriz ere. Bi urte luze daramatzate EAeko eta Nafarroako gobernuak pilota-pasan, ETBren Nafarroako gastuak ea nork ordainduko zain. Bitartean, langileen postuak kolokan daude eta audientzia nafarra ETBrik gabe.

Navarra Directori estima gutxi diodan arren, begirunea zor diot ETB ikusi nahi, eta ezin duen audientzia guzti horri, ea behingoz, egoera petral honi irtenbidea ematen dioten gobernuburuek.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 5



Debagoieneko albisteak ikusgai

14:47

Berriak saioan bailaran gertatzen diren azken orduko notizien berri jasoko dugu. Asteburuan jasotakoak ere erakutsiko dizkizuegu.

12:25 Publierreportajea
12:36 Marrazki bizidunak
12:56 Kantari
13:26 Bertso saioa
13:56 Erreportajea
14:32 Ikusmira
14:47 Berriak
15:07 Nere herrie
16:01 Ikusmira
16:36 Erositaikasi
16:53 Berbaz
17:58 Berriak
18:18 Ur eta lur
18:50 Altxor Txokoa
19:23 Marrazki bizidunak
19:50 Berriak
20:20 Kantari
20:53 Erreportajea: Durangoko azoka
21:23 Hamaika.bit
21:53 Publierreportajea
22:04 Berriak
22:24 Erreportajea: Durangoko azoka
22:54 Tolosako abesbatza lehiaketa

MARTITZENA, 6



Euroaren etorkizuna

21:00

Euroaren etorkizuna izango dute berbaigai lehenengo saioan solaskideek Eneko Azkarateren gidaritzapean.

10:00 Erreportajea
10:30 Marrazki bizidunak
10:55 Kantari
11:25 Marrazki bizidunak
12:25 Kantari
13:00 28Klip
13:20 Onein
13:50 Erreportajea
14:20 Ikusmira
15:55 Erreportajea
15:30 Publierreportajea
15:45 28.Klip
16:15 Nere herrie
17:05 Marrazki bizidunak
17:25 Tolosako abesbatza lehiaketa
18:50 Erreportajea
18:20 Kantari
18:45 Onein
19:15 Bizitegia
19:45 Erreportajea
20:15 Lesakako feria
20:45 Publierreportajea
21:00 Eztabaida
21:40 Erreportajea
22:10 Berbaz

EGUAZTENA, 7



G Puntuak gertatutakoak

20:45

Gipuzkoako Bertsolaritza Txapelketako Tolosako bigarren finalaurrekoa eskainiko dizuegu eguazten honetan.

12:30 Eztabaida
13:15 Hamaika.bit
13:45 Kantari
14:15 Erreportajea: Durangoko azoka
14:45 Berriak
15:05 Publierreportajea
15:16 Gipuzkoa kultura
15:46 Tolosako abesbatza lehiaketa
16:16 Berriak
16:36 Bizitegia
17:02 Bertso saioa
17:27 Eztabaida
18:12 Berriak
18:32 Kantari
18:57 Publierreportajea
19:08 Bertso saioa
19:38 Erreportajea: Durangoko azoka
20:08 Ikusmira
20:43 Gipuzkoa kultura
21:15 Bertso saioa
21:43 Eztabaida
22:28 Erreportajea
22:58 Berriak

EGUENA, 8



Durangoko Azoka hizpide

23:15

Aste honetako *Gipuzkoa kultura* saioan Durangora hurbilduko gara, azokako notiziak jaso ahal izango dituzue eguenean.

10:00 28Klip
10:30 Kantari
11:00 Marrazki bizidunak
13:30 Bertso saioa
14:30 Marrazki bizidunak
14:55 Kantari
15:20 Bizitegia
15:50 Eztabaida
16:30 Gipuzkoa kultura
17:00 Onein
17:30 Publierreportajea
17:45 Bertso saioa
18:10 Erreportajea: Durangoko azoka
18:40 Kantari
19:10 Ur eta lur
19:40 Hamaika.bit
20:10 28.Klip
20:40 Kantari
21:10 Marrazki bizidunak
22:10 Altxor Txokoa
22:45 Ipupomamua
23:15 Gipuzkoa kultura
23:45 Publierreportajea
23:55 Tolosako abesbatza lehiaketa

EGUBAKOITZA, 9



Gaztetxoak kantuan

19:16

Kantari karaoke ikuskizunean Aretxabaleta eta Eskoriatzako gaztetxoak kantuan eta dantzan ikusteko aukera izango dugu.

12:30 Nere herrie
13:25 Marrazki bizidunak
13:50 Kantari
14:17 Onein
14:42 28.Klip
15:09 Tolosako abesbatza lehiaketa
15:34 Marrazki bizidunak
15:59 Leku txiki bat
16:29 Publierreportajea
16:40 Erreportajea
17:13 Marrazki bizidunak
17:43 Ipupomamua
18:13 Onein
18:41 Erreportajea
19:16 Kantari
19:43 28.Klip
20:13 Gipuzkoa kultura
20:43 Nere herrie
21:37 Publierreportajea

ARRASATE IRRATIA

'Ezetz hegan egin' antzerkirako sarrerak ditugu zozketan

Ezetz hegan egin antzerkiak lau txori txikiren abenturak kontatuko dizkigu. Zapatuan izango da ikuskizuna eta Arrasate Irratian sarrerak daukagu zuretzeko. Sarrera horiek lortzeko deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi irratia@goiena.com helbidera. Animatu eta parte hartu.

Eguen eta egubakoitzean ez dugu zuzenkorik egingo

Astelehenetik eguaztenera bitartean ohi moduan eskainiko dizuegu 107.7ko *Igo autobusera!* irratsaioa zuzenean 10:30etatik aurrera. Eguen eta egubakoitzean, baina, ez dugu zuzenkorik izango. Hala ere, bitartean musika onenarekin gozatzeko aukera izango duzue 107.7ko uhinetan.

Durangoko Azokara konekzioak egingo ditugu, 107.7an

Durangoko Azokan zer gertatzen ari den jakin nahi du Arrasate Irratian. Horregatik, konekzioak egingo ditugu Durangorekin han gertatzen denaren berri jasotzeko. Azokan zenbat jende dagoen, zein giro dagoen, salmentak nola dauden, zein protagonista dauden azokan... denetarik jakin ahal izango dugu.

TELE-ALBISTEAK

Europa ardatz hartuta, ekonomia kontuak 'Eztabaida'-n

Martitzenean estreinatuko dugu EKAI Centerrek eta Goienak elkarlanean ekoiztutako saioa

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

Eztabaida saio berria eskainiko du abenduan Goiena telebistak. Guztira hiru saio izango dira eta Eneko Azkaratek aurkeztu eta gidatuko ditu; berarekin batera, hainbat solaskide egongo dira *Eztabaida*-ko mahai-inguruetan.

Saioak Arrasateko Garaia Ikerkuntza Gunean grabatuko ditugu eta horietan jorratuko ditugun gaiak hauek izango dira: Euroaren etorkizuna, finantza merkatuak eta industria politika.

Euroaren etorkizuna hizpide

Lehenengo saioan, martitzenean euroaren etorkizuna izango dute berbaigai gonbidatuek. Hamarkada bat pasatu da euroa indarrean sartu zenetik eta gero eta aditu gehiagok jartzen dute zalantzan Europako diru batasunaren proiektua; eta Europako hainbat herrialdetan politikoki ere jarri dute zalantzan proiektu hori.

Adituek diote ezinezkoa dela diru batasunari eustea politika ekonomiko komunik ez badago. Horren harira, Europako agintari politikoak hasi dira erabaki



Lehenengo solasaldian parte hartuko duten adituak. | GOIENA

Eneko Azkaratek aurkeztu eta gidatuko ditu hiru saioak

garrantzitsuak hartzen Europako gobernantza ekonomikoa deritzona sustatzeko.


Lehenengo saioan gonbidatu hauek izango ditugu gai horri buruz berbetan: Iñigo Bullain, Zuzenbide Konstituzionaleko eta

Europarrek irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean; Eduardo Malagon, Ekonomia Zientzietan doktorea eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea eta Adrian Zelaia, EKAI Centerreko presidente exekutiboa.

ZORION AGURRAK



ARRASATE
Lucia Vazquez Arriaran
Abenduaren 9an, 7 urte. Zorionak, prexioxa! Ondo-ondo ospatu zure eguna. Patxo handi bat etxeko guztien baina batez ere lehengusina Martinaren partetik!



ARETXABALETA
Manex eta Kaiet Repecho Zurbano
Manexek abenduaren 8an, 3 urte eta Kaietek urtarrilaren 23an, 7. Horra hor nire bizitzaren bi argi politenak. Bakoitzendako bere ama munduko gauza onenatarikoa izaten bada... pentsatu zuek biok ze izango zareten! Ondo pasatu zuen urtebetetze egunian eta ea merendola galanta prestatzen dozen! Zorionak familia guztiaren partetik!



ARRASATE
Uxue eta Luken Urrutia Abarrategi
Abenduaren 8an, 5 urte. Zorionak, bikote! Ondo pasatu zuen egunean, familia eta kuadrilaren partetik.



ARRASATE
Mikel Alonso Esquina
Abenduaren 7an, 43 urte. Zorionak, aitatxo maitxia! Egun berezi honetan, ederto pasatu eguna. Ospatuko dugu elkarrekin, *guapo!* 43 kilo muxu goxo potolo etxekoen, amatxo, Beñat eta Marenen partetik. Maite zaitugu!



ARAMAIO
Eñaut Garai Gutierrez
Abenduaren 7an, 2 urte. Zorionak eta patxo potolo bat aitatxo, amatxo eta Zairen partetik!




ARRASATE
Nerea Artola
Abenduaren 7an, urtebetetzea. O lero, lero, JI JU... Heidiren antzera, urtiak bete arren, beti gaztetxo! Zuitzako txokolaterik geratzen? Bero-beroa eta txurroekin nahi dugu...



ARRASATE
Malen Balerdi Berezibar
Abenduaren 6an, 8 urte. Zorionak eta segi horrela! Lehengusua eta lagun guztien partetik, ondo pasatu zure egunean.



BERGARA
Aimar Anakabe Iturbe
Abenduaren 6an, 2 urte. Zorionak, txapeldun! Unax, familia eta lagun guztien partetik.



BERGARA
Nerea Alberdi Lasa
Abenduaren 6an, 24 urte. Egund zoriotsua izan dezazula. Muxu handi bat zure pitxipandiaren partetik.



OÑATI
Jokin Madina Korta
Abenduaren 5ean, 6 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzean. Muxu handi-handi bat etxeko danon partetik.



BERGARA
Ibai Rodriguez Diaz de Zerio
Zorionak, Ibai! Abenduaren 5ean lau urte. Zorionak etxekoen, eta batez be, Ekainen partetik. Muxu handi bat.



ARAMAIO
Maddi Garcia Bidaburu
Abenduaren 5ean, 8 urte. Kaixo, larrosa. Zure eguna ere iritsi da eta egun hori alai eta pozik pasatzea nahi dugu familia guztiak. Batez ere zure ahizpa Nahiak.



BERGARA
Oier Leceta Alberdi
Abenduaren 4an, 2 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxekoen partetik!



OÑATI
Maren Arenaza Altube
Abenduaren 3an, 2 urte. Zorionak, potxola! Etxekuen partetik zure bigarren urtetxuan. Muxu handi bat zuretzako.




ARRASATE
Alazne Berasaluze Pastor
Abenduaren 3an, 3 urte. Zorionak aitona-amonan, osaba-izeba eta Antzuolak Silvia eta Eneko lehengusuen partetik. Muxu handi bat, potxola!



ARRASATE
Itxaso Urgoitia Agirre
Abenduaren 2an, 6 urte. Zorionak, laztana! Patxo handi bat etxekoen partetik!




ARRASATE
Julene Sarabia Mendia
Abenduaren 2an, 8 urte. Zorionak! Ondo pasatu eguna eta jarraitu horrela...




OÑATI
Leire Zubiagirre
Abenduaren 2an, 13 urte. Zorionak, Leire! Ondo-ondo pasatu. Zure kuadrilaren, eta batez ere, Haizea ere Heleneren partetik!



OÑATI
Oier Iturricastillo Telleria
Abenduaren 1ean, 9 urte. Zorionak, Oier. Jarritu horrela. Etxekoen partetik.



BERGARA
Oier Fernandez Lopez
Azaroaren 30ean, urtebete. Zorionak, Oier. Belarriko lehen tirakada! Segi beti bezain alai eta irrifartsu. Jaso eizu patxo potolo bat familia danan partetik.




ARRASATE
Maddi Delgado Estrella
Azaroaren 29an, 5 urte. Zorionak, *Mari Kalanbre!* Egund polita pasatu, printzesa. Muxu potolo-potolo bat Ana Mariren partetik.



LEINTZ GATZAGA
Noa Gonzalez Elkorobarrutia
Azaroaren 29an, 4 urte. Zure laugarren urtebetetzean, etxekoen partetik, zorionak! Amatxo, aitatxo eta Amets.



ARRASATE
Maialen Vaquero
Azaroaren 29an, 5 urte. Zorionak Aimar, aitatxo eta amatxoren partetik.



ARETXABALETA
Gorka eta Nerea Dovao
Azaroaren 28an, 23 urte. Zorionak, bikote! Eta urte askotarako etxeko guztien partetik.



OÑATI
Iban Murua
Azaroaren 28an, 8 urte. Zorionak, Iban! Patxo potolo-potoluak etxekuan partetik



OÑATI
Mario Elizburu
Azaroaren 28an, 4 urte. Zorionak, potxola! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean, txokolatada goxo-goxua janez! Holako alai eta pozik jarraitu. Muxutxu pila-pila etxeko guztien, baina bereziki, Enzoren partetik.



OÑATI
Helene Zabaleta
Azaroaren 28an, 7 urte. Zorionak, Helene! Bigarren mailako Txantxiku ikastolako guztien partetik. Ondo-ondo pasatu!

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Hiru bide dituzu GOIENAREN bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaitetz goiena.net atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu. Bete eskatutako datuak eta bertan argitaratuko da zorion agurra. Baita Goiena paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezu bat bidali zorionagurrak@goiena.com helbidera, adieraziz: izen abizenak, herria, urtebetetze data eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz GOIENAKO ordezkari batzera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik argitaratuko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean agertuko dira.

JAIOTAKOAK

BABESLEA

IKUSI MAKUSI



Umeen paradisua

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32



Lide Gonzalez Sanchez

Arrasate 2,070Kilo. Azaroaren 27a. Gurasoak: Susana eta Jose. Argazkian, Lide aitarekin.



Maren Urdanpileta Urzelai

Oñati 3,080Kilo. Azaroaren 27a. Gurasoak: Aintzane eta Asier. Argazkian, Maren amarekin.



Oier Lasa Oncala

Antzuola 3,240Kilo. Azaroaren 27a. Gurasoak: Begoña eta Juanma. Argazkian, Oier sehaskan.



Aitz Ortega Arrieta

Arrasate 3,440Kilo. Abenduaren 1a. Gurasoak: Amaia eta Igor. Argazkian, Aitz sehaskan lo.



Oihan Belategi Sudupe

Aretxabaleta 4,300Kilo. Abenduaren 1a. Gurasoak: Edurne eta Ander. Argazkian, Oihan aitarekin.




Beñat Escobar Aperribai

Arrasate 3,900Kilo. Abenduaren 2a. Gurasoak: Errukane eta Rober. Argazkian, Beñat sehaskan.

DENBORA-PASA


HITZ GEZIDUNAK

	Indonesiako hiriburua	Eskegita	Haur negarti
	* Filipineta-ko hiriburua	Nazional-sozialista	... hartu, lokartu
	Gerrarako makina		
	Basketxea		
Aitarene aita	Nafarroako udalerrria		
Miraritsu	Detektagaillu		
Hesola			Nitro-genoa
Edari bizi			Fotoiak erdian du
		Bibliako pertsonaia	
		Bigarren pertsona	
Nauka		Ele, solas	
Haragikeria zale		Kontsonantea	

LUMA

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK

I	O	K	I	G	V	R	V	H
Z	T	I	H	U	V	N		
O	L	O	K	A	O	D	V	
N		A	I	V	A	T	A	
O	K	Z	R	A	R	A	M	
N	V	A	Z	B	A	V		
I	O	I	K	A	N			
V	L	A	N	I	L	M		
M	Z	J						

A	L	I	A	Z	G
S	G	E	H	S	S
T	S	J	G	E	S
G	A	V	A	R	O
M	V	A	R	O	S
M	V	A	R	O	S
A	V	A	R	O	S
E	A	H	T	E	X
D	E	A	H	T	E
R	E	O	E	M	B
O	E	T	R	E	B
M	B	L	X	A	E
T	B	I	A	T	B

8	6	1	5	4	7	3	2
6	9	2	3	5	7	1	4
4	8	7	8	1	2	3	9
2	5	3	1	8	7	4	6
1	8	9	2	3	5	6	7
5	7	4	1	9	6	2	3
3	6	7	1	9	2	8	4
5	3	4	8	4	5	3	7
1	7	1	9	2	6	8	4
7	2	6	5	4	3	9	8
2	6	5	4	3	9	8	1
9	4	8	5	1	7	9	6

SUDOKUA

			5	1	7			
2								
				6		4		3
	7	4		9		3	8	
8					6	7		
5	3			7	4	6		9
		6		8			3	
	4			2				6
		7	6			1	9	


HIZKI SALDA

Topa itzazu bost kolore.

G	O	R	R	I	A	T	B	M
T	R	E	B	L	X	A	E	O
O	E	M	B	U	P	X	R	R
A	H	T	E	X	A	E	D	E
G	G	X	R	T	Z	U	E	A
S	I	U	B	Z	K	B	A	M
J	A	R	R	O	S	A	G	A
S	G	J	G	E	H	E	T	S
G	Z	U	R	I	A	I	L	A

HIEROGLIFIKOA

... etxe handia!



Hieroglifitikoak:
Hamabi gela.

AI, ENE!

Edozer apain daitekeelako

Estolderiak ez dira hirietako elementurik politenak; baina, irudimen apur batekin, beti saia gaitzke zatarra edertzen. www.sarda.es



AHOBERO

"Pertsonaia historiko batekin afaltzekotan, Victoria's Secret markaren jabearekin"

LIDIA DE SOUSA | MISS GIPUZKOA

Eztabaidagarria da barruko arropen enpresa baten jabea pertsonaia historikoa den edo ez. Ez da hori De Sousaren hanka-sartze bakarra. Gaztelaniaz, jabea emakumea zela esan zuen. Bada, ez: gizonezkoa zen eta 1997an bere buruaz beste egin zuen. www.abc.es

EGURALDIA



Max. 11°

Min. 7°

Fronte berri batek euria eka-
rriko digu. Arratsaldean,
atertuz joango da.
euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2011-12-05

HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

HAMARREKOA

Patxi Usobiaga Eskalatzaile eibartarraren garaipenek argi uzten dute euskal kirolari arrakastatsuenetakoa dela; lesio bat dela-eta eskalatzeari uko egin behar izan dion arren, ezin da esan geldi dagoenik | TXOMIN MADINA

"Eskaladan eta bizitzan, nahiko ona da burugogorkeria"

1. 29 urte ditut eta eskaladaren grina piztu zait. Berandu nabil?
Ez. Finean, beti daukazu kirol honetan barneratzeko eta kirol honek ematen dizkizun satisfakzio guztiak ezagutzeko denbora.

2. Zure grina noiz piztu zen?
10 urterekin. Telebistan ikusi nuen lehenengo aldiz, eta begitik sartu zitzaidan. Probatu egin nuen, eta behin probatuta, ezin izan dut laga bizitza osoan.

3. Pareta batetik zintzilik, ezberdin ikusten da mundua?
Ondo ikusten da mundua; toki polita iruditzen zait dena ikusteko. Nire tokia da; paretan gora eskalatzeko noanean ni neu sentitzen naiz, eta hori da ondoen sentitzen naizen momentua.

4. Hainbat txapelketa irabazi dituzu; tartean, mundukoa. Paretarik gustukoena horietakoren baten igo zenuen?

Txapelketak txapelketak dira, eta ez ditut ikusten pareta bezala. Txapelketa bat edozein tokitan izan ahal da, rokodromo baten. Paretak harkaitzekoak dira, eta, azkenean, harkaitzak uzten dizu oroitza penara bihotzean eta buruan.

5. Zenbat paretatan geratu zara erdibidean?

Askotan; pareta edo bide bat igo-tzerakoan, askotan huts egiten da. Baina ahaleginduz eta ahaleginduz, lortzeko aukera handiagoak daude.



JON POZO

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Teletransportea posible egingo nuke"

"Teletransportea posible egingo nuke; kilometro asko egiten ditut autoan bakarrik, eta nekatu egiten nau. Bidaiek ere ernegatu egiten naute, baina, era berean, gustatzen zait leku ezberdinetan egotea. Teletransportea, horrenbestez, konponbidea izango litzateke".

6. Eskaladarako egoskortasun puntu bat beharrezkoa da, beraz.

Bai eta ez. Bizitzan izan behar da burugogorra; markatutako helburuak lortzea ahalbiderratu dit horrek. Bai eskaladan eta baita bizitzako beste alderdi guztietan, nahiko ona da burugogorkeria.

7. Urriaren 19an agur esan zenion eskaladari. Nola gogoratzen duzu egun hura?

Aurretik pentsatutakoa kaleratu nuen; azken urtea, gura nuena egin gabe, oso gogorra izan da. Data ez nuen gogoan, baina momentua berezia izan zen; jendearen jarrera, gainera, oso ona izan zen. Babes-tuta sentitu naiz.

8. Eskalada surfagatik aldatu duzu. Sentsazio alderagarriak dira?

Ezberdinak dira. Harritzekoa da: berriz eskalatzeko saiatu naizenean ez bezala, surfean zerbikalak ez zaizkit kargatzen. Beste kirol bat da, beste pasio bat; gauza asko ditut ikasteko. Irribarre bat ateratzeko zergati bat ematen dit horrek, goizean motibatuta jaikitzea.

9. Eskaladako edo surfak, zerk ematen ditu puntu gehiago ligitzeko?

Surfak, beti neska gehiago egoten dira! Ez dago alderik...

10. Noiz eman zenuen azken zapatua ezer ere egin gabe?

Ez dut oroitzen. Oso hiperaktiboa naiz, ezin naiz geldirik egon. Beti zerbait egiten nabil; surfa edo eskalada ezin bada, patinatzea, adibidez.

BIHARAMUNA

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL



Askatasunaren hegoak

Walt Whitman poeta zirikatzailearen ustez, politika da gizakien arteko marra berezilerik handiena, gorroto gaindiezina sortzeraino hel daitekeena. Eta gehitzen du iparramerikarrak bere *Neure buruarekiko kanta* ospetsuan, inoiz gizakia libre izatekotan politika abesti bat izango litzatekeela. Orainxe bertan sinatuko nuke nik Walten aitortpena, gizakiaren askatasunean sinesten baitut, hel-muga-epea zein daitekeen asmatzea ezinaren hurrentzat badaukat ere.

Beste poeta hilezkor batek -Leon Felipe espainiar errepublikarra- unibertsoaren ardatza abesti baten gainean eta ez legeanean datzala idatzi zuen. Demokrazia unibertsa-la eta osoko tolerantziarekin bat egiten zuelako jazarri zuten, etengabe.

Bataren zein bestearen literatura gizakiaren askatasun naturalarekin dago lotuta, bi egileei bost axola zaie-larik beren jatorriaren nondik norakoa eta bakoitzari dagokigun igarobideak edota nortasun agiri nazionalak adieraz dezakeena. Hegan egin nahi dute askatasunean, kortse guztietatik libre. Horregatik Withman eta Felipek burumotz eta ergeltzat hartuko lukete Pepe Bono sozialis-ta, bere "Viva España" kañi dela-eta.



ORDUTEGIA

09:30etik 21:30era

Hipermerkatuak



zurekin

Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

www.grupoeroski.es